

Bidegorri zatia inauguratuta

Asteon inauguratu dute, Antzuolan | 34



Agintariak bizikletan. | USOA AGIRRE

GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN
Ezkontzen gaineko 12 orrialde | 19



Herritarren agurrik beroena jaso du Manolo Muñozek | 31



Ospitale berria erabilgarri egongo da 2012. urte hasierarako | 4

AHTren beste tarte bat egiten hasi dira Bergaran | 4

Amateur mailako ziklista onenak etzi Gorkako igoeran

Bihar, berriz, Uzarragara igoko dira gazte mailakoak | 38



Iazko Gorkako igoera. | GOIENA

Induskatu egingo dute Aramaioko Burdin Aroko herrixka | 39




Garitano, Olano, Barruso eta Ormazabal, biltegi berriaren inaugurazioan, zinta mozten.

Beharra duten 8.500 pertsonari lagunduko die Bergarako Elikagaien Bankuak

Eguaztenean inauguratu zuten eta Debagoieneko eta Urola Garaiko bizilagunei emango die zerbitzu, 60 boluntarioen laguntzarekin | 4

EDU MENDIBIL



ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan hirurak izango dira. Ez ahaztu!

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ORAINDIK ... **EZ DUZULA?**

goienakluba[™] 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.

**IREKI BIDEA
EZKERRARI**



Neurriko kontsumoa eta gestio iraunkorra dira orain helburuak

- ▶ Europak derrigortzen du ura arduraz kontsumitzera eta kudeatzera
- ▶ Debagoiengan ere, udalak gero eta gehiago horretara doaz
- ▶ Bruselak gomendatzen du "benetako kontsumoagatik" kobratzea

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Ura luxuzko artikulua da jende askorendako, martitzenean, Nazioarteko Uraren Egunean UNICEFek eta Osasunerako Mundu Erakundeak gogorarazi zuten moduan: ia 900 milioi pertsonak ez dute edateko urik, eta munduko biztanleen %39k, hau da, 2.600 milioi pertsona inguruk, ez dute saneamendu zerbitzu egokirik.

Debagoiengan ez gaude ur faltan, ez eta, oraingoz, horretaz larritu beharreko egoeran ere. Horretan zorteko gara, hainbaten esanetan ura *petrolio berria* bilakatzen dabilen garai hauetan. Hala, Urkuluko urtegia, Debagoien ia osoari edaten ematen diona, Gipuzkoako bigarren handiena da, 10.000.000 m³ hartzeko kapazitatearekin, eta egunotan %82 dago beteta.

Iturburu asko bailaran

Urkuluk urez hornitzen ditu Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola eta Elgeta. Hura da Debagoiengan dagoen Edateko Uren Araztegia izeneko urtegi nagusia. Kalifikazio berbera duen beste urtegitxo bat dago, Gatzaga hornitzen duena: Olaungo iturburu. Horiek biak Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak kudeatzen ditu. Horiez gain, herri askotan urez hornitzeko erabiltzen dira bertako iturburuak: Arra-

saten, Beneraskoa eta Bost Atekoa dituzte; Elgetan, Intxortatik jaitzen den ura ere erabiltzen dute; Bergaran ere, Elosua auzorako iturburu bat dago; eta Antzuolan, Abaroko iturburu dute. Debagoieneko baserriguneetan itur-

buru txiki asko daude, eta horietatik edaten dute haiek.

Aramaio kasu berezia da: hor lau urtegi txiki edo depositu garrantzitsu dituzte: Etxaguengoa, nagusia, erdigunea ere hornitzen duena; Gantzagakoa, San Asen-

tsiokoa eta Olaetakoa. Urak tratatzeko bi gune ere badituzte: Azkoagakoa eta Arrikoitiko. Horrela, bada, Aramaion herrian bertan betetzen da uraren zikloaren lehen zatia, ura sortzen den lekutik herritarrengaino.

Kobratzeko hainbat modu

Uraren zerbitzua emateko moduak ere bat baino gehiago dira. Oñati, Antzuola eta Elgeta Gipuzkoako Ur Kontsurtzioan daude, eta hark kudeatzen du; baita urteroko tarifak eta tasak ezarri ere. Gainerako herrietan, udalak ematen eta kudeatzen du zerbitzua. Horrek eragiten du tarifakatzeko moduak desberdinak izatea. Denek dituzte ezaugarri berdin batzuk, hala ere: denek dute tarifa edo tasa finko bat, zerbitzua ematearren –ura etxean edukitzeko aukerarengatik– kobratzen dena; horrez gain, kontsumoaren arabera tarifa bat, ura kontsumitzen den ala ez kontuan hartuta, eta zenbat kontsumitzen den. Bestalde, ura ordaintzen denean, ordaintzen ditugu ere arazketa edo depurazio zerbitzuak, saneamendu plana (hondakin urak jaso, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua), estolderia... hau da, uraren ziklo osoa.

Ezaugarri orokor horietatik abiatuta, herri bakoitzak bere tarifak ezartzen ditu, udal orde-



Urkulu, Debagoieneko ur-iturri garrantzitsua. | MIRARI ALTUBE



Aramaioko Etxaguengo depositua; barnean, Oier Ezkerra eta Xabier Legorburu arduradunak.

MAGALIREN ALDE

GOENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA | MAGALIREN ALDEKO EKITALDIA

MARTXOAK 27, 15:30 | APIRILAK 2, 21:00

LAGUNTZAILEAK: AZKARATE AROZTEGIA, GIARTZU, ITESA ETA SUPER AMARA.





JOKIN BEREZIARTUA

nantzen bidez. Tarifak ezartzeko irizpideetan badaude aldeak.

Gipuzkoako Ur Kontsorzioan dauden herriek aukera daukate uraren ziklo osoa haren esku uzteko, eta hori da Antzuola, Elgeta eta Oñatiren kasua. Kontsorzioak ez du kontsumo minimo bat ezartzen, eta, 2010eko tarifetan, kontsumitutako metro kubiko bakoitza 0,543 eurotan kobratzen zuen, BEZa aparte. Tarifa mota asko daude, baina esandakoa da oinarritzakoa.

Beste herri askotan, tasa finko bat egoteaz gain, kontsumotramuka kobratzen da. Lehenengo tramua edo gutxieneko kontsumoa da 30 m³-koa herri batzuetan, 50 m³-koa beste batzuetan... Horrek esan nahi du abonatu guzti-guztiei kobratzen zaiela tramu hori. Baina hor ere, modu desberdinak daude: herri batzuetan -Arrasaten edo Bergaran, kasu-, kontsumitutako m³ bakoitzarengatik ordaintzen da. Adibidez, Arrasaten, 50 m³-ko kontsumora arte 0,50 euro ordaintzen dira m³ bakoitzeko, eta hortik gora, euro bat m³ bakoitzeko. Bergaran ere, bi tarifa daude: 50 m³ arte, 0,936 euro m³ bakoitzeko, eta hortik gora, 1,508.

Eskoriatzan, adibidez, 20 m³ arteko kontsumoa tarifa finkoa ere bada: 22,63 euro ordaintzen da, edozein ur kopuru kontsumitu dela. 21 m³ eta 60 m³ arteko kontsumoagatik, 0,1 euro/m³ kobratzen da, eta 61 eta 90 m³ artean kontsumitu dutenei gehiago kargatzen zaie: 61 eta 90 m³ artean, 1,53 euro/m³.

Uraren fiskalitatea berdintzeko helburuarekin sortu zen Uraren Euskal Agentzia. Bere helburuetako bat da ziurtatzea Euskadiko erabiltzaile guztiek berdin ordaintzea ur m³ bakoitzeko.

Bonifikatzea, zaila

Adituek diote herrialde industrializatuetan ura ardura barik gatzatzean oinarritutako politikak egiten direla. Hori aldatzeko, 2000 ezkerko Europako Batasunak 2000/60/CE izeneko Uraren Zuzentzaraua edo Direktiba dauka, ura baliabide gisa babesteko eta herrialde guztiek antzera kudeatu dezaten lortzeko.

Direktibak neurri edo bete-behar asko zehazten ditu, eta, besteak beste, ur zerbitzuak kobratzerakoan uraren "zentsuzko erabilera" eta "ura aurrezte" sustatzen edo promozionatzen duten politikak jarraitzeko esaten du. Horren barruan, bultzatzen

NONDIK EDATEN DU BAILARAK?

Iturburuetako ura herrian bertan erabiltzen da, edateko edo beste behar batzuetarako.



du uraren zerbitzu osoarengatik erakunde berberak kobratzea, eta benetan kontsumitzen dena kobratzetik gero eta gertuago dauden tarifak ezartzen joatea. Horixe da, hain zuzen, Aramaion egin nahi dutena, Xabier Legorburu arduradunak esaten digunez: "Europako Direktibari jarraituz, uraren ziklo osoari dagokion fakturatzeko modua erabiltzen hasiko gara. Berrikuntza hori Zerbitzu Batzordeak onartu du, eta aurten jarriko da martxan".

Ura kobratzeko eskalak egiterakoan, filosofia bat egoten da atzean: bonifikatzea neurritz kontsumitzen dituztenak, edo, kasuan kasu, familia ugariak edo beharrrak dituztenak. Baina administrazioek ez dute marjina handirik: ur soila euro bat inguru ordaintzen dugu metro kubikoko; fak-

turan datozen beste kargu gehienak tasak edo bestelako kontzeptuak dira, eta horiek denondako berdinak izan behar dira, legez. Horregatik, administrazio bakoitzak bakar-bakarrik kontsumitzen den kopuruaren tarifa eragin dezake; eta tarifetan ze erabiltzaile mota bonifikatu eta zein ez erabakitzea ere zaila da.

Ordenantza 'iraunkorrek'

Europako Zuzentzarauak agintzen dituen beste neurri batzuen artean daude erakunde arduradun bakoitzak egin beharreko lanak: esaterako, ur-ihesak gerta ez daitezten ziurtatzea, kontsumoa planifikatzea... Eta bailarako herriak ere badabilta ur zerbitzua gaur egungo behar eta joeretara egokitzen.

Horren eredia da Eskoriatzako Udalak 2009tik daukan Uraren

Kanona, "zerga ekologikoa"

Uraren Euskal Agentziak kudeatzen du Uraren Kanona. 2009an ezarri zen Euskadin, Europako Zuzentzarauari kasu eginez. Uraren Euskal Agentziaren esanetan, kanon hori "uraren kontsumo errealeko edo potentzialari ezartzen zaion zerga bat da, erabilera horrek ingurunean izan dezakeen eraginagatik", eta "ingurumeneko kostuaren zati bat errekuperatzen da". Helburua da "urak duen kostua eta urarengatik ordaintzen dena parekoak izatea".

Kanona ipintzen zaie eguneko eta pertsonako gutxienez 130 litro kontsumitzen dutenei, eta kobratzen da 0,06 euro/m³.

Gaineko Ordenantza, ura modu arduratsuan erabiltzeko eta kudeatzeko helburuarekin. Beste neurri batzuen artean, esaten du eraikin berrietan eta guztiz berritzen direnetan ura modu arrazionalerik, bere neurrian eta barra-barra gastatu barik kontsumitzea neurriak ipini behar direla; euri-ura batzeko eta erabiltzeko tresnak ere aurrekusten ditu; eta erabilitako urak beste modu batera berriz erabiltzeko moduak ere bai.

Bergarako Udala ere ordenantza berri bat prestatzen dabil. Helburua da ura aurrezte eta "ur-baliabideak hobeto erabiltzea", udal arduradunaren esanetan.

Eragiteko beste modu bat da herriko ura hobeto aprobetxatzea eta herrirako sareak osatzen joatea. Arrasaten, Benerasko eta Bost Ate iturburuetako ura asfaltatik erabiltzen da, eta iaiztik Udala lanean dabil, horietako ura erabilia, herrian ur-sare alternatiboa eraikitzeko, herri osoa zeharkatuko duten hodiekin. Dagoeneko herrian erabiltzen den uraren %10 iturburu propioetatik dator.

Antzuolan, Abaro (Lizarraga) iturburuak ura Galartza eta Irimora eramateko asmoa dute. Azpiegituraren zati bat eginda dago: Iturbe-txikin depositua dute, eta 1,5 km-ko hoditeria.

DATUA

0,1

EURO/M3

Hori kobratzen du Eskoriatzako Udalak 21 eta 60 m³ artean kontsumitzen den ur metro kubiko bakoitza.

DATUA

%10

UNITATEA

Joera bat da herriko bertako ura aprobetxatzea. Arrasaten kontsumitzen den uraren %10 herriko iturburuetatik dator.



batu-banatu
banaketak neurrira

943 08 10 50

banaketak@batubanatu.com

Banaketa aukera ezberdinak

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **personalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
- **Goiena paperarekin** batera (astelehenetan eta ostiraletan).

Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.

Eskatu
aurrekontua
konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzaren alta emanda daude eta lan-arriksuen prebentzio legedia betetzen dugu.



Bergarako Elikagaien Bankuen biltegiak 8.500 laguni emango dio laguntza

San Juan poligonoan inauguratu zuten biltegia: 200 metro koadrokoa

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Eguaztenean inauguratu zuten Elikagaien Bankuak Bergaran duen bulegoa. San Juan poligonoan du egoitza eta 200 metro koadro ditu, eta Deba eta Urola eskualdetako 8.500 laguni emango dio laguntza. Horretarako izango dute 60 boluntarioen laguntza.

Bergarako biltegian sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena Garapen Iraunkorrekotik diputatu Carlos Ormazabal eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuko presidente Juan Mari Garitano. Agurte Berruso Bergarako alkatea ere egon zen ekitaldian.

Eta Aldundiko eta Udaleko ordezkariak ere izan ziren. Markel Olanok eskerra adierazi zien boluntarioei: "Bankuaren lana bultzatzen duten boluntarioen eta erakundeen laguntza barik ezinezkoa litzake. Euren lana txalotzeko da, eta eskerrak eman nahi dizkiegu".

Bestalde, azpimarratu zuen Elikagaien Bankua erreferente dela Gipuzkoan: "Gure gizarteko behartuengandako elkartasuna



Barruso, Garitano, Olanok, Ormazabal eta Agirrebeña San Juan poligonoko biltegian. | EDU MENDIBIL

eta iraunkortasuna lotzen dituen sare sendoa osatu dute. Elikagaiak behar bezala bilduta eta banatuta, berme osoarekin heltzen dira kontsumitzailearengana, eta ez dira zabortegira bideratzen".

Era berean, Olanok aipatu zuen azken minutuko elikagaien bilketan inbertitzen den euro bakoitzeko hamar euroren balioa duen elikagai kopurua berreskuratzen dela.

la 960 tona
Foru Aldundiak 106.200 euro inbertitu ditu Bergarako biltegia finantzatzeko. Diru horrekin hozkailuak, apalategiak eta banaketarako furgoneta bat erosi dituzte.

14 urte elkartasunean

Gipuzkoako Elikagaien Bankua 1997ko azaroaren 3an sortu zuten, irabazi asmorik gabeko elkarteko moduan lan egiteko. Gipuzkoa barruan elikagaiak biltzea eta banatzea du helburu. Trukeak ere egiten ditu: Euskadiko Bankuen Federazioarekin eta Espainiakoarekin (FESBAL). Gainera, Europako Batasunetik datozen elikagaiak kudeatu eta banatzeko ardura du.

DATUA

60

BOLUNTARIO

Horiek dira Bergarako biltegian dauden boluntarioak.

Eguazteneko ekitaldian emandako datuen arabera, 2010ean, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak ia 960 tona elikagai batu zituzten Oiartzungo biltegian. 16.000 pertsona lagundu zituzten.

Hasi dira AHTren Bergara-Bergara eta Antzuola-Ezkio ekialdeko lanak

MIRIAN BITERI | BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren Bergara-Bergara eta Antzuola-Ezkio ekialde zatiaren lehen harria jartzeko ekitaldia egin zuten atzo eguerdian Bergarako Kuku-basio ingurunean.

Bergara-Bergara zatiak 3,1 kilometroko luzera izango du, eta horietatik ia erdia bide-zubian egingo dira. 95,1 milioi euroko aurrekontua du, eta gauzatzeko epea, oster, 34 hilabetekoa izango da. Zati horrek 900 metroko luzera eta 90 metrotik gorako altuera izango duen Deba errekararen gaineko bide-zubia izango du. AP-1 autobide, GI-627 errepide eta errekararen gainetik joango da hori. Horrez

gain, ikusmen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, bide-zubia metalezkoa izango da; gehienetan hormigoizkoa izaten da.

60 hilabeteko epea

Antzuola-Ezkio Itsaso zatiari dagokionez, 6.940 metro ditu. Azpimarratzekoak dira Zumarragako bi hodiko tunelak; bakoitza 5.360 metrokoa. Proiektuaren konplexutasuna dela-eta obra bi zatitan banatu da; ekialdekoan lehen harria jarri zuten atzo. Azken horrek 3,4 kilometro ditu, Urretxu eta Ezkio-Itsaso artean. Lanok 125,7 milioiko aurrekontua dute, eta 60 hilabetean egingo dituzte.



Iñaki Arriola eta Pedro Luis Rio, atzoko ekitaldian. | MIRIAN BITERI

Debagoieneko Ospitale berria erabilgarri egongo da 2012. urte hasierarako

Besteak beste, dilatatzeko bainuontzi bat izango du eta hiru erditze-gela

M.B. | ARRASATE

"Debagoieneko Ospitale berria erabilgarri egongo da 2012. urte hasierarako". Hitz horiek esan zituen Osasun eta Kontsumo sailburu Rafael Bengoak Arrasatera egindako bisitan. Martitzenean egon zen eraikin berriko lanak ikusten, Osakidetzako zuzendari orokor Julian Perez eta Debagoieneko Ospitaleko gerente Jon Armentiarekin. Guztiek lanen zuzendaritzako arduradunekin ikusi zituzten ospitale berriak izango dituen solairu, gela, unitate eta espezializazioak.

Sarrera, lau solairu eta bi soto izango ditu, eta horietan sartuko dute ospitalizazio guztia. Eraikin berrian espezializazio gehiago egongo dira. "Endokrinologia eta kirurgia urologikoa izango dira espezializazio berriak. Bestalde, endoskopia unitatea izango dugu. Digestio eta arnas endoskopiak egingo ditugu. Horiekin, gaixoak denbora laburragoan egongo dira ingresatuta", esan zuen.

Dilatatzeko bainuontzia

Ospitale berriaren beste izarretako bat erditze naturalendako unitatea izango da. Alde batetik,



Jaurilaritzako eta Osakidetzako ordezkariak eraikin berriaren aurrean. | GOIENA

hiru erditze-gela egongo dira, eta beste alde batetik, dilatatzeko bainuontzia ipiniko dute. "Erditze naturala izan nahi duten emakumeendako azpiegitura egokiak izango ditugu. Langileak espezializatuta egongo dira eta laguntza egokia jasoko dute".

Bestalde, Rafael Bengoak azpimarratu zuen osasun etxeetan eta ospitalean emango den infor-

mazioa bera izango dela: "Bailarako edozein osasun etxetara doan erabiltzaileak hango informazioarekin ikusiko duena ospitalean ikusiko den bera izango da. Lehen mailako arreta ematen duten zentroen eta ospitalearen arteko hartu-eman indartu egingo dugu. Espainiako Estatuan lehenetarikoz izango gara, Valentziarekin batera".

Oscar Romero elkarteak informatika gela inauguratu du El Salvadorren

Hiru bergarar izan dira han, elkartearen proiektuak gertutik ezagutzen

MIRIAN BITERI | BERGARA

Bergarako Mila Andueza eta Maria Pilar eta Mariasun Larrañaga ahizpak El Salvadorren izan dira, Gipuzkoako Oscar Romero Solidariza Batzordea elkartearen bidez Tacuban egiten ari diren proiektuak gertutik ezagutzen.

Urtarrilaren 17an irten ziren hirurak Bergaratik, Guatemalarekin muga egiten duen Tacubara joateko; 35.000 herritar ditu errolatuta Tacubak. Bi aste eman dituzte han, eta El Salvadorko Adic (Garapen Integral Komunitarioaren Elkarte) elkartearekin batera, joan den urtean landutako proiektua inauguratu zuten; hain justu ere, 30 ordenagailuz osatuta dagoen informatika gela. Horretaz gainera, San Francisco izeneko giza-kokaleku berriaren saneamendu lanen lehenengo harria ere jarri dute bergararrek.

Azken horren harira, Anduezak azaldu du 2002an El Salvadorrek jasandako lurrikara dela eta herritar asko etxe barik geratu zirela. Haren esanetan, "orduko gobernuak lau horma eta teilatua baino ez duten etxeak egin zituen; han ez daukate urrik. Saneamendu lanak ez zituzten

egin, eta ur-zikinak kalean gertatzen dira. Proiektu horrekin, urak behar diren tokitik sartu eta bideak konponduko dira".

Udalen laguntzarekin

Esandako proiektuak egin ahal izateko, Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako udalen eta Bideberri mankomunitatearen laguntza izan dute Oscar Romero elkarteak.

1987. urtean sortu zen esandako elkarte; orduetik hona, 36 proiektu jarri ditu martxan zona

hartan. Askotariko egitasmoak dira horiek, hala nola osasun etxeak, ikastetxeak, Mitch urakanaren ostean eraikitako etxeak eta umeendako nutrizio guneak. Aldi berean, umeak besoetan hartzeko programa ere badu esandako elkarteak.

Martxan jarriko duten hurrengo proiektuaren berri ere eman dute. Bergararrek jakinarazi digute aurtun 3 eta 6 urte bitarteko umeendako bi ikastetxe egiteko proposamena aurkeztuko dietela bailarako udalei.



Andueza, informatika gela inauguratzen. | OSCAR ROMERO ELKARTEA

Txokolate dastatzea egingo dute Arantzazu berpizteko

Arantzazuko erakunde guztiek elkarrekin lan egiteko abian jarri duten prozesuaren barruan dago ekimena

M.B. | OÑATI

Arantzazu berritzeko eta sustatzeko prozesuaren barruan, txokolate dastatzea egingo dute bihar, zapatua, goizean. Arantzazu Gaur Fundazioko kide Iker Usonek jakinarazi duenez, 11:00etatik 13:00etara Oñatiko Txokolateixak eta Gorrotxategi enpresak postua jarriko dute Gandiaga Topaguneko sarreran, jendeak haien produktuak ikusteko eta dastatzeko aukera izan dezan. Haren esanetan: "Sarreran, etortzen diren guztiei, txokolate beroa eskainiko diegu".

Otsail hasieran, Arantzazun lan egiten duten erakunde guztiak elkarrekin lan egiteko gertutasuna azaldu zuten, eta ingurunean egiten diren askotariko ekimen guztien berri "batera" antolatu eta emateko asmoa zutela aipatu zuten. Usonen arabera, "orain arte nork bere ekimenak antolatu eta, askotan, elkarren artean zapaltzen ziren; hainbat egunotan hitzordu bat baino gehiago izaten genuen, eta beste zenbaitetan, bat ere ez. Hori gerta ez dadin, elkarrekin lan egitea erabaki dugu, eta hiru hilean behin agen-

da bakarria duen liburuxka kaleratzen hasi gara".

Horrekin batera, gogorarazi nahi izan du Arantzazuko eskaintza zabala dela: "Ez dira bakarrik mezak edo bilerak egiten. Bestelako ekimen asko ere antolatzen dira, bisitariak erakartzeko asmoz". Biharko txokolate dastatzea horietako bat da.

Lehenengo ekimena

Usonen esanetan: "Ekitaldi xumea egiteko asmoa dugu, lehen aldia da eta horrelako ekimen bat antolatzen duguna". Lehena bai, baina ez azkena; dagoeneko bestelakoak ere gertatzen hasi dira eta. Esaterako, datorren astean, hilaren 28tik 30era bitartean, gazta egiteko ikastaro teoriko eta praktikoa egingo dute Gomiztegin.

Bestalde, apirilean 10erako mendi irteera antolatu du Arantzazuko Adiskideak taldeak; eta apirilaren 30ean sagardo dastatzea egiteko asmoa ere badago. Aisialdiarekin lotutako ekintza horiei, askotariko kongresuak eta jardunaldi gastronomikoak gehitu behar zaizkie.

Hainbat irteera egingo dituzte jardunaldi gastronomikoen harira

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako jardunaldi gastronomikoen barruan, irteerak izango dira egunotan. Bihar, Gomiztegin bisita egingo da, artzaintzaren historia ezagutzeko. Etzi, oster, artzain-txakurren erakustaldia izango da toki berean. Leintz Gatzagako gatz museoa ere ikusi ahal da bihar. Bisitatan parte hartu nahi dutenek 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakira dei dezakete, edo turismo@debagoiena.net helbidera idatzi.

Lanuzteekin jarraituko dute haur eskoletako hezitzaileek

Haur eskoletako hezitzaileek desadostasuna erakutsi zuten eguaztenean, Partzuergo sektorean ezarri gura dituen murrizketak direla eta. Debagoienean Arrasateko Bedoñabek, Oñatiko Txiki-Txokok, Eskoriatzako Kulunkak eta Antzuola eta Elgetako haur eskolek egin zuten bat lanuztearekin. Partzuergoarekin adostasuna lortu ezean, eguenean, hilak 31, ere lanuztea egitea aurreikusi dute hezitzaileek, 11:00etatik 14:00etara.

Ander Ugarte, B Awards diseinuko lehiaketako 30 finalisten artean

M.B. | ARRASATE

B Awards diseinuko I. nazioarteko lehiaketako 30 finalisten artean dago Ander Ugarte, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikaslea. *Etorrizuneko ikasgela* proiektuarekin aurkeztu da. Eguazten iluntzean Bilbon egindako ekitaldian Hong Kongeko unibertsitate politeknikoko Sze Ling Lee ikaslea irten zen garaile; 10.000 euroko saria jaso zuen.

Mundu osoko ikasleek parte hartu dute: Norvegia, Danimarka, Singapur, Harvard eta Hong Kongeko unibertsitateetako eta MUko eta EHUko ikasleek; bost euskal ikasleek baino ez dute lortu finalera iristea.

Lehiaketa bidez nazioarteko gazte sortzaileak sustatu nahi izan dira.

Ikasleen beharretara egokitu

Lehiaketako bost kategorietatik (Produktua, Habitata, Ikus Komunikazioa, Espazio Publikoa zein Garraioa eta Mugikortasuna), Habitataren kategorian hautatu dute Ugarte. Modulu malguez dago osatuta, eta moduluok, berriz, ez dute gela tradizionalen linealtasunik eta ikasleen beharretara egokitzen dira. Ugarteren ustez, proiektua bideragarria izango hemendik 10 edo 15 urtera. Karrera-amaierako proiektu finala da, eta Alecop kooperati-barentzat diseinatu du.

Apirilaren lehen ikasketa kooperatiboaren gaineko jardunaldia egongo da Huhezin

M.B. | ESKORIATZA

Ikaskide izeneko proiektuarekin lotuta, datorren egubakoitzean, apirilak 1, ikasketa kooperatiboaren gaineko jardunaldia egingo da Eskoriatzan, Huhezin.

Elkarrekin bizitzen ikasi: Ikaskide taldeak lelopean egingo den jardunaldia 09:00etan hasiko da, eta 13:45ean bukatu.

Nekane Arratibel (Huhezi) eta Andoni Zendoiairen (Erkide) aurkezpenaren ondoren, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Joan Ruek talde lanaz jardungo du. Jarraian, hainbat ikastetxeetako esperientziaren berri emango da; azkenik, ikaskidetzaren erronkez egingo dute berba han.



MIREIA BIKUNA

Formazio lanerako aukerak

Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta lanbide heziketaren gaineko azoka egiten dihardute Arrasateko Kulturatean. Atzo zabaldu zituen ateak eta gaur ere ikusi ahal da, bailaran lanbide heziketak eskaintzen dituen aukerak. Azoka zabalik egongo da 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era arte.



Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. Zapatu arratsaldeetan zabalik.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
'http://goiena.net/iritzia/'

Euskara Gosez

Tripetan zorrixak dantzan! Goseak emoten daben sentsaziñua da hori. Hutsik sentitzen zara eta ez dakizu zelan beteko dozun ere. Eta zer edo zer ahoratutakuan, mihingain puntatik pasatu orduko, hara! Burmuinak jaso dau mezua: badator, lasai!

Korrikarako abestixa egin dau Gose taldeak, eta mondrautarrek emoten doskuen mezua aurreko horrekin guztiarekin lotuta ikusten dot. Banekixan, gainera, mezuarekin asmatuko zebela!

Tripazorrixak esnatu gaituen sentsaziñua eragingo dosku abestixak: *Zertan ibili gara, baina, orain artian?* Danetik izan garelaren esaten dosku abestixak; kolore, sinesmen eta ekimen ugari aittatuko dosku; gauza askotan ibili garala, buru-belarri. Eta, derrepente, tripazorrixak esnatu egin gaitu gure dispertsio horretatik; eta asko izanda ere nahikua izan ez garala ikustera eruangaittu. Egiten dozuna ez da nahikoa; euskaraz egiten ez baldin badozu, ez. Euskalakari izan behar dozu!

Eta mugitzeko deia egingo dosku: *Pausoz pauso, gelditu barik; pausoz pauso, maitatu, ari... pausoz pauso, Euskalakari!* Hitzetatik eta aldarrikapenetatik ekintzetara pasatzeko ordua dala dioskue Gosekoek, *Euskalakari* izateko dei argia: euskara erabiltzeko, ikasteko eta maitatzeko ordua dogula. *Eserita zer itxoi ten zenuen? Beldurtuta, nekatuta ote zinen... tren pasada eta zu begira hemen...*

Ez da, ez, geldik egoteko garaia. Izan ginen eta garen beste hori guztia ahaztu barik, *Euskalakari izango gara* da mihiaren puntatik pasatu berri jakun mezua. Eta, tripetara heldu ezker, nekeak eta beldurrak alde batera laga ezker, daukagun gose sentsaziñuari aurre egingo dotsagu.

Euskaraz bizitzeko garaia dugu hau, erabakiak hartzeko eta ekintzetarako garai berria.

Euskara gosez bizi al ziñan? Heldu jatzu Korrikaren mezua? Euskalakari izango al zara?

USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | 'zuzen@goiena.com'

Boto uholdea

Bunkerrak hitz egin du. Sortu ez da hauteskundeetan egongo Konstituzionalak ez badu bidegabekeria hau zuzentzen. Kotsiderazio juridikoetan barik iritzi eta aurreiritzietan oinarritu den epaia irakurtzen ez dut denborarik alferrik galduko. Ondorio bakar bat atera dut: inoiz baino garrantzitsuagoa dela maiatzaren 22an nork bere bozka ematea: ez abstentziorik, ez boto baliozkerik. Nork bere ikuskeratik gertuen ikusten duen aukera politikoen alde eginaz, herri honen argazki soziologikoa eramango dugu instituzioetara, eta ezker abertzalekoek ziurtatuko dute aukeratutako bideak ez dela atzera bueltarik. Bunkerraren aurkako bide eraginkorrena.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | 'http://goiena.net/iritzia/'



GUTUNAK

Legalizazioa orain

Igor Letona Biteri
(Arrasateko Ezker Abertzalea)
Arrasate

Eskubide Estatu baten ezaugarrietako bat Estatuok bertako biztanleriaren eskubideak legediak dioen arabera bermatzea da. Demokrazia formalek erakusten duten herritarren eskubideekiko jarreran dago, beraz, Eskubide Estatuaren errespetua. Demokrazia batean, herritarrak dira lehenik eta behin Eskubide Estatuaren bermatzaile, eta ondoren, Estatuaren egitura desberdinak, direla exekutiboak, legegileak edota judizialak.

Demokrazia zenbat eta zuzenagoa, legedia orduan eta malguagoa izango da herritarren eskubide zibil eta politikoen errespetua dela eta.

Demokraziak zenbat eta barne arazo gehiago izan, orduan eta murriztagoak eskubide zibil eta politikoen bermatzen dituen legedia.

Ezin dugu ahaztu, dena den, demokraziaren bermatzaileak herritarrak direla, eta "lehenengo ijitoen

bila etorri ziren eta nik ez nuen ezer egin, ondoren judutarren bila, eta orduan ere nik ez nuen ezer egin, geroago..." bezalako jarrerekin nekez izan dezakegu geure burua demokratizatzen.

Euskal Herriak Espainiako eta Frantziako estatuaren duen gatazka politikoen ondorioz, euskal herritarren atal handi baten eskubide zibil eta politikoen deuseztatu zituzten Espainiako Estatuak kudeatzen duten guneek.

Deuseztatutako eskubide horiek bultzatzeko erabilitako argudioek gure ustez ez dute tokirik demokrazia batean eta are eta gutxiago prozesu demokratiko baten agertokian.

Eskubide zibil eta politikoen onarpenak ados ez gauden eta inposatzen zaigun Estatu bateko partaide oso egiten gaitu.

Egungo agertokian ere jakin badakigu Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gainditzeko, alderdien eta eragile sozialen arteko negoziazioa dala bidea.

Euskal herriaren zein euskal herritarren geroa guk geuk, euskal herritarrok bideratzea ahalbideratzeko negoziazio mahaietan egoteko ere beharrezkoa da legalizazioa.

Era berean, justuagoa dela sinesten dugun proiektu politikoa bideratu ahal izateko, askatasunez aritzeko eskubidea dugu, kalean, komunikabideetan edota instituzioetan, besteak beste.

Demokrazia parte-hartzailea herritarren eskubideak bermatuak izan daitezzen dagoen eta modurik zuzenena eta demokratikoa dela sinesten dugulako, instituzio batzuetan egotea lortu dugu, egoten jarraitzeko eskubidea dugu, eta, guk horrela erabakiz gero, beste batzuetara joateko eskubidea ere bermatua izan dakigun eskubidea dugu.

Dena den, legalizazioak mesederik handiena demokraziari berari egiten dio, eta, ondorioz, herritarrei. Guztioi.

Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gainditzeko, herritarrek nahi duten aukera politikoa bozkatu ahal izateko, Eskubide Estatuaren itxuragabetezko ahaleginak deuseztatuzko, Euskal Herriaren hegoaldeko instituzioetatik politika abertzale eta ezkeriarra garatzeko eta Euskal herritarrok erabakiko dugun geroa eraiki ahal izateko, legalizazioa orain!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibua Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diselina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Zorrotza Martin, Itxaso Bereizbar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com


ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Markel Olano | Gipuzkoako diputatu nagusia

"PP-PSOE fronteari aurre egiteko batu beharra daukagu abertzaleok"

Hauteskunde ostean, "gutxieneko batzuetan ados" jarri beharraz ohartarazi du Olanok, oinarri moduan Ibarretxe Plana hartuta

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Kultura politiko berria bultzatzen saiatu dela eta harro dago Markel Olano ahaldun nagusia. Agintaldia, egoera politikoa eta hauteskundeak hizpide izan ditugu.

Agintaldia amaitzera doa; ze lorpenekin geratu da gusturen Markel Olano?

Gure saiakera izan da politika egiteko modua, kultura, aldatzea Gipuzkoan. Liskarra eta egonezina saihestu nahi izan ditugu, eta, iritzi politiko ezberdinak izanda ere, erakundeen artean eta jendartearekin batera egitasmoak aurrera ateratzen saiatu gara. Hori izan da gure kudeaketa estiloaren marka bereizgarria.

Arantzaren bat izango duzu.

Hainbat eta hainbat alorretan urratsak egin behar ditugu. Etorrizunari begira, herri honek bultzada behar du bizpahiru alorretan: bakearen eta normalizazioaren ikuspegitik; krisi ekonomikoaren eta lehiakortasunaren aldetik; eta, hirugarrenez, euskara eta euskal kulturaren alorrean.

Joan den astean jarri zen Zubietako errauste plantaren lehen harria. Ezinbestekoa da erraustegia?

Esango nuke kontu honetan asmatu egin dugula, bai konponbidean eta baita eremuan. Izan ere, Europa erdi eta iparraldeko herri aurreratuenak, Alemania kasu, hartu ditugu kontuan. Eredu horretan, birziklapenak protagonismo handia hartzen du. %50etik gora birziklatzen da han. Alemanian, esaterako, ia %60 birziklatu eta konpostatzen dute.

Zer egin beste hondararekin?

Herrialde aurreratu horiek egin duten moduan, errauskailuaren aldeko apustua egin dugu. Alemanian, esaterako, hiri hondakinen %40 erraustu egiten dute. Herriarren geroago eta inplikazio handiagoarekin, gutxiago erretzen da. Eskema aurreratu eta onena da hori. Gipuzkoan %41 birziklatzen da, eta horri gehitu behar zaio konpostatzen dena: %2. Helburua da 2016an %60 birziklatzea.

Debagoieneko Mankomunitateak atez atekoaren aldeko apustua egin du eta Antzuolan, esate baterako, lehenengo egunetan %86 birziklatzea lortu dute.

Debagoieneko Mankomunitateak eta Antzuolak erabaki dute atez atekoaren alde egitea. Ondo. Edozelan ere, eredu baten edo bestearen alde egin, beti dago zati bat ez dena birziklatzen. Eta horrekin zer egin erabakitzeke orduan bi aukera daude: zaborteak edo errauskailua. Eta nik, esperientziatziaz, badakit zaborteak dela aukerarik txarrena. Gure agintaldian une erabakigarri eta historikoa gertatu da, San Markoko zaborteak itxi egin da eta. Hortaz, herri edo mankomunitate bakoitzak erabakiko du zein den zaborra batu eta birziklatzeko modurik egokiena, baina, behin hori eginda, geratzen den zatia Zubietako errauskailura eroan behar da. Ez da beste aukerarik.

Zalantzan jarri du oposizioak Gipuzkoa Aurrera, erakunde hori inork ez duela kontrolatzen argudiatuta...

Ez da ulertzen zer den erakunde publiko eta pribatuaren arteko kolaborazioa. Erakundeekiko gehiegizko obsesioa dagoela uste dut. Arlo publikoak ezin du dena kontrolatu, dena bere gain hartu. Oso jendarte aberatsa daukagu ikuspegi guztietatik begiratu. Eta hori aprobetxatu behar dugu. Sektore guztiekin elkarlana bultzatu behar da, eta ez bizkarra emanez lan egin.

"Herri aurreratuetan egin den moduan, errauskailuaren alde egin dugu"

"Arlo publikoak ezin du dena kontrolatu, dena bere gain hartu"

Ekonomia hobetze bidean dagoela esateko zantzurik igarri duzue?

Bai. Iaz azkeneko hilabeteetan hainbat arlotan ikusi zen, esaterako, enpresak salmenten edo esportazioaren ikuspegitik bazebiltzala aurrera egiten. Espainiako merkatua lur jota dago eta epe laburrera ez daukagu etorkizun oso onik Espainiako merkatuan. Baina konexio handia dute gure enpresek Europako herrialde aurreratuenekin, Alemania, Frantzia eta abarrekin, eta horiek ari dira berreskuratze prozesu garrantzitsuan.

Diputazioak Reala diruz lagundu izana kritikatu izan da.

Reala desagertze bidean egon da klub moduan eta Foru Aldundiak babesa eskaini dio zulotik ateratzeko. Realak etxeko lanak ondo egin ditu. Zorrotz jokatu du oraingo zuzendaritza batzordeak. Bestalde, publizitatea jarri dugu Realaren elastikoan, euskararen babesaren ikuspegitik egokia zelako. Euskararen aldeko konpromisoaren mezua jendarte osora zabaltzeko. Eragile garrantzitsuak dira eta jokalaria.

Bus azkarra Debagoienean jartzea aztertu duzue; bailarako alkateak eszeptiko samar agertu dira.

Hainbat neurri hartuta, bideragarri eta onuragarri izan daiteke sistema hau. Herrien artean ez ezik, herrietan ere egokitzapenak ez badira egiten ez dauka zentzurik bus azkarrak. Hortaz, udalek ere inplikatu behar dute. Proposamena egin dugu eta elkarrekin saiatuko gara irtenbide egokiena topatzen. Ehuneko ehunetan asmatzea ez da samurra izango, akaso, baina bai pixkanaka garraio publikoa hobetzen joatea. Proposamen bideragarria eta egingarria dela uste dugu. Udalen partetik adostasunik ez badaukagu, ez dugu martxan jarriko.

N-1 errepedean eta Beasain-Durangoan bidesariak jartzeko erabakia hartu dute Batzar Nagusiek. Zergatik bidesariak?

Gipuzkoa nazioarteko garraioaren pasoko tokia da. Horrek



Markel Olano, Goiena telebistan, martitzean. | ENEKO AZKARATE

dauzka abantailak, eta arazo eta arriskuak. Daukagu errepede bat ia trafiko osoa hartzen duena: N-1. Eta beste bat, berria, gipuzkoarrok ordaindua: AP-1, horrenbeste erabiltzen ez dena. Izan ere, N-1en alternatibak Donostiako bigarren ingurabidea eta AP-8 eta AP-1 dira, baina azken hauek ez dira erabateko alternatiba erabiltzaile kopuruari dagokionez. Beraz, bidesariaren kontzeptua ezartzen dugu trafikoa behar den moduan arautzeko.

Bergarako Errege Mintegiaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko permuta egitearen alde agertu dira Bergarako Udaltzapea eta Gipuzkoako

"Salmenten edo esportazioaren ikuspegitik, aurrera doaz enpresak"

"Bidesariaren kontzeptua ezartzen dugu trafikoa orekatzeko"

Batzar Nagusiak, baina Foru Aldundiak muzin egin dio eskariari.

Diru kontuek agindu dute. Foru Aldundiak dauka Bergarako UNEDen patronatua hiru herenen ardua. Beraz, hartzen diren erabakien pisu handiena Aldundiaren gainera dator. Ez genuen garbi ikusten permutarena, batez ere ekonomikoki izan zezakeen ondorioak. Horregatik erabaki genuen atzeratzea azken erabakia datorren agintaldira. Bitartean, UNEDek Seminarioan erabiltzen duen zatian, behar ziren obrak egin ditugu.

Hauteskunde emaitzak direnak direla, erabateko gehiengoa ez du inork lortuko eta gobernu akordioak behar-beharrezkoak izango dira.

PP-PSOE fronteari aurre egiteko batu beharra daukagu abertzaleok. Izan ere, beste frontea hedatuko dute diputazioetara eta udaletara. Horri aurre egiteko, nola eta hala, elkarlana bideratu behar dugu abertzaleok. Horretarako ez dago denak batu beharra, nor bere profila mantenduz gutxieneko batzuetan ados jarri behar genuke hauteskunde ostean. Oinarriak dira Ibarretxek jarritakoak: giza eskubide guztien aldeko apustua eta Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke ahalmena. Horren alde egiten dut.

DUELA 10 URTE

2001-03-20

Aretxabaletako mezak garajeen

Andramariaren zeruratzeko parrokia eraberritze lanak zirela-eta Aretxabaletako Mitarte kalean zegoen garaje bat egokitu eta txukundu zuten parrokiako kideek, mezak esateko. 2001eko martxoan guztiz itxi zuten parrokia lanak behar bezala egiteko eta garajea erabiltzen hasi ziren. Hainbat hilabetetan esan zituzten bertan mezak, baita beste ospakizun batzuk egin ere, tartean jaunartzeak eta bataioak.



Mitarte kalean zegoen garajea. | ARETXAGAZETA

2001-03-21

Reala eta Osasuna, Arrasaten

Realak eta Osasunak partidua jokatu zuten Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian martxoaren 21ean. Arrasate Kirol Proiektuak 10 urte betetzen zituela ospatzeko etorri ziren bi euskal taldeak gonbidatuta, eta herriko zein Debagoieneko zale asko joan ziren orduko futbol zelaira, jokalaria bertatik bertara ikustera. Berdinketarekin bukatu zuten partidua (1-1) eta zaleak gus-tura geratu ziren.

DUELA 5 URTE

2006-03-21

Twitter sare soziala abian

Jack Dorsey estatubatuarra orain dela bost urte bidali zuen lehen *tweet* edo mezua, "informazio motza, txorien txioa legezkoa".

Egun, 200 milioi erabiltzaile baino gehiago ditu eta egunero 110 milioi mezu inguru bidaltzen dira. Ospetsu askok erabiltzen dute -aktore, abeslari, kirolari...- zaleei berriak emateko.

ARETXABALETA

Jose Luis Arratibel Sakristau lanetan 45 urtetik gora daramatza eta elizako kontu guztiak dakizki; azken urteotan mozorrotuta ikusi izan dugu

Aratuste-domekan. | MIRARI ALTUBE

"Lehenengoz mozorrotuta ikusita, ezusteko galanta hartu zuten askok"

Jose Luis Arratibel (Gasteiz, 1945) Larreatik (Araba) etorri zen gura 1965ean. Parrokian sakristau lanean hasi zen orduan eta oraindik horretan jarraitzen du; utziko duen hutsunea betetzea zaila izango da gero. Azken urteotan, mozorrotzen hasi da, umore bikaina duela erakutsita.

Noiz hasi zinen lanean parrokiari? Larreatik Arrasatera 1964an etorri nintzen eta handik Aretxabaletara hurrengo urtean; urriaren 4an, hain zuzen, hasi nintzen, 19 urte nituela.

Hortaz, 46 urte parrokiari lanean. Asko aldatu dira kontuak elizaren inguruan, ezta?

Bai, horixe. Askok meza gehiago izaten ziren lehen, eta familia osoa joaten zen; joan gura ez zuten ezkutuan ibili behar izaten zuten. Orain, ostera, askatasun handia dago. Abadeei dagokienez ere, lehen askok gehiago zeuden: herriari, hiru; eta auzoetarako beste hiru edo lau. Orain hiru daude Aretxabaleta, Eskoriatza eta auzoetarako.

Abade asko pasatu dira, eta zelan moldatu izan zara haiekin?

Ondo guztiekin. Guztiok dugu gure jenerioa, baina luzaroan ondo konpondu gura izanez gero moldatu egin behar da bestearen izaerara. Bikotekidearekin edo koadrilan

gertatzen den legez, harremanak irauteko landu egin behar da.

Eta joandakoekin baduzu harremanik?

Bai; bai Mi-Mikelekin, bai Antonio Astigarragarekin. Urtebeteetan deitu izan diogu elkarri.

Euskaraz ez dakizu, baina kantuan eta otoitzean ezin hobeto.

Halaxe da. Gainera, neuk kantatzen ez badut herritarrek ere ez. "Irten zaitetz kantuan egitera, bestela ez dira hasiko", esaten zidan askotan Bitoriano zenak.

Erretiroan pentsatu duzu?

Ni erretiratu nago lantegiko lanetik. Parrokian, ostera, ez dago erretirorik; osasunak lagunduz gero jarraitu egingo dut.

Eta zure hutsunea nork beteko du gero?

Ez dakit, ba... Laguntzaileak izaten ditut, Bernabe Makazaga zena, Izurietako Martzelino... Eta emakumeak ere etortzen dira; batzuetan mordoak agertzen dira, bost igual, eta hurrengoan, nik ezin dudanean, inor ez. Aratuste-domekan, esaterako, ez zegoen inor, ezta abaderik ere; Gatzagan meza esaten duen fraidea etorri zen, baina nik esan nion egun horretan ezin niola lagundu.

Bidaia batzuk egiten dituzu, ala?

Bi hilabete behin-edo Madrilerantz joaten naiz, han lagunak ditut

HERRITARRAK



Jose Luis Arratibel, Aretxabaletako plazan, atzean parrokia duela. | M.A.

"Batzuetan laguntzaile mordoak dator eta nik ezin dudanean inor ez"

"Bazkalosteko loalditxoak ere bi telefonoak aldean ditudala egiten dut"

-eta. Datorren astean joango naiz, baina astelehenera egubakoitzera bakarrik, aste bukaeran hemen egon beharra dut.

Hortaz, lan lotua da...

Ez da lehen bezala, kanpaiak automatikoak dira eta erlojua ere bai, baina beti daude lanak: elizako atea zabaldu eta itxi, dirua jaso, mezak hartu... Eta telefonoa beti aldean hartuta ibiltzen naiz; bazkalosteko loalditxoak ere bi telefonoak, etxekoa eta poltsikokoa, alboan ditudala egiten dut. Madrilen nagoenean ere deitzen didate eta handik ibiltzen naiz antolatzen.

Gizon seriotzat zintugun eta orain urte batzuk harrituta utzi gintuzan lehenengoz mozorrotu zinenen.

Bai, orain zortzi bat urte izan zen. *Agarre*-ri bururatu zitzaion; nik ez nekien zelan mozorrotuko ginen, txandala behar nuela bakarrik, eta Aratuste-domekan bertan elkartu eta harri-jasotzaile jantzi

ninduen. Hark haizea ematen zidan eta Bernabe Makazagak, erizain jantzita, dopinaren aurkako anilisia egin.

Eta orduetik hona urtero mozorrotzen zara Aratusteetan.

Bai; ijito, guardia zibil, erizain, hondartzara joateko moduan, beste behin ezkontza egin genuen koadrilan, eta aurtan, Pirritx eta Porrotx. Hala ere, lehenengoa gainditzea zaila izango zela esan izan dit jendeak, ezusteko galanta eman nuelako orduan.

Eta jendeak zerbait esan izan dizu mozorrotuta ikusita?

Ezkontzaren urtean parrokiako kide batek galdetu zidan sakristaua zelan ezkontza egin genuen koadrilan zibila eginda, eta nik esan: "Emaztegaia dibortziatua da-eta".

Aurtan Txapel Txinek txaloak eskatu zituen zuretzeko.

Eta esker on moduan "Aratusteen zaindari fin eta fidela" aitortzen duen oroigarria eman didate.

NIRE HERRIAN

HERRIKO GIRO SANOAK

Herriko giroa oso gustuko dut, oso sanoak gara uste dut. Jende askok ezagutzen nau eta guztiak agurtzen naute; umeek ere beti daukate zerbait esateko. Haiek sarritan deitzen didate, eskolako leihotik ere bai, eta "mezetakoa da hori" esan izan dute, katekesira doazenek elizan ikusten nautelako lanean.

APURKETAK JAIEN OSTEAN

Ez daukat inolako kezarik; izan ere, herri lasaia da gurea, eta gogaitzeko moduko zaratak ere oso gutxitan izaten dira. Noizbehinka izaten diren apurketak ez ditut atsegin. Parrandan egin eta pozik ibiltzea oso ondo dago, baina horrek ez ditzala ekarri ondoren gurean hainbatetan gertatu izan diren apurketak.

HERRIAK

ARRASATE

Arbigara, udaberriak dakarren gutizia

- ▶ Arrasaten oso estimatua da arbiaren hostoa; bertan gutxi landatu arren, jaten da oraindik
- ▶ Negu lasaiaren ostean pasa da jasotzeko sasoia eta orain da platerera eramateko garaia

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azken urteetako baina lasaiagoa izan da negua aurten eta udaberriaren ia konturatu barik sartu gara. Bada, udaberriak dakarren altxorretako bat platerera eramateko gertu daude hainbat arrasatear; arbigaraz ari gara, udaberriak dakarren gutiziaz, hain zuzen.

Arrasaten oso estimatua da arbigara zenbait etxetan: arbiaren kukulutik irteten diren hostoak –loratu aurretik– plater preziatua dira. Arbia, landarea bera, ganaduarendako jakia izan da betidanik; hau da, neguari aurre egiteko lehengaietako bat zen abereendako. Garai baten, ganaduari bi modutara ematen zitzaion arbia: landarea bera garbituta edo garbitu barik. Behien kasuan, esaterako, arbia emateak esnearen kalitatea hobetzen zuela esaten zen hainbat nekazariren artean.

Arbisoroak aurkitzea zaila

Egun Arrasaten ganadu gutxi dago eta geroago eta terreno gutxiago. Beraz, arbia landatzen duten nekazariak ere geroago eta gutxiago dira; finean, oso zaila da gurean arbisoroak ikustea.

Baserrira Garagartza auzoan duen Egoitz Zuazubiskar gazte arrasatearra da salbuespenetako bat; haren ortuan arbiak aurki daitezke oraindik. Hala ere, aitortu digu ez duela arbigarak jateko ohiturarik: "Nire etxean jan izan dira, baina koadrilan, esaterako, lagun batek bakarrik jaten ditu arbigarak. Zenbait urtean gure ortura etorri izan da arbigarak bere eskuekin jasotzera, harendako gutizia dira-eta". Izan ere, gazteen artean ez da batere ohikoa arbigarak jatea: "Egungo gazteek nahiago dituzte hanburgesak, pizzak eta berehala jateko



JOKIN BEREZIARTUA

ORTUAN Egoitz Zuazubiskar, Garagartza auzoko ortuan, eguaztenean. Ganadu gutxiago dagoenez, geroago eta gutxiago sartzen da arbia; arbigara, baina, preziatua da oraindik hainbat arrasatearren artean.



J.B.

KUKULUA Bertatik irteten diren hostoak jaten dira. Behin kukulua irten eta landareak loratu baina lehen, hostoak kendu eta hori da jaten dena. Horri deitzen zaio arbigara.



J.B.

BATU OSTEAN... Platerera eramateko modu bat: arbigara ondo garbitu eta txikitu ostean egosi. Gero, zartaginean olio apur batekin eta urdaiazpiko edo hirugiharrekin prestatu eta... on egin!

Platerera, beti lagunduta

Negu lasaiaren ostean pasa da dagoeneko arbigarak jasotzeko garaia eta orain jakiaz gozatzeko unea da, plateran. Azarekin moduan, txiki-txiki egin eta egosita jaten dira arbigarak. Etxe batzuetan ura birritan edo hiru alditan aldatuta egosten dira; beste batzuek hasierako urarekin bakarrik egosten dute. Garagartzako

Etxagibel familian, esaterako, ur bakarrek egosten dira –ura ondo kendu behar zaie zartaginean eraman aurretik–. Etxagibeldarrek ez dute arbirik landatzen, baina badute jateko ohitura. Hori bai, ohikoena da zartaginean urdaiazpikoaz edo hirugiharraz lagunduta prestatzea. Gainera, arbigarak osasungarriak direla ere esaten da: C bitamina asko, mineralak eta libratze-lanendako ezin hobekak. Zaporez, hori bai, mingotsak dira.

jakiak ortuko produktu ekologikoak baina", zioen Garagartzako beste baserritar batek.

Arbigarak, angulen parean?

Antonio Bidaburu erretiratua ere iritzi berekoa da, hura ere Garagartzako ortuan harrapatu dugu. Urtero jaten du arbigara: "Niretako ez dira gutizia bat, baina gustatzen zaizkit, gaur [herenegun] jan ditut eta bihar [atzo] ere jango ditut". Arbigara jateko ohitura Garagartzan hasi zela dio: "Lehen ez zen inon ere jaten eta gogoratzen dut, ume nintzela, gure aita zenak jaten zituela. Inguru hauetan arbigara jaten lehenengotarikoak izango ziren Garagartzan". Galiziarrek ere antzeko barazkia jateko ohitura dutela dio: "Han, antza, badute grelos delako landarea, arbiaren hostoaren modukoa". Arrasaten askok angulen mailako gutiziatzat dauzkate arbigarak; Bidaburuk, ordea, nahiago ditu angulak.

Gutizia moduan hartzearen arrazoietako bat izan daiteke noizean behin jaten zirela. Hau da, arbigarak ez dira izan lentejak, lekak edo patatak moduan; kapritxo moduan jaten ziren hainbat baserritan.

Kalean bereziki preziatuak

Garai baten baserritarrek tabernariei ekartzen zizkieten arbigarak eta tabernariak ordainetan txuletak ematen zizkieten baserritarrei. Elkarre gastronomikotan ere hainbat koadrila batzen dira mahaiaren bueltan arbigarak aitzakia hartuta. Orain, arbia landatzen dutenak geroago eta gutxiago direla, arbigarak oso estimatuak dira kalean. Nekazariendako ganaduaren bazka, kaletarrendako preziorik gabeko gutizia.

IVÁN VALLE ARGAZKILARITZA
www.ivanvalle.com 630603989



Bi milioi eta erdi euro bideratuko ditu Udalak aurten ur-gastuetara

- ▶ Hala ere, azken lau urteotan %26 jaitsi da Urkuluko uren kontsumoa
- ▶ Ur-ihesak kontrolatzen ahalegin berezia egin eta %10 jaitsi dituzte

UBANE MADERA | ARRASATE

Urarengatik izango dira etorkizuneko borroka eta gerrak. Asteon izan da Uraren Nazioarteko Eguna, eta datuek erakutsi dute uraren gabezia izango dela epe ez oso luzean munduan arazo.

Zorionez, gurean ez dugu horren pertzepziorik. Zorionez, edo zoritxarrez. Izan ere, pertzepziorik ezak, sarri, daukagunaren balioa ez preziatzen garamatza.

Horren adibidea da udalerrri honetan gutxi jakingo dutela Arrasateko Udalak 2011rako 2.550.000 euroko gastua duela aurreikusita ura hornitzeari dagokion tasarengatik.

Inbertsioak eta beste

Kopuru horretatik 891.937 euro ura Urkulutik Arrasatera eroateagatik ordaintzen du Udalak. 200.000 euro pasa hobekuntzak egiteko inbertsioetarako bideratu zituen, 101.000 euro materiala erosteko eta 400.000 euro pasa Ur Partzuergoari ordaindu beharreko kanona ordaintzen, ur-azpiegiturak finantzatzen laguntzeko. Horri guztiari gehitu behar zaizkie, adibidez, langileei ordaindu beharreko soldata. Izan ere, behin ura Arrasatera ekarrita, Arrasateko Udala bera arduratzen da ur hori banatu eta kudeatzeaz.

Kontsumoa jaitsi egin da

Kontsumitzen den ur-kopuruari dagokionez, berriz, 2010eko datuen arabera, Arrasatek 1.284.045 m³ fakturatu zuen. Hortik 831.729 m³ etxeetan banatu zen; beste 452.316 m³ industrian eta 272.075 m³ ur-iheseetan joan zen.

Kontsumoari dagokionez, Arrasateko datuak ikusgarriak izan arren, ez dira ezohikoak. Are gehiago, urteekin kontsumo hori jaitsi egin dela erakusten dute datuek: 2006an 1.524.781 m³ fakturatu ziren eta 2010ean, berriz, 1.284.045 m³. Jaitsieraren arrazoiak hiru dira: krisia, biztanle kopuruaren jaitsiera eta kontsumoan bertan izan den jaitsiera.

Ur-ihesak izugarri jaitsi dira

Joera bera izan dute ur-ihesak, baina kasu horretan are nabarmenago: 2006an ur-ihesa %27,57koa bazen, 2010ean %17,48raino jaitsiaraztea lortu du Udalak.

Kopurutan, 580.419 m³ ur-ihesi izaten zen 2006an. 2010ean, berriz, 272.075era jaitsi dute. "Kopuru egokia da, %25eko ihesak normalizatzen dituzte; eta beste herri batzuekin alderatuta, Arrasateko egoera pribilegiatua dagoela ere esan dezakegu", adierazi du Alberto Loitik, Mantenu Saileko teknikariburuak.



Etxeetako neurri bako ur kontsumoa zaintzeko eskaera egin du Udalak; argazkian, hortzak garbitzeko ur-jarioa. | U.M.

UR-TASA

Udalak egingo duen 2.550.000 euroko gastuan hainbat kontzeptu daude sartuta: langileen soldata eta Partzuergoari ordaindu beharreko kanona.

GASTUAREN ARRAZIOA	GASTUA EUROTAN
Guztira:	2.550.000
Urkuluko ura	891.937
Inbertsioak	200.000
Kanona	483.973
Materiala	101.000

ITURRIA: OBRA ETA ZERBITZUAK SAILA

askoz errazagoa da ur-ihesak detektatu eta konpontzea. Adibidez, orain dela gutxi detektatu genuen San Andresko Bañez Doktolean gauez larregiko ur-kontsumoa izaten zela. Eta atzeman genuen aparailu batean zegoela arazoa. Horri esker, berehala konpondu genuen arazoa, egun gutxitan eta ur-eteterik egin barrik".

Izan ere, Udaleko Mantenu Sailean ur-sarearekin lotutako informazio guztia informatizatuta dute. Datuok egunean 24 orduan jasotzen dituzte ordenagailuan, eta horri esker dute ur-sarea kontrolatuta eta konpon ditzakete ur-ihesak egun batetik bestera eta herri-terrei eragozpenik eragin barrik.

Etxebizitzetako ihesak

Behin hori lortuta, Udalaren hurrengo erronka etxebizitzetako ur-ihesak detektatu eta kontrolatzea da. "Etxe berriak eraiki diren guneean ikusten da gauean ia ez dela ur-kontsumorik ematen. Etxe zaharretan, berriz, ur-ihesak daude. Eta kontua da Udalarendako oso zaila dela hala-koak kontrolatzea, izan ere, ur-kontagailuak etxe barruetan izaten dira Zenbait komunitate edo bizilagun hasi dira kontagai-

luok etxe azpietara ekartzen eta horri esker ezohiko kontsumoak detektatzea askoz ere errazagoa da guretako. Halako kasuetan, Udalak egiten du obra horren zati bat (ur-saretik kontagailura artekoa) eta beste zatia bizilagunen esku geratzen da. Hala ere, hala-koetan ere Udala badabil laguntzak ematen. Beraz, norbaitek interesa balu, guregana etortzea besterik ez du", adierazi du Patxi Arburuak, Mantenu Saileko zinegotziak.

Ur-sare alternatibotik %10

Bestalde, Arrasateko Udalak ahal-ekin berezia egin du, baita ere, udalerrirako bigarren mailako ur-sarea sortzen. Bi iturburutatik hartutako urak erabiltzen ditu: Beneraskoak eta Bostatekoak. Eta herrian azken urteotan egindako lanak aprobetxatuta, ur horiek bideratzeko sare alternatiboa eraiki du. Dagoeneko herri guztia zeharkatzen duen sare eraikita dauka Udalak.

Guztira 141.800 m³ ur eskuratu ditu iturburu bi horiei esker, herriko kontsumoaren %10. Benerasko urak, adibidez, igerilekuak elikatze eta lorezaintza lanak egiteko erabiltzen ditu. Horrez gain, ur-sare nagusiak kale egiten duenean alternatiba moduan funtzionatuko du bigarren mailako ur-sareak, ur eteteak saihesteko. Eta jakina, horri esker aurrezte ere lortu da Urkuluko uren gastuan.

Eta ur-kontsumoan aurrezteko bide horretan, Udalaren beste ekimen bat izan da herrian ura alperrik gastatzen zen tokietan (Iturbide ondoko monumentuan, Santa Barbara parkean...), ura eten.

URAREN EBOLUZIOA, LAU URTEOTAN

GASTUA	2006	2008	2010
Kontsumoa (m³)	2.105.200	1.746.000	1.556.120
Fakturaturako (m³)	1.524.781	1.389.001	1.284.045
Ur-ihesak	580.419	330.059	272.075

ITURRIA: ARRASATEKO UDALEKO OBRA ETA ZERBITZU SAILEA

DATUA

%10

METRO KUBIKO

Herriko iturburutatik hartzen duen urari esker, Arrasateko Udalak ur-kontsumo osoaren %10 m³ eskuratzeko lortu du.

Etxeetako ur-ihesak

Ur-sare orokorrean egindako berrikuntzen ostean, etxe zaharretan aurkitutako ur-ihesak dira orain Udalaren kezka iturri, hala-koetan sumatu dituzte-eta herrian gertatzen diren ur-ihesak garrantzitsuenak.

"Halako zaintzea zaila da, etxe zahar gehienetan ur-kontagailuak etxe barruetan egoten direlako. Zenbait bizilagun hasi dira kontagailu horiek etxearen azpiko aldera ekartzen, eta, hala, errazago zain daiteke etxe horretako ur-kontsumoa ohikoa den, ihesen bat duen... Halako kasuetarako laguntza ematen dabil Udala; beraz, bizilagun edo komunitate batek interesa balu, guregana etorri besterik ez du.", adierazi du Patxi Arburuak, Mantenu Saileko zinegotziak.



Kontagailuak ipintzen. | U.M.

ESANAK

"Udalak ahalegin handia egin du, baina herritarrek ere kolaboratu behar dute"

PATXI ARBURUA | MANTENU ZINEGOTZIA

"Gure ur-ihesak egokiak dira beste herri batzuekin alderatuta"

ALBERTO LOITI | MANTENU BURUA

Dena gertu Korrika datorrenerako apirilaren 14an, 11:00etan

Gose eta Anger taldeek kontzertua egingo dute Gaztetxean

UBANE MADERA | ARRASATE

Hiru eguneko ekitaldiak antolatu ditu Arrasateko Korrika Batzordeak apirilaren 10, 12 eta 14rako, kultura oinarri hartuta, arlo ia guztiak ukituko dituen: antzerkia, zinema, historia... Gehientzuenak, jakina, Korrika Arrasateetik pasatzen den egunean izango dira: apirilaren 14an.

Korrika Lagun eta Laguntzaile

Egun horretan, Zigorrolan egingo diote ongietorria (11:00) Eloregetatik etorriko den Korrikari. 11 kilometro egingo ditu Arrasaten: Zigorrola-AEK-ko biribilgunea-Maala-Erdiko kalea-San Frantzisko Xabier biribilgunea-Muxibar-Udala plaza-Garagartza-Gesalibar-Aramaioko muga.

Dagoeneko 18 taldek gura dituzte kilometroak erosi; hala ere, besterik balego, apirilaren 1era arte dauka haiek erosteko.

Aipatzekoa da aurten ez dela Korrika Txikirik izango. "Korrika eguerdian iristen denez, eskolek bultzatuko dute Korrika nagusian parte hartzea. Txikitxoek, berriz, eskoletan egingo dituzte ekintzak", adierazi du Oskar Elizburuk, Arrasateko eta Gipuzkoako AEK-ko arduradunak.

KORRIKA KULTURALAREN EGITARUA

APIRILAREN 10EAN

09:30 Arbolapetan Mendi irteera gidatua: Arrasateko historia, Bedoña aldean.

12:30 Herriko Plazan

Mokadutxo, arropa saltzeko mahaia eta trikitaliak.

19:30 Amaia antzokian *Sekula bai* antzerki eta kabareta.

APIRILAREN 12AN

19:00 Kulturaten Euskarazko film laburrak eta Kepa Errasti zinema zuzendaria.

APIRILAREN 14AN

11:00 Zigorrolan Korrikari ongietorria: salda eta txorizoa, txalapartariak, etxafuegoak...

12:30 Poteo Euskalakarria.

17:00 Plazan umeendako txokolate-jana.

17:30 Plazan Jolasak Txatxilipurdi elkartekoekin.

18:00 Plazan Konpartsa txikia.

18:30 Plazan ekitaldi nagusia: Eskoletan landutako lelo lehiaketako onenak irakurri eta sariak banatu.

Patxi Uribarren euskaltzainari omenaldia, gaueskolen sortzaileetako bat izatearren: dantzarien agurra; ohorezko bertsoa, Patxi Uribarrenen hitzaldia eta txistularien, gaitarien eta dantzarien emanaldia

19:30 DJ jaialdia: Elvis Caino bergararrekin.

22:30 Gose eta Anger taldeen kontzertua, gaztetxean.

Hark jakinarazi du egunotan Korrika Lagunak egitera pasako direla AED, AEK eta Euskal Herrian Euskaraz elkarrekin ordezkariek Arrasateko saltokie-

tatik. Eta gogora ekarri du apirilaren 1era arte dagoela Korrika Laguntzaile izateko aukera, AEDn, AEKn, Iratin, Basatin eta Korrikaren webgunean.

Hamar funtzionario lanpostu bete gura dituzte Udalean

Lau udaltzain, bi gizarte laguntzaile, hiru administrari eta ehorzle bat; horiek bete gura ditu

U.M. | ARRASATE

Oposizioak deituko ditu laster Udalak funtzionario izaerako hamar lanpostu betetzeko, baina, oraingoan, ez dute datarik zehaztu. Izan ere, halako prozesuek pauso burokratiko jakin batzuk eskatzen dituzte, eta horiek bete behar dira azterketak antolatu edo izena emateko epeak zabaldu aurretik.

Azterketak, uda aurretik

Edozelan ere, Udaleko Pertsonal Saitetik aurreratu dute uda aurretik egingo dituztela aurreneko azterketa gehienak, proba teorikoak. Eta aurreratu dute, baita ere, administrari, ehorzle eta udaltzainen kasuan Arrasateren gaineko gaiak izango direla landu beharko dituztenetako batzuk: historia, kale izendegia eta beste.

Oinarriak, datorren astean

Lanpostuetara aurkezteko oinarriei dagokienez, berriz, horiek ere argitaratu barik daude,

baina iragarri dute datorren asteko Udalen webgunean jarriko dituztela: arrasate-mon-dragon.org.

Arkitekto teknikoak

Bestalde, lan-poltsa bat ere osatu gura du Udalak: arkitekto teknikoen lan-poltsa. Kasu horretan, bihar, zapatua, zabalduko dute izena emateko epea, apirilaren 1era arte (BAZen). Eta hurrengo astean jakinaraziko dute aukeratu edo baztertutakoen zerrenda.

Baldintzen informazioa webgunean argitaratu dute.

DATUA

13

LANPOSTU

13 lanpostu bete gura ditu Udalak; hiru barne promozioz beteko ditu.

OHARRAK

ZIAR-OLA ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

Martxoaren 27an 12:00etarako egin duten lehen deia eta 12:30erako bigarrena, Ziar-Ola elkarte gastronomikoaren batzar orokorra hasteko. Azken batzarreko akta irakurri eta 2010eko deskargu orokor eta ekonomikoa egingo dute, besteak beste.

ABAROAKO ZUZENDARITZA ALDAKETA

Astelehenean, martxoaren 28an, egingo dute Abaroa elkarreko bazkideek urteko batzarra (17:00). Besteak beste, elkarreko zuzendaritza berrituko dute, hiru lagunetik utzi egingo dituzte-eta karguak.



ARIZMENDI IKASTOLA

Ikasle-trukeari esker munduan barrena Arizmendikoak

Bretainia inguruan ditugu egunotan DBHko 3. mailako 39 gazte esperientzia berriak ezagutzen. Ikasle-trukea egiten dihardute Arizmendi ikastolako ikasle horiek, Vannef hiri inguruan. Joan den egubakoitzean iritsi eta

oraingo astean bukatuko dute trukea. Gero, Aste Santu aurreko astean etorriko dira britainiarrak gure ibarrera, inguruak bisitatu, harremanak sendotu eta gure kultura, hizkuntza... ezagutzera.

ESKAINITZA

- 3,35 x 3,05 m-ko sukaldeko altzaria.
- 4 cm-ko Duropal entzimera.
- 178 cm-ko hozkailu integratua.
- Ontzi-garbigailu integratua.
- Labe-bitrozeramika multzoa.
- Kanpai apaingarria, 60.
- 27 kolore aukeran.
- Lehenak salmentetan EUROPA.

4.440 €*

MUNTAIA eta BEZa barne

5 URTEKO GARANTIA

* Baldintzak eta modelo desberdinak dendan ikusgai. Osagarriak ez daude barne.



ARITZ erreformak sukaldeak

Tel.: 943 03 78 73
Zerrajera kalea 1 L-2
20500 ARRASATE

- Sukaldeko altzariak
- Koltxoak
- ZAHARBERRITZEAK (Gremio guztien koordinazioa)
- Lurzoruak, ateak eta armairuak

Edu Orgaz: "Azken txanpan lasaiago ibiltzeko, irabazi egin behar dugu"

Ford Mugarri Arrasatek Corazonistak liderraren kontra jokatu du lehen postua eskuratzeko asmoarekin: bihar, Iturripen, 18:00etan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Ford Mugarri Arrasatek denboraldiko partidu inportanteena jokatu du bihar. Corazonistas liderraren bisita izango dute Iturripen (18:00). Liga bukatzeko lau partidu geratzen dira, eta bihar ko puntuak balio bikoitza izan dezakete. "Urteko lehia erabakigarriena da. Guk baino puntu bat gehiago dute, baina partidu bat gutxiago jokatu dute. Liderrak dira eta zaila izango da", esan digu Edu Orgaz entrenatzaileak.

Dena den, biharko puntuak inportanteak dira, ez bakarrik lehen postuan egoteko aukera ematen dutelako; baita hirugarren tokian dagoen taldearekiko aldea handitu egin dezaketelako ere: "Lau puntuko errenta dugu Askartzarekin, eta tarte hori mantendu egin behar dugu. Bihar ira-



Kepa Isasmendi jaurtiketa egiten. | GOIENA

baztea ezinbestekoa da hirugarrenarekin dugun aldea, gutxienez, mantentzeko".

Biharko partiduaren ostean, hiru geratuko zaizkie arrasatear-

rei liga bukatzeko: bat Arrasaten Indupime Basauri taldearen kontra, eta beste biak etxetik kanpo: lehena Deusturen kontra eta bigarrena Soraluze BKerekin.

Bigarren postua

Jokalari gutxiarekin bete du denboraldia Orgazek, eta nekea nabaritzen hasi dira jokalaria. "Une honetan bi jokalaririk lesionatuta ditugu: Josu Herrero eta Arkaitz Masip. Hori gutxi balitz, gainerako guztiak oso nekatuta daude. Denboraldia luzea da, eta nabaritzen hasi gara", dio arrasatearren entrenatzaileak.

Dena den, gogotsu daude azken txanpari aurre egiteko. Biharko partiduaren ondoren azken helburua argiago edo ilunago ikusiko dute. "Partiduaren aurretik esango nuke helburua dela bigarren postua mantentzea. Biharko emaitzak esango digu lehen postua eskuratzeko aukerak baditugun. Corazonistak taldeak puntu bat gehiago dauka, baina partidu bat gutxiago jokatu dute", dio.

Halako hitzordu garrantzitsuetan zaleen laguntza ezinbestekoa izaten da. "Egia esan, harmailtan zaleak ikusita gusturago jokatu dugu. Ea, bada, bihar ikusleak animatzen diren. Guztion laguntza beharko dugu liga bukatzeko partiduarekin", dio.

Horixe, bada, bihar Iturripenko harmailak girotzeko aukera izango dute eskubaloiko zaleek.

Mendiko autobabes eta segurtaunari buruzko ikastaroa egingo du Besaidek

M.B. | ARRASATE

Besaide elkarteak *Autobabesa eta segurtasuna mendian* delako ikastaroa egingo du datorren astean: hilaren 29an eta 30ean. Doako ikastaroa egingo dute bi egunetan, Kulturaten, 18:30etik 20:00etara.

Lehenengo egunean Jon Beazkoetxea sorosleak emango

du ikastaroa eta bigarren egunean, Mendi Federazioko mediku Zuriñe Forondak. Biek ala biek ikastaro teorikoa egingo dute. Mendira goazenean hartu beharreko segurtasun neurriak, eraman beharreko materiala, istripua izan ondoren egin beharrekoa... Horiak guztiak landuko dituzte.

Laugarren garaipena lortzeko jokatu du Mondragon Unibertsitateak Tolosan

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Tolosan jokatu du bihar (18:00) hango taldearen kontra. Jaietsiera fasean lan ona egiten dihardute Josu Larreategiren mutilek: hirutik hiru partidu irabazi dituzte. Baina gehiago gura dute. "Lehen fasean egin ez genuena lortu dugu: hiru

partidu jarraian irabaztea. Iaz maila galdu genuen, eta hemen lehiatzea saria izan da guretako. Maila ziurtatzen dugunean, lehen postuagatik lehiatuko gara", dio entrenatzaileak.

Dena den, badakite ez dela zaila izango: Tolosak hiru partidu bakarrik galdu ditu etxean denboraldi osoan.



FERNANDO ZUFIRIA

Hainbat domina atletendako

Arrasateko eta Aretxabaletako 28 atletak parte hartu zuten 13. atleten bilkuran. Hainbat domina lortu zituzten; besteak beste, Marixe Ruiz de Austriren urrezkoa; Eneko Carrascalen, Daniel Martinezen eta Istar Dapenaren zilarrezkoak; eta Oihana Oiangurenaren, Jon Ugarteren eta 4x100 metroko errelebu taldekoen brontzezkoak. Zorionak, guztioi!

ZALDIBAR

EMAITZAK

Betrayer-Fidel & Disc	16-5
Lasagabaster-Ekaltz	2-4
Dribling-Iritz	4-1
Fuxxion-Iluntz	3-2
Portaboleiros-Steaua del grifo	4-0
Dublin-Cipris	3-5
Abokajarro-Mcawen Dauen	--

SAILKAPENA

A TALDEA		P	J
1 Dribling	6	2	
2 Cipris	6	2	
3 Abokajarro	3	1	
4 Dublin	3	2	
5 Ekaltz	3	2	
6 Mcawen Dauen	0	1	
7 Lasagabaster	0	2	
8 Iritz	0	2	
B TALDEA		P	J
9 Fuxxion	6	2	
10 Betrayer	4	2	
11 Portaboleiros	4	2	
12 Fidel & Disc	3	2	
13 Iluntz	0	2	
14 Steaua del Grifo	0	2	

PARTIDUAK

MARTXOAK 26, ZAPATUA
10:30 Cipris-Abokajarro / Iritz
11:30 Ekaltz-Iritz / Aboka
16:00 Fidel-Fuxxion / Iluntz
17:00 Portaboleiros-Iluntz / Fuxxion.
MARTXOAK 27, DOMEKA
11:00 Lasagabaster-Dublin / Steagua
12:00 Betrayer-Steaua del grifo / Lasaga.
13:00 Dribling-Mcawen / Betrayer


Betrayer taldearen garaipen zabala

Betrayer taldeak sartutako 16 golak izan ziren bigarren jardunaldiko aipagarriena. bestalde, aipatu behar da Dribling, Cipris, Fuxxion eta Betrayer taldeek seina puntu batu dituztela bi jardunalditan.

Lasagabasterrek ordu aldaketa eskatu du

Lasagabaster taldeak ordu aldaketa eskatu zuen eta Dribling taldeak onartu egin zuen. Antolatzaileek gogorazi dute zapatutik domekara ordua aldatzen dutela.

PUB HAIZEA



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Declan de Barra bakarlarria, eskumatik hasita bigarrena, taldekideekin. | MYSPACE

Ahots berezi eta indartsuek girotuko dute gaztetxeko gaua

Declan de Barra eta Holmes taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Irlandako eta Suediako doinuak entzuteko aukera egongo da gaur gaztetxean. Declan de Barra bakarlarri irlandarrak eta Holmes suediarrek eskainiko dute kontzer-

tua, 22:30ean hasita. Emanaldia doakoa izango da.

Ez da Arrasaten jotzen duten lehenengo aldia. Orain dela urtebete Gure-Leku tabernan eskaini zuten kontzertua, eta, orduan

izandako arrakasta ikusita, errepikatzea erabaki dute gaztetxeko lagunek. "Ekitaldia gertukoa eta hunkigarria" izan zela adierazi dute gaurko kontzertua antolatutunentek.

Hirugarren lana

Declan de Barra abeslariak konposizio bikain eta sentiberak egiten ditu; eta konposaketa horiek ahots berezi indartsu eta ederrarekin uztartzen ditu.

Bizi guztian musikaria eta artista izan dela dio Declan de Barra bakarlarriak. Gainera, abeslari izateak mundu osoan bidaia-tu eta musikari berriak ezagutzeko aukera eman diola dio. Bakarlarri moduan hasi aurretik Australiako Clann Zu taldean egin zituen lehenengo pausoak musikariak.

2005ean *Song of a Thousand Birds* diskoa argitaratu zuen. Dublingo logela galdu batean grabatu zituen diskoko abesti gehienak; eta gainerakoak, Melbournean.

Holmes suediarrek

Akordeoia, biolina eta metalezko gitarrak uztartzen dituen taldea da Holmes. Country-indie-pop sinesgaitzena jotzen dute gazteok, eta, gainera, abeslariak Neil Young-en ahotsa gogorarazten du. Ukitu berezia ematen die kanta hunkigarri eta goxoei.

Daniel Zackrisson, Kristoffer Bolander, Andre Robsahm, Larisa Ljungkrona eta Johan Björklund dira taldekideak. 2003an Vänersborg hirian sortutako taldea da Holmes. Lehen lana bost urte geroago atera zuten, 2008an: *Wolves*. Diskoak harrena ona izan zuten; hala, 2009an *Have I Told You Lately That I Loathe You* diskoa argitaratu zuten.

Metalzaleek euren jaialdia izango dute aurten ere

Barreneko Deabruaren metal festa ospatuko dute zapatuan gaztetxean; 22:30ean hasiko da

A.E. | ARRASATE

Hirugarren urtez, Barreneko Deabruaren metal festaz gozatzeko aukera egongo da herrian. Gaztetxean, Crystalmoors, Aiumeen Basoa eta Denial taldeek jardungo dute bihar, zapatua. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira; sarrera bost euro da.

Denial antolatzaile lanetan

Denial taldeko Manex dabil jaialdia antolatzen. "Erakutsi gura

dugu Arrasaten beste musika estilo batzuk ere egiten direla, kasu honetan metala", adierazi du. "Gaztetxea leku ona da musika estilo ezberdinak bultzatzeko; gainera, Arrasate leku onean dago kokatuta", gaineratu du.

Hala, indar eta esperientzia handia duten hiru talde igoko dira gaztetxeko oholtza gainera zapatuan. Kantabriako Crystalmoors taldea 1995ean sortu zuten. Dagoeneko bi disko atera dituz-



Denial taldeko lagunak. | GOIENA

te eta disko horietako abesti basatiak izango dira Arrasatera ekarriko dituztenak. Bigarren taldea Mutrikuko Aiumeen Basoa da: 2010ean argitaratutako disko

berriko abestiak eskainiko dituzte. Azkenik, Aretxabaletako Denial taldekoak izango ditugu; haiek ere 2010eko diskoko abestiak eskainiko dituzte.

Datorren eguenean antzerkia gaztetxean

A.E. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenak antolatuta, *clown* ukituak dituen *Los pardos* antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da datorren eguenean gaztetxean.

Orain arteko egueneetako ekitaldi gehienak musika kontzertuak izan diren arren, oraingo antzezlan batekin datoz Kooltur Ekintza elkar-tekoak.

Que Par Che taldea

2008an sortu zuten Que Par Che antzerki taldea Mariano di Franco argentinarrak eta Maite Gebara gasteiztarrak. Umorea eta musika ardatz hartuta antzerkia egin gura duten taldea osatzen dute. Euren esanetan, hori da euren adierazteko modua eta jendearengana iristeko modua.

Los pardos antzezlanak umorea izango du ardatz. Aktoreak *clown* bilakatuko dira eta taula gainera imajinaezinezko egoera dibertigarriak eroango dituzte. Dario Levin da zuzendaria.

Datozenak, martxan

Kooltur Ekintza taldekoak dagoeneko hasi dira hurrengo ekitaldiak antolatzen. Gaztetxera ekarriko dituzte, besteak beste, Kodigo Norte, Cobra, Kerobia eta Malatu.

Emanaldi guztiak 22:00etan izango dira eta sarrera 5 euro kostako da.

Xarma taldeak Irati tabernan joko du zapatu arratsaldean

Danbakako laugarren edizio-ko irabazleek kontzertua eskainiko dute Irati tabernan. Orhipean Kultura Eragintzak antolatutako ekitaldia da biharkoa. Kontzertua 18:30ean hasiko da, eta ordubete inguru iraungo du. Berriz, Ondarroatara eta Beizamako taldeak punk rocka egiten du.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Ingurumenak eta kirolak bat egingo dute domekan Gorlan

Adin guztikoendako ekitaldiak prestatu dituzte, 09:00etako mendi txangoa tartean; txirrindulari lasterketa eguerdian amaituko da Gorlan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Gorla Eguna antolatu du Bergarako Udalak beste hainbat taldeekin batera, domekarako. Txirrindularitzako urteroko hitzorduarekin egingo du bat eta kirola, aisialdia eta ingurumena uztartzea da antolatzaileen asmoa. "Lekuak aukera handiak ematen ditu eta etorkizunean, eremu honetako natura berreskuratzen eta aisialdi aukerak bultzatzen jarraitu nahi du Udalak", aditzera eman dute udal iturriek.

Egunari hasiera emateko, mendi txangoa izango da nahi duten herritarrendako, ume, gazte zein helduendako. Fraisko zurin egin dute hitzordua, 09:00etan. Bestalde, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleendako orientazio jolasak egongo dira Gorlan bertan, 10:00etatik 12:00ak bitartean. Era berean, Pagolako ubidearen interpretazio-txangoa egiteko aukera izango da, 10:00etan Gorlako kantinatik aterata. Eta, azkenik, 12:00etan ekintza horietan guztietan parte hartzen



Mikel Larrañaga (Lokatza) eta Mikel Etxaniz Ingurumen zinegotzia. | E.M.

dutenendako salda eta txorizoa egongo da ziklisten helmugaratzea ikusteko.

Gorlara igotzeko eta autoak etxean uzteko asmoarekin, autobus zerbitzua prestatu dute anto-

latzaileek. Autobusak 09:00etan irtengo dira, autobus geltokitik. Jaisteko autobusak 13:00etan aterako dira kantinatik. Ekintzetan parte hartzeko gonbidapena egin dute antolatzaileek eta azpima-

rratu dute guztiak doan direla. Pol Pol mendizale taldeak eta elkarte horretako Mendia Bizirik sailak; Lokatza ziklismo eskolak, Bergarako eskoletako eskola kirola eta Tokiko Agenda 21 egitasmoek; eta Udaleko Ingurumen, Turismo eta Kirol sailek parte hartzen dute antolaketan.

Txirrindulariak, eguerdian

Txirrindularitza probari dago-kionez, amateur mailako 150 txirrindulari batuko dira domekan. Irteera 10:00etan egingo dute San Martin plazatik eta antolatzaileen kalkuluen arabera, irabazlea 12:10 aldera iritsiko da Gorlako helmugara. Aurretik 92 kilometroko ibilbidea izango dute txirrindulariek.

Mikel Larrañaga Lokatzako presidenteak zera adierazi digu: "Eguraldiak laguntzen badu, jende dezente batu daiteke domekan Gorlan, proba jarraitzeko eta Udaletik antolatutako ekitaldietan parte hartzera. Zenbat eta giro hobeza izan, denondako hobe".

Magaliren aldeko jaialdia bihar Udal Pilotalekuan

E.M. | BERGARA

Magali Muruamendiaraz Egueren neskatilaren aldeko jaialdia izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan. Makina bat taldek egin dute bat ekimenarekin eta antolatzaileek dei egin diete herritarrei frontoira hurbiltzeko bihar.

Jakingo duzuenez, jaio zenetik burmuineko kalteak ditu Magalik eta jasotzen duen tratamendu garestia ordaintzen laguntzeko antolatutako jaialdia da biharkoa.

Jaialdian parte hartuko dutenen zerrenda luzea da: Alai taldea, Aritzeta, San Joxepe elkarteko abesbatza, Gabero, Orfeoia, Azkaiter Pelox, Moises Azpiazu, Musiraka eta Biraka (Eibarkoa) dantza taldeak, Edu Muruamendiaraz dantzari bergararrak zuzentzen duen Aukerak konpainia, Garate blues kantaria, Bergarako Bertso Eskola eta Txixtas magoa. Oihan Vega eta Amaia Artetxe izango dira aurkezleak.

Jaialdia 19:30ean hasiko da eta sarrerak 10 eurotan jarriko dituzte salgai, 5 eurotan gaztetxoendako. Joaterik ez dutenek ere laguntza emateko aukera daukate zero ilara bitartez, 10 euro ordainduta.



Buen, Zendoia, Barrenetxea eta Garai, astelehenero aurkezpenean. | T.MADINA

Mari Karmen Barrenetxea izango da PSE-EEko alkategaia

E.M. | BERGARA

PSE-EEK maiatzaren 22ko udal hauteskundeetarako Bergarako hautagaia aurkeztu du: Mari Karmen Barrenetxea bigarren aldiz izango da sozialisten zerrendaburua. Gaur egun PSE-EEK Udalean dituen zinegotzietako bat da Barrenetxea, Francisco Javier Garaiarekin batera. Biekin batera, hirugarren tokian Javier Zendoia zinegotzi ohia joango da. Hain zuzen, hirugarren ordezkari bat lortzea da sozialisten helburua maiatzeko bozketan. Miguel Buen PSE-EEko diputatu nagusirako hautagaiak egin zuen Barrenetxearen aurkezpena astelehenero ekitaldian, sozialisten

egoitzan. Bi zinegotzi sozialistek azken urteotan egindako lan isila eta konpromisoa nabarmendu zuen Buenek, "ANV eta EAJren mesprexuen aurrean eutsi egin diotelako lanari".

Mari Karmen Barrenetxeak 53 urte ditu eta 1980a ezkerro Bergaran bizi da, jatorriz donostiarrak bada ere. Hurrengo agintaldiari begira politika sozialen alde apustu egiten jarraitu nahi du. Besteak beste, zaharren egoitza berri baten premia dagoela uste du. Era berean, Martinez de Irala ikastetxea berritzea eta San Martin eta Ariznoa plazak berreskuratzea dira sozialisten helburuetako batzuk Bergararako.

Musika, jolasak eta bertso bazkaria Gazte Egunean bihar

E.M. | BERGARA

Herriko gazte independentistek deituta Gazte Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Bergaran. *Marasma saretzen* prozesuaren barruan deitu dute eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Euskal Herri mailako prozesua da *Marasma saretzen*, gazteen kezkek eta ardurak gizarteratzea helburu duena.

Bazkaria Muniben

Bihar eguerdian, 12:00etan, *altxoraren bila* aritzeko aukera egongo da San Martin plazan, eta 15:00etan bertso bazkaria egingo dute Munibe plazan. Bazkarirako txartelak salgai daude 5 eurotan Arrano, Ziu-

ripot eta Boulebar tabernetan. Gaur, egubakoitza, izango da txartela erosteko azken eguna. Antolatzaileek dei egiten diete gazteei biharko ekitaldietan parte hartzera.

Arratsaldean, 18:30ean poteoa egingo dute; eta gauean kontzertua eta karaokea egongo dira gaztetxean.

Kontzertuari dagokionez, Hard Flip, Soilik eta Show Business taldeek joko dute gaztetxean, 22:30ean hasita. Show Business oñatiarrek euren azken diskoa, *Pozoin dutako hitzak* izenburukoa, aurkeztuko dute zapatuan Bergaran. Esan bezala, kontzertuaren ostean karaokea izango da.



Marasma saretzen prozesuaren baitan deitu dute eguna. | GOIENA



Magali Muruamendiaraz. | GOIENA


OHARRAK

EAJ: POSTA BIDEZKO BOTOA

Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetan botoa postaz eman ahal izateko bulegoa zabalik izango da batzokian datorren astetik aurrera. Goizez 11:30etik 13:00etara eta arratsaldean 18:30etik 20:30era izango da zabalik. Eskerak egiteko azken eguna maiatzaren 12a da. Edozein argibide 943 76 47 00 zenbakian.

ODOL ATERATZEA EGUZTENEAN

Eguztenean, martxoaren 30ean, odol ateratzea izango da Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita. Parte hartzeko dei egin dute herriko odol emailleek.



Irizar jauregia inguratuko duen itxitura berriak izango duen itxura. | VAUMM ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA S.L.

Maiatzerako jarrita egongo da Irizarko itxitura berria

'L' forma izango du eta erdoil itxurako altzairuzko xafraz egindakoa izango da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aurrera doaz Irizar jauregia inguratuko duen itxitura berria jartzeko lanak. Vaumm Arkitektura eta Hirigintza SLren proiektuan oinarritutako itxitura egiten dihardu Udalak, eta maiatzerako jarrita egongo dela aurreratu dute hango ordezkariak.

Itxitura berriak ez du orain arte zegoen harrizko hesiaren inongo antzik izango; ez itxuran, ezta jauregia inguratzeko moduan ere.

Itxurari dagokionez, altzairu korten erdoilduta dagoela dirudien altzairua deritzon xaflekin itxiko dute. Hala ere, itxituraren

punturik altuenean 1,80 metroko altuera izango dute, xaflok euren artean tartea izango dute barruko aldean dagoena ikusteko aukera emanda.

'L' forma izango du itxiturak

Jauregia ixteko moduari dago-kionez, itxitura berriak ez du eraikina buelta osoan itxiko du Barrenkale aldera eta Irizar aldera. Irala kalera ez da itxiturarik egongo.

Bestalde, xaflen arteko tartea ez da berbera izango itxituraren luzera guztian. Hain justu ere, jauregiaren lorategi historikoa dagoen zatian xaflen arteko tar-

tea estua izango da –betiere barruko ikusten lagako du– eta lorategi historikoa amaitzen den lekutik aurrera, xaflen tartea handitzen joango da.

Lorategia babestu

Alkateak azaldutakoaren arabera, Irizar etxeko labirinto itxurako lorategi zatia lorategi historikoa da eta babes berezia du. Hala, ezaugarri horien arabera egin da itxitura. Era berean, lorategiaren hasierako izaera pribatua adieraziko da itxiturarekin.

Horrekin guztiarekin, itxitura horrek lorategiaren izaera errespetatuko du, gaur egungo erabilerara egokituta.

Iazko oso balorazio positiboa egin eta bide beretik jarraitu nahi du aurten Jardunek

Zuzendaritzako bi kide berri zizuten egubakoitzeko urteko batzarrean

M.B. | BERGARA

Aurreko egubakoitzean, urteko batzarra egin zuen Jardun euskara elkarteak. Ohi bezala, 2010eko balantzea egin zuten eta egindako jardunaren "oso balorazio positiboa" egin zuten kultura etxean batu zirenek. Izan ere, urte oparoa izan zuten euskara elkarteak; ohiko ekintzekin jarraitzeaz gain, hainbat berri ere gauzatu zituzten, lehenengoz. Hala nola jostailuen truke azoka, euskarazko irakurzaletasunaren astea, euskarazko liburuen truke azoka eta Auzoko programa. Horrekin batera, Agorrosingo ludoteka ere kudeatzen dute urria ezker.

Horrekin guztiarekin, aurten ere egingo dituzte esandako ekintza guztiak, baina berritasunak ere egongo dira.

2011n lehengoak eta gehiago

2011ri dagokionez, egitasmo berriei ekiteko asmoa dute: alde batetik, uztailean udaleku bat gehiago antolatu nahi dute, 12-14 urte arteko gazteendako; eta, bestetik, bi sentiberatze kanpaina ere egingo dituzte.

Horrez gainera, uztaileko udaleku irekiak eta gazteleku kudeatzeko Udalak deituko dituen gaztelekuak deitu du –lehiaketara aurkeztuko dira. Bestetik, Topaguneko zuzendaritza batzordean ere sartuko da Jarduneko ordezkari bat. Arrasateko Txatxilipurdiko kideari lekukoa hartu eta Debagoiena ordezkatu du Topagunean.

Osterantzean, zuzendaritza batzordeko bi kide berri egin zituen Jardunek egubakoitzeko batzarrean: Aitor Arantzabalek

ordezkatu du Leire Iruin lehendakariorde moduan eta Peio Andrinua izango da diruzain, Oier Bolibarren orde.

Proposamenak jaso nahi dituzte azoka indartzeko

Inkesta bidez jaso nahi ditu proposamenak Udalak apirilaren 3ra bitartean

M.B. | BERGARA

Azoka biziberritzeko lanean dihardu Udalak; baserriko produktuei bultzada nola eman aztertu eta zehaztu nahian dihardu. Hala, egoera aztertu ahal izateko herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte, eta, horretarako, haien eskura jarri dute baserriko produktuen merkaturatzearen gaineko inkesta bat.

Herriko hainbat gunetan

Inkesta hori martxoaren 21etik apirilaren 3ra bitartean bete ahal izango da herriko zenbait lekutan, hala nola Udal Liburutegian, Agorrosin Ekintza Gunean eta Labegaraieta kiroldegian, Mizpirualde zaharren egoitzan, Irizar jauregian eta Landa Garapen Elkartearen. Horrez gain, udal webgunean

ere (www.bergara.net) eskura daiteke inkesta, eta, bete eta gero, esandako lekuetako baten laga daiteke.

Bi helburu

Udalaren proiektuak bi helburu izan ditu hasieratik: alde batetik, kontsumo talde bat martxan jartzea. Orain arte lan horretan aritu da Udala eta zenbait baserriar Basherri izeneko taldearen partaide egin dira.

Bestetik, azoka dinamizatu nahi du Udalak, eta, horretarako, haren erabilera aztertzen dihardu eta biziberritzeko proposamenak sortu nahi ditu. Proposamen horietako batzuk inkesta bidez jaso nahi dira eta herritarrek egindako ekarpenak proiektuan aurkeztuko dira aurrerantzean.

NIRE USTEZ

JOSE ANGEL MIKEO



Lurraren zaintza

Japoniako lurrikara-itsasikararen ondoren oraindik ez diet buelta eman ikusitako irudiei eta ondorengo triskantza eta Fukushimaren kontrolik ezari.

Gereziondoak loretan jartzeko garaian naturaren indarra lorearen edertasunean baino txikitze duen ahalmenean azaldu zaigu. Zen-budismo eraiko lorategiak eta naturaren indarreganako Shintoismoaren miresmena datozkit burura bertako jendearen izate eta jarrerak ikusita.

Beharbada milaka urtetan naturaren indar biak, sortzailea

eta apurtzailea, ezagutu ondorengo jarrerak eta sinesmenak dira japoniarrek garatu eta gaur arte ekarri dizkigutenak.

Baina horra hor, Fukushima eta beste ez dakit zenbat zentral nuklear martxan jarritz, naturaren oreka nola apurtu den, kontrolaezin diren ondorioak sortuz. Etxerakoan, bide ertzean, gereziondo bat loretan ikusi dut, ederra iruditu zait. "Udaberria heldu da!", esan diot neure buruari. "Laino erradiaktiboa ordu gutxi barru helduko da Pazifikoa eta Ipar-Amerika pasa ondoren", entzun dut kotxe-ko irratian...

Garizuma hausnarketarako garaia omen da, nahiz eta ahaztu samar egon. Bat-batean hausnartu beharra izan dugu. Beharbada, "lurraren zaintzaren" ideia berreskuratu beharra dugu; hau da, geu, gizakiok, garela lurraren zaintzaile... bestela, ikusi, olatu baten eta gizaki-fukushimaren eraginez sortutako lainoa etxeraino heldu zaigu gure txikitasunaren mezulari.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Soraluze BKE infantil mailako errendimenduko taldea. | BKE

Saskibaloia partiduak Mariaren Lagundian eta kiroldegian

Senior mailako taldeak Aldabe Irun hartuko du

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aurreko astean Teklan Laser liderraren etxean galdu ondoren (52-36), senior mailako Bergara KEko saskibaloia taldeak Aldabe Irun taldea hartuko du domekan Labagaraietan, 17:00etan. Bergararrak sailkapeneko bosgarren postuan daude eta teoriarik, behintzat, faboritoak dira domekako partiduari begira, irundarrak 10. tokian daude-eta. Zortzi partidu jarraian irabazi ondoren, liderraren aurka ezin izan zuten mahoneroek azken jardunaldian eta domekatik hasita garaipen bidera bueltatzea da asmoa. Orain

dela hilabete jokatu zuten azken partidua etxean eta zaleen aurrean ikuskizun polita emateko gogoz dira bergararrak. Hitzordua, esan bezala, domeka arratsaldean Labegaraietan.

Junior eta infantil mailak

Beste hiru saskibaloia partidu jokatu dira asteburuan: alde batetik, junior mutilen taldeak Sein taldearen aurka neurtuko ditu indarrak bihar, zapatua, 12:45ean, Labegaraietan.

Bestetik, infantil mailako mutilen txanda domeka eguerdian izango da. Bi partidu jokatu

dira Mariaren Lagundiko kantxan. Lehenbizi, 11:00etan, Servimasa BKE eta Ganbara liderra izango dira aurrez aurre, parte-hartze ligaren barruan, eta ondoren, 12:15ean, Soraluze BKE eta Take Oria Electricidad taldeek jokatu dute, errendimendu ligako hamabigarren jardunaldian. Harrobi indartsuaren lekuko, infantil mailan hiru talde ditu Bergarak: Servimasa BKE (Ramon Conderen agindutara), bigarren talde bat Jokin Perezek zuzentzen duena eta Mikel Garitano eta Jose Ignacio Oiartzabal ari dira errendimendu taldearekin.

Hiru eskubaloia taldek etxean jokatu dute

Gazte mailako neskek Eharialdean hartuko dute Labegaraietako kiroldegian zapatuan

E.M. | BERGARA

Bergarako KEko eskubaloia taldeek hiru partidu izango dituzte etxean asteburuan. Gazte mailako nesken kasuan, Eharialde taldearen aurka jokatu dute bihar, zapatua, 16:00etan.

Domekan beste bi partidu izango dira Labegaraietako kiroldegian: kadete mailako mutilen Irungo Gaztiak taldearen aurka jokatu dute, 11:00etan, eta ondoren, 12:30ean, gazte mailako Bergarako eta Elgoibarko mutilen taldeak izango dira aurrez aurre.

Partidu erabakigarria

Senior mailako gizonen taldeari dagokionez, Bergarak bisita egingo dio Romo taldeari bihar, zapatua, 18:00etan. Partidu erabakigarria izango da bergararrendako. Emaizta posi-

tiboren bat lortuz gero, Josetxo Muniategiren mutilek urrats garrantzitsua egingo lukete mailari eusteko borrokan. Azken jardunaldian etxean galdu zuen Bergarak, Sucesores de Agirre-Gure talde gasteiztarren aurka. Bi goleko abantailarekin nagusitu ziren gasteiztarrek, 31-33. Orduan erakutsitako jokoa hobetu beharko dute bihar bergararrek.

Romo seigarrena da sailkapenean, 24 punturekin eta Bergara, 9. dago, bost puntu gutxiagorekin.

Begararrendako, esan bezala, partidu garrantzitsua da biharko eta Muniategi entrenatzailea baikor da emaitza ona ekartzeko Getxo aldetik. Liga txapelketa aurrera doa eta amaiera hurbildu ahala puntuak urrezko bilakatuko dira azken txanpan.



Senior mailako taldeak Romon jokatu du bihar. | GOIENA



BETI-BUSTI

Ur biziak Euskadiko eslaloma

Beti-Bustiko kideak Irunen jokatuak ur biziak Euskadiko eslaloma proban lehiatu ziren asteburuan. Gazte mailan, Patxi Ugaldek 3. postua eskuratu zuen eta Aritz Gimbert eta Iñaki Usabiaga 9. eta 10. geratu ziren, hurrenez hurren. Kadete mailan, Beñat Lizarralde 4.a izan zen eta Jokin Labaien hamargarren; beteranoetan, Kuxi Gallastegi 10.a izen zen eta Antxon Etxabe 13. sailkatu zen senior mailan.

Gimnasia erritmikoarekin hitzordua apirilaren 2an

Eskolarteko A mailako txapelketa jokatu da Labegaraietan, Ariznoaren parte-hartzearekin

E.M. | BERGARA

Datorren zapatuan, apirilaren 2an, Gipuzkoa osoko gimnastak batuko dira Bergaran, Labegaraietan. Goiz eta arratsaldean, Gipuzkoako federatu amateur eta eskolarteko A mailako txapelketa jokatu da eta Gipuzkoako 37 talde arituko dira lehian, alebin, infantil, kadete, gazte eta senior mailetan. Goizeko saioa 10:30ean hasiko da eta arratsaldekoa, berriz, 17:20ean.

Ariznoa gimnasia elkartetik maila bakoitzeko talde bana arituko da. Banaka, berriz, Mariana Nunes (alebina), Jone Olabarria eta Sonia Gonzalez (infantilak), Ane Miren Mugurutzeta eta Jennifer Pineda (kadeteak) eta Kristina Etxeberria (jubenila) izango ditugu partaideen artean. Aurreko fasea Arrasaten jokatu zen

otsailaren 5ean eta bergararrek emaitza aipagarriak lortu zituzten han.

Gaur egun 125 neskatila ari dira Ariznoa gimnasia erritmikoko taldean. 4 eta 24 urte arteko gimnastak dira eta Sonia Corredera eta Ane Susaeta eibartarrak dira haien entrenatzaileak.

Arrasatera apirilaren 9an

Bergarako txapelketaren ondoren, hurrengo zapatuan, apirilaren 9an, Arrasateko Uarkapen Gipuzkoako eskolarteko B mailako txapelketa jokatu da, goizeko jardunaldian. Bertan arituko dira Ariznoa elkarteko alebin mailako bi talde. Arratsaldean benjamin mailako gimnasten txanda izango da. Aurreko saioa Bergaran egin zuten, otsailean.

Igeriketa txapelketa zapatu arratsaldean Agorrosinen

Bergarako Igeriketa Elkartek eta Gipuzkoako Federazioak antolatuta, Gipuzkoako txapelketako liga jardunaldia jokatu da zapatu arratsaldean Agorrosinen.

Beraz, igerilekua itxita izango da erabiltzaileendako arratsaldean. Hala ere, spa-gunea eta gimnasioa ohiko ordutegian izango da zabalik arratsaldean.

Lau t'erdiko partidua martitzenean Udal Pilotalekuan

Lau t'erdiko Soraluze txapelketan, Yoldi eta Bittor izango dira aurrez aurre martitzenean Udal Pilotalekuan. Aurretik, 19:15ean, Debarroko txapelketako kadete mailan, Bergarako eta Elgoibarko Lagunak taldeko bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Sarrera doan da eta ohiko zozketa egingo da.



Gabero abesbatza osatzen duten neska-mutiko gazteak Aitor Biain zuzendariarekin. | GABERO

Gabero abesbatza entzuteko aukera domekan

Karl Jenkins-en 'The armed man: A mass for peace' lana eskainiko dute

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Domekan, Gabero abesbatzak kontzertua eskainiko du Mariaren Lagundia elizan. 19:30ean izango da saioa eta doakoa izango da.

Bi zatitan banatutako programa eskainiko du Aitor Biain oñatiarrak zuzentzen duen taldeak.

Hainbat musika estilo

Lehenengo zatian hainbat musika estilo abestuko dituzte. Euskal kantuak, gopela, popa... entzuteko aukera egongo da, besteak beste.

Bigarren zatian *The Armed man: a mass for peace* lana eskainiko dute. Karl Jenkins ingelesak idatzitako meza da. Obra hori Royal Armouries Museoak eska-

DOMEKAKO EGITARUAU

1. ZATIA

Xalbadarren heriotzean
Xabier Lete

Roads

S.Dobrogosz

Omnia vincit amor

J.Estes

Viva la vida

Coldplay

Arm: M.Brymer

Balia

Arr: R.Odor

The Lion Sleeps Tonight

Arm: J.Dominguez

An Irish Blessing

Arr: J.E. Moore

2. ZATIA

The Armed Man: A Mass for Peace

K.Jenkins

tu zion Jenkinsi, eta Kosovoko gerran hil ziren biktimak guztiei dago zuzendua. Gerren kontra idatzitako pieza bat da eta honek dago osatua: alde batetik, meza katolikoko zatiak (kyrie, santus...), eta bestetik, XV. mendeko folk abestiekin oinarritutako beste abesti batzuk. Folk abesti horietarako testuak zuzenean museoko zuzendariak aukeratu zituen (Rudyard Kipling, Alfred Lord, Tennyson...). Indar handiko pieza da, eta sentimenduz bete.

Hainbat musika estilo

1992an sortutako taldea da Gabero, eta orfeoaren jarraipena bermatzea da asmoa. 2006a ezkerro dabil zuzendari lanetan Aitor Biain.

Bizardunak taldea aurkezpen birarekin etorriko da datorren astean gaztetxera: 'En Zugzwang'

A.E. | BERGARA

Apirilaren 2an, Bizardunak talde nafarrak kontzertua eskainiko du gaztetxean. *En Zugzwang* aurkezpen birarekin dabilta azken hilabeteotan; hala, Bilbon eta Durangon egon ostean Bergara etorriko dira nafarrak. Txapa Irratiak antolatuta du kontzertua.

Gor diskoetxearekin atera dute *En Zugzwang* diskoa Bizardunek. 2009an *Euskal Herriko oreok* singlea atera zuten; 2009an *Bizardunak* diskoa atera zuten; eta 2010ean *En Zugzwang* azken diskoa.

Folk musika

Bizardunek euskal folk musika egiten dute. Taldea bederatzi lagunek osatzen dute; euren musika estiloa euskal folk erradikalizat dute; izan ere, egiten dituzten letrak politikaz eta ironiaz beteta daude.

The Dubliners eta The Pogues musika talde irlandarrak jarraitu dituzte euren abestiak osatzeko orduan. Gehienetan politikaz hitz egiten duten arren, beste hainbat gai ere jorratzen dituzte: besteak beste, karlistaldiak jorratu dituzte, eta baita langileen egoera ere.



'Cabezafuego' akordeoia jotzen. | J.A.

Joseba Irazoki

Emanaldia Joseba Irazoki musikari nafarrak zabalduko du; eta, amaieran, Elvis Cainok diskoak jarriko ditu. 22:30ean izango da kontzertua.

Flamenko-rock musikaz gozatzeko aukera egongo da bihar Tartufo aretoan

Calaña Nafarroako taldeak bigarren diskoko abestiak eskainiko ditu, 23:00etan

A.E. | BERGARA

Calaña talde nafarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Tartufon. Gurean hain ezaguna ez den musika estiloa ekarriko dute, flamenko-rocka. Musika bizia eta erritmo handikoa izango da eskainiko dutena, flamenkoa gustuko dutenendako oso egokia.

'A cal y canto'

Muxik diskoetxearekin atera berri dute *A cal y canto* euren bigarren lana Calaña taldekoek. Flamenkoa eta rocka dituzte oinarri; baina blues, folk eta latin ukituak dituzten abestiak ere sortzen dituzte.

Me tiren los perros da disko berriko lehenengo singlea. Esan

behar da adituek kritika oso onak egin dizkiotela lan berriari; batez ere, gitarra doinuak nabarmendu dituzte disko berri horretako abestietan.

2002ko taldea

Domingo Calzado da taldeko burua. 2002an estreinatu zuen taldea, Iruñeko Gaiarre antzokian. Ordutik hona ikasi egin dute eta hazi egin dira Calaña taldeko kideak.

Calaña lehenengo lanarekin 70 kontzertu baino gehiago eskaini zituzten Euskal Herrian eta Espainian.

Kontzertua Tartufo aretoan izango da, bihar, zapatua, 23:00etan. Sarrera 12 euro kostatzen da.



Calaña taldeko kideak Tartufon izango dira. | GOIENA

'Pinotxo' eta 'Eclipse: la saga crepúsculo' domekan eta 'Saraband' eguazteneko zineklubean

Domekan euskarazko *Pinocho* filma eskainiko dute Zabalotegi aretoan. Publiko guztiari zuzendutako lana da. Animaziozko filma 17:00etan izango da. Iluntzean, 19:30ean, *Eclipse: la saga crepúsculo* filma eskainiko dute. David Sladek zuzendutako filmak banpiroen gainean jardungo du. 12 urtetik gorakoendako da. Eguaztenean, oster, *Saraband* eskainiko dute, 20:30ean.

Aranzadi ikastolaren argazki erakusketa apirilaren 3ra arte egongo da zabalik ikusi gura dutenendako

Apirilaren 3ra arte egongo da ikusgai Aroztegi aretoan Aranzadi ikastolaren argazki erakusketa. Ordutegia hau izango da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara. 200 argazki erakutsiko dira, ikastolarekin zerkusua dutenak: gaurko ikasle eta irakasleenak, ikasle eta irakasle izandakoenak.

Datorren eguenera arte egongo dira ikusgai Maitena Arana margolariaren margolanak Nahikari tabernan

Maitena Arana arrasatearra da, baina Beart margolarien elkartean dabil azken urteetan. Nahikari tabernan margo erakusketa jarri du Aranak; 10 margolan jarri ditu ikusgai. Aranaren lanetan irudi geometrikoak dira nagusi: harriak, eskulturak eta gorputzaren atalak ikusi ahal dira margolariaren lanetan. Daliren lanen itxura hartzen dute hainbat margolanek.

Alderdietako ordezkariak hasi dira joaten Basotxora galderak erantzutera

Ondoren elkarrizketa mahaiak osatzen dituzte erretiratuek, elkarri berba egiten ikasteko helburuarekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Astelehenean, hilak 21, izan zuten alderdi politikoetako ordezkarien lehen bisita Basotxon; EAJko kideak joan ziren: Mikel Uribebarria, alkategaia; Ariz Solupe, Aretxabaletako EAJko presidentea; eta Jose Migel Uribarren. Aurretik bidalitako galderak erantzun zituzten 20 bat erretiraturen aurrean, eta ondoren, entzundakoak hausnartzeko elkarrizketa mahaiak osatu zituzten erretiratu horiek.

Nagusien gaineko iritzia

Elkarrizketa mahaien helburua erretiratuek elkarri berba egiten ikastea da, besteari entzuten jakin eta behar bezala erantzutea. "Izan ere, kosta egiten zaigu nagusi askori", dio ekimenaren bultzatzaile Pedro Etxebarria. Iaz hasi ziren lanean: lehenengo, eginda-



Astelehenean EAJko kideak Basotxoko bazkideen aurrean. | M.A.

ko bidaien gainean jarduteko batzar batzuk egin zituzten, eta gero, alkateari deitu zioten hainbat azalpen ematera etor zedin. Arrakasta izan zuen iaz udaberriaren egindako batzar hark eta

ondoren beste bat egin zuten Inaxio Garrorrek, argi geratu ez zirenak azaltzeko.

Maiatzean udal hauteskundeak direla aitzakia hartuta alderdiei deitzea erabaki dute oraingoan, herriaren gainean zein asmo dituzten jakiteko eta, batez ere, nagusien gainean duten iritzia jakiteko. Ekimenaren helburua ez da erretiratuak konbentzitzea etortzea, ezta elkarri konbentzitzea ere, iritzia ematea baizik. Hamabi laguneko mahaiak osatu zuten astelehenean eta erretiratuak iritziak jaso zituzten bertan; akta hori EAJko kideei bidaliko diete orain.

Ondoren, EA, Aralar eta Sortu

Beste alderdi batzuetako ordezkariak ere joango dira datozten egunotan: EAKoak, Aralarakoak eta Sortukoak. Baiezkoa eman dute hirurek, baina data zehaztu barik daukate; hauteskunde kanpaina hasi aurretik izango dira.

PSE-EE eta Alternatiba ere gonbidatu dituzte, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Eta gainerako alderdiak ere –herrian ordezkariarik ez dutenak– gonbidatuta daudela jakinarazi gura dute Basotxoko kideek.

Gastronomia elkarten arteko mus txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Urbaltz elkartean

Azken urteotan legez, udaberri inguruan ospatzen duten gastronomia elkarten arteko mus txapelketa egingo dute bihar, martxoak 26. Urbaltz elkartean izango da txapelketa hori (18:00), eta herriko elkarte gehienetako ordezkariak izango dira norgehiagokan, bakoitzetik bi bikote. Txapelaldiei sariak banatu ostean, parte-hartzaile guztiak bertan geratu dira afaltzera.

Entzia mendatetik ibilaldia egingo dute Murruxo Mendizale Elkarteko kideek apirilaren 5an

Araba aldean dagoen Entzia mendatera irteera antolatu du Murruxo apirilaren 3rako, domeka. 08:00etan irtengo dute Azboko geltokitik autobusean eta lau edo bost ordutako ibilaldia egin Entzia aldean. Bazkaria norberak eroan beharko du eta itzulera arratsaldean izango da. Izena emateko azken eguna martxoaren 29a da, martitzena, Murruxoren egoitzan (19:00-20:00). Autobusa 15 euro ordaindu beharko da.

Gazteen nazional mailan jokatzeko duen taldeak zaleen laguntza behar du bihar, Gernikaren aurka

Etxean jokatzeko dituen partidu guztiak irabaztea komeni zaio gazteen nazional mailako taldeari mailari eusteko, eta bihar partidu garrantzitsua dauka Gernikaren aurka, Ibarra futbol zelaian (15:45). Hala, zaleak animatzeko gogoz joan daitezten gura dute UDAko kideek, "geure eskuetan dago eta jaitziera postuetatik irten eta mailari eustea". Aretxabaletako sailkapeneko 13. postuan dago 22 punturekin.

Elikagaien manipulatuak txartela eskuratzeko ikastaroa egingo da apirilaren 28an eta 29an

Udalak antolatu du eta 20 lagunendako lekua dago; langabeek lehentasuna izango dute

M.A. | ARETXABALETAKO

Elikagaiak zelan erabili ikasi eta horren jakitun direla dioen txartela eskuratzeko ikastaroa antolatu dute Udalak eta Bizikak, apirilaren 28an eta 29an egiteko (10:00-13:00 eta 14:00-17:00). Izenemate epea zabalik dago apirilaren 18a arte, eta eskaerak udaletxeko Enplegu Sailera bideratu behar dira.

Taberna eta jatetxeendako

Batetik, etorkizunean txartel hori behar izango dutela uste duten lagun guztiei dago zuzendua ikastaroa –langabeek lehentasuna izanik–, eta bestetik, Aretxabaletako komertzio, taberna eta jatetxeetako jabe eta langileei. Hona hemen irakatsiko dituzten hainbat gai: oina-

rrizko kontzeptuak; garbitasuna; infekzioak eta intoxikazioak; tresneria erabiltzeko arauak; prebentzioaren garrantzia...

20 lagunendako daukate lekua eta onartuz gero 20 euro ordaindu behar da ikastaroa.

Langabeak motibatzen

Bestalde, oraindik zabalik daude, eguaztena artean, Enplegu Sailak antolatutako beste bi ikastarotarako izenemateak: *Lana bilatzen* –apirilak 6 eta 13, (09:30-12:30)– eta *Arropa konponketa* –apiril eta maiatzeko martitzenak, (09:30-11:30).

Lehenengoa langabeak motibatzen eta zein jarrera izan erakusteko da eta bigarrena, josteko ezagutzak landu eta arropak konpontzen ikasteko.

PEDRO ETXEBARRIA | BASOTXOKO BATZORDEKO KIDEA

"Betiko erretiratuaren irudia apurtu gura dugu, gure ekimenak geuk bideratuta"

Pedro Etxebarria da elkarrizketa mahaien bultzatzailea eta pozik dago emaitzarekin.

Helburua ez da alderdiekin eztabaidatzea.

Ez, gure artean eztabaidatzea baizik. Horregatik, entzun bakarrik egiten ditugu azalpenak, eta gero gure artean iritziak trukatu.

Eta zergatik entzun gura diezue alderdi politikoei?

Gero Udala osatuko dute horiek eta eurekin harremanetan egon beharko dugu; hortaz, nagusien gainean duten iritzia jakin gura dugu.

Botoak lortzeko asmoz datoz?



Pedro Etxebarria. | M.A.

Jai dute orduan, guri botoak ateratzea zaila da eta. Gainera, esandako guztia idatziz jasotzen dugu, eta gero gogorazi egingo diegu.

Ekimen berria da mahai hauek osatzea.

Bai; betiko erretiratuaren irudia apurtu gura dugu, karta-jokozalea eta bidaiatzailea. Hori ere

izango gara, baina geuk bideratu gura ditugu guretzat diren ekimenak.

Eta bide berritzaile horretatik jarraitzeko asmorik baduzue?

Bai; orain formazio saio batzuk egingo ditugu Julio Canton psikologoarekin, eta Basotxoko sei kide goaz.



BATU GAITEZEN ARETXABALETAKO AURRERA EGITEKO

Mikel Uribebarria
Aretxabaletako alkategaia



www.gipuzko.com

EZKONTZAK 2011



LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA



Inoiz baino ederrago zure ezkontza egunean

- Aurpegi tratamendua: hidratatu eta prestatu azala
- Oxilance aurpegi tratamendua: eman distira eta argitasuna azalari
- Gorputzeko peelinga eta masajea
- Pedikura
- Manikura frantsesa

~~250 €~~

200 €

Eskaintza

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 52 17 www.lirainestetika.com



Liluratu egin behar da

Egun horretan, jantziaz gainera, azalak berebiziko garrantzia dauka eta oso ondo zaindu beharra dago | IMANOL GALLEGO

Askorentzat, ezkontza eguna bizitzako egunik pozgarri eta zoragarriena da, eta horren pareko look-a lortzea ezinbestekoa da. Hori erraza dela uste dutenek sorpresa bat baino gehiago izango dute. Egun horretan behar bezala dir-dir egin ahal izateko hamaika dira egin beharreko tratamenduak.

Jantziaz gainera, egun horretako azalak ere garrantzi handia dauka, eta hura zaintzea ezinbestekoa da, egun horietako estresak, makillajeak eta ondorengo ezte bidaia eguzkitsuek azala honda dezakete-eta. Horretarako, baina, modu bakarra dago; Amagara

Estetikako Maite Agirrek hauxe dio: "Azala asko zaindu behar da; kremek, maskarillek... eta, noski, gure tratamenduek ere asko laguntzen dute".

Azala zaintzeko, hura nola zaindu behar den jakin beharra dago. Egoki zaintzen dugu? Azala zaintzeko bi gauza eduki behar ditugu kontuan: azalaren hidratazioa eta garbitasuna. Angela Estetikako Angela Gartziak behin eta berriz ematen duen aholkua garrantzitsua da: "Azala asko hidratatu behar da; aurpegiak gainera, eskotea eta bizkarra ere zaindu behar ditugu", askotan gure zaintza tratamenduak aurpegiak bakarrik ematen ditugu-eta.

Makillajea bai, baina naturala

Urteetan makillajea ezkontzen protagonistetako bat izan da. Ezkontide batek negar egiterakoan, izerditzerakoan... Orain, baina, horrek ez du garrantzirik, makillaje berriek hori guztia jasaten dute-eta.

Horrez gainera, natural joatea ezinbestekoa da. Horretarako, pastel tonuek asko laguntzen dute. Aurpegiaren fakzioak ezkutatu gabe eta berezko ditugun akastxoak disimulatuta. Oraindik gutxi diren arren, gizonezkoak hasi dira makillajea erabiltzen.



Ezkontideak gero eta makillaje naturalagoa nahi izaten du. | GOIENA

Azala ahalik eta leunen; ilerik ez!

XXI. mendean ilearen kontrako gudu baten murgildu gara. Gure azala zaintzarekin batera, ilea gure gorputzetik kendu nahi izan dugu. Egun horretan mundu guztia begira izango duzu eta komeni da azala ahalik eta leunen izatea. Horretarako, depilazioa astebete lehenago egitea komeni da.

Egun, aukera ugari dago: fotodepilazioa, argizaria, pultsodun argia... teknika berritzaile ugari dago, baina egun horretarako kontuz ibili beharra dago, askotan horrelako teknika berriek azala gorritzen dute-eta.



Azal zaindua eta ilerik gabea ere izan behar dute andregaiak. | GOIENA

H***arantzazu

arantzazuko santutegia hotela



Zuen **ezkontza** eguneko amets guztiak burutzeko prest dagoen **paregabeko lekua**

Sartu gure webgunean eta zuk zeuk prestatu menua.

Arantzazuko auzoa 8 | 943 78 13 13 | OÑATI | www.hotelsantuariodearantzazu.com

Gizonak, gero eta apainago

Oraindik ere asko lotsatu egiten dira, baina guk ere txukun joatea atsegin dugu. Emakumearekin gertatzen den moduan, gizonak ere natural joan nahi du. Egun horretan, eguneroko itxura aldatu arren, bere sena eta izaera mantendu nahi ditu.

Horregatik, bizarra moztu eta azala ondo tratatu ostean, ilea atondu beharra dauka. Gizonak ilearen bitartez bere izaera erakusteko aukera dauka; horregatik, horren erabiliak izan diren moldeak apurtu, eta moderno joan daiteke.



Bere nortasuna galdu barik, ezkontide moderno bat. | GOIENA

Ilea, gero eta naturalago

Emakumeak, liluragarri joateaz gainera, natural joan nahi du. Eta ileak, makillajearekin batera, garrantzi handia dauka.

Soinekoak ilearen estiloa definitzen duen arren, horrenbeste erabiltzen ziren ile bilduak ez daude modan. Orain, ilea era naturalagoan orrazteko joera dago, emakumezkoak era erosoagoan eramaten du eta bere estilotik hurbilago dagoen look-a izateko aukera izaten du. Ezkontza egunean apain joan behar da, baina norberaren izaera errespetatuta.



Emakumezko bat, modan dagoen ile soltearekin. | GOIENA

EMAKUMEA PROTAGONISTA

Estetika tratamenduetan ere emakumea da gehien zaintzen dena; hala ere, antzinako estilo rococotik at. "Ezkontideek naturalak izan behar dute, eta makillajea ere ildo horretatik doa", dio Sesiñena zentroko Izaskun Aldanondok.

Ile-apaindegiek ere gauza bera diote. Toñi ile-apaindegiko jabe Toñi Davilak naturaltasun hori azpimarratu digu: "Fresko itxura izan behar dute; ilea bildu beharrean, solteago daramate orain, naturalago". Makillajea ere gero eta finagoa da. Aurten, pastel koloreek oso era suabea aberastuko dituzte ezkontideen aurpegiak.

Dena den, itxurazko naturaltasun horren atzean, tratamendu, makillaje eta masaje asko dago, egun horretan inoiz baino apainago egon ahal izateko. Guztiz Ederreko Arantzazu Txintxurretak hori azpimarratu digu: "Horrenbeste gauzaren artean, norberarentzat momentu bat hartu eta masajea hartzea ezinbesteko gertatzen da".

Bada, gomendio hauek guztiak borobiltzen dituen aholkua jaso dugu Lirain estetika zentroko Mari Carmen Pardorengandik: "Azala zaindu, tratatu eta oxigenatu egin behar da, egun horretan inoiz baino apainago egoteko".

Gogoan izan behar da, gainera, ezkontza denboraldia gainean dugula eta zenbait estetika zentrok bonu bereziak ateratzen dituztela bi ezkontideentzat.

Sei gomendio 'express'

BEGIZULOAK DISIMULATU
Aurreko eguneko nerbioengatik ez duzu lo askorik egingo eta begi-zuloak izan ditzakezu. Horiek ezkutatzeko, izotz apur batekin igurtzi, eta desagertu egingo dira.

BEGIAK HANDITUTA
Lo egitea ona den arren, lo gehiegi egiteak ez ditu mesederik egingo begiak handituta jaikitzen bazara; pepino atal batzuk jarri begien gainean.

MAKILLAJEA HOBETZEKO
Azala asko prestatu behar da; horretarako, aurreko egunean maskarilla batek azala leunduko dizu.

AZAL DISTIRATSUA
Aurreko egunetan ur asko edan, eguneko gutxienez bi litro ur. Horrela, zure azalak distira berezia izango du.

ERLAXA ZAITEZ
Ez da erraza izango, baina, tartetxo bat edukitzekotan, musika lasaia jarri eta bainu bero eta luze batek eguneko estresa atzean uzten lagunduko dizu.

GARRANTZITSUENA
Egun berezi horretan...
GOZATU!!!

EZKONTZA PACKA

255 €

- Aurpegi garbiketa.
- 3 tratamendu oxigenatzaile.
- Manikura.

+

MAKILLAJEA OPARI

- Makillaje proba.
- Ezkontza egunean makillajea.

Zure ezkontza,
zure bizitzako
egunik
garrantzitsuena

estetika zentroa
angela

Emaztegai naturala, lore ederren xarmarekin

Egun handian erabiliko duten soinekoa erosi ondoren aukeratzen dituzte lore sorta eta apaingarriak | MIREIA BIKUÑA

Geroz eta garrantzi handiagoa dute lore apaingarriek ezkontza batean. Ezkongaietatik hasi, eta eliza eta jatetxea apaintzeko loretaraino. Hori bai, denak gama bereko loreak dira. "Gure datazoen emaztegiaren soinekoak zehazten ditu ezkontzarako lore apaingarriak. Soinekoa ikusi ondoren erabakitzen dugu zer-nolako lore sorta eramango duen eta zer-nolako apaingarriak jarriko ditugun autoan, elizan eta jatetxean", esan digu Ninika loradendako Anak.

OSAGARRIAK LORE SORTAN
Debagoieneko emaztegiak modernoak eta naturalak direla esan digu Ninikako Anak: "Batez ere naturalak dira janzteko orduan. Hori horrela, lore sorta naturala eramaten dute. Soinekoak osagarriren bat badauka, lumak, harrirxoak edo kristalak, lore sortan sartzen ditugu, gama berekoak izan daitezten".

Lore sorta askotan koloredun loreak erabiltzen dituzte. "Lore gorriak eta fuksiak erabiltzen dituzte askok, soinekoaren gainean nabarmentzeko. Dena den, zuria eta berdea asko erabiltzen ditugu. Koloredun lore sortetan gama bereko koloreak erabiltzen ditugu. Ez ditugu kolore nahasketak egiten", esan digu Anak.

ILEAN LORE NATURALAK

Emaztegiaren burua eta senargaiaren paparra apaintzeko lore naturalak erabiltzen dituzte geroz eta gehiago. "Emazteek orrazkera naturalagoa eramaten dute, eta lore naturalek ukitu berezia ematen diote. Lore naturalak delikatuak dira, baina oso dotore gertzen dira", dio Ninikakoak. Eta senargaiak emaztegiak daraman lore sortarekin ondo ematen duen lorea eramaten du txaketako poltsikoan.

Elizetan eta jatetxeetan ere zaindu egiten dute dekorazioa. Apaintzeko, zer-nolako ezkontza den hartzen dute kontuan.



Ilerako apaingarria. | GOIENA



Senargaiarendako lorea. | GOIENA



GOIENA

JATETXERAKO Asko zaintzen dute jatetxeetako dekorazioa. Goiko irudian *amarilis* zuriarekin egindako apaingarria duzue. Kristalezko oinarria dauka, eta berde koloreko loreekin apaindu dute.



GOIENA

KALAK Goiko irudiko emaztegiak kalekin egindako lore sorta darama. Hostoak ipini dizkiote eta errafiazko begizta. "Emaztegi batzuek lore kuttunaren bat izaten dute, eta horiekin egin gura dute lore sorta. Aukeraketa pertsonala izaten da, kontuan hartuta bazkarian beste pertsona berezi bati opari egiten diola. Lore sortak berezia eta bakarra izan behar du", esan digu Ninika loradendako Anak.



GOIENA

GAMA BEREKO LORE SORTA
Nabarmentzeko koloredun lore sortak erabiltzen dituzte: gorria edo fuksia erabiltzen dute. Baina, betiere, gama bereko koloreekin.

ARETXABALETA

ARETXABALETA 1950-2011 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

ARRASATE

ARETXABALETA FAGOR banatzaile ofiziala

ARETXABALETA expert banatzaile ofiziala




Gutziz Eder Estetika Zentroa

Plazera biontzat

- Aurpegiko tratamenduak: azido hialuronikoarekin eta bitamina konplexuarekin eginda.
- Gorputzeko Peeling-a eta hidratazioa.
- Gorputzeko tratamendu berria "Termasons", gorputza primeran edukitzeko.
- Harri bolkanikoekin egindako masajea.
- Betiko manikura, pedikura, depilazioa eta solariuma.
- **Laser bidezko depilazioa profesionaltasunez egiteko aukera paregabea.**

Zerbitzurik onena gure bezeroen esku.



Kale Barria 29, behea (Orbea etxea, parke aldetik) 20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46

Senargai dotorea, Swaroski kristalekin

Horixe da senargaiendako berrikuntza inportanteena; bestelakoan, kolore ilunak eta metalizatuak daude modan | M.B.

Emaztegiaren soinekoa izaten da ezkontza bateko sekretu inportanteena. Azken urteetan, baina, indar handiagoa hartu du senargaiaren arropak. Ohiko trajeari aspaldi esan zioten agur Debagoieneko senargaiek. Berrikuntzetako bat Swaroski kristalak dira. "Trajeari argitasuna emateko erabiltzen ditugu. Gorbatoietan eta alkandoretan ipintzen ditugu kristaltxoak. Iaz hasi ginen erabiltzen, eta aurten, indar handiagoa hartu du", esan digu Bergarako Mujika jostundegiko Trinik. Aurten -azken bi urteen antzera- traje ilunak, batik bat beltz kolorekoak daude modan. Traje dotoreak, baina neurrizkoak. "Kolore iluna saltzen da gehien. Hemengo mutilei dotore janztea gustatzen zaie, baina neurrian", esan digute Mujikan.

Kolore ilunak erabiltzen dituzte, baina distira apur batekin. "Ehun batzuek hari metalizatuak izaten dituzte, eta horrek ematen

dio metalizatu puntua. Beste batzuek, aldiz, erliebea izaten dute", diote Mujikakoek.

'OPERA' LEPOAK

Txalekoak ematen dio kolorea senargaiaren trajeari, horiek ere metalizatuak. "Zilar eta altzairu koloredun txalekoak dira gehien erabiltzen dituztenak. Baina burdeos eta lila kolorekoak distira apur batekin ere modan daude".

Traje beltzarekin, eta kolore bakarreko txalekoekin, alkandora zuria erabiltzen dute gehien; nahiz eta batzuetan alkandora ilunak jantzi.

Alkandoretako berrikuntza lepoan dator: aurten *opera* lepoa delakoa dago modan. "*Smoking* lepoa ere deitzen zaio, eta oso oso txikia da", esan digu Mujikako Trinik.

Azken urteen antzera, trajearen lepoaldea apaintzeko gorbatoiak erabiltzen dituzte. Guztiek dute Swaroski perla bat korapiola egiten den lekuan.



XIX. mendeko ukituarekin. | GOIENA



GOIENA

TONO BEREAN Goiko trajea eper-begi delakoa da, altzairu kolorekoa eta beltza. Alkandora zuria eta *opera* lepoduna. Gorbatoia beltza, Swaroski perlatxoarekin.



Txaleko motaduna. | GOIENA



GOIENA

MILARRIAZKO TXALEKOA

Goiko trajea beltza da, liso faltsua eta erliebearekin. Txalekoa milarraizkoa eta metalizatua da. "Urrunetik begiratu gero, kolore lisoa dela ematen du. Grisa dela dirudi", dio Trinik. Gorbatoia txalekoaren kolore berekoa da. Alkandora zuria. Txaketaren poltsikoan daraman musuzapia txalekoaren kolore berekoa da.




Rokoko txalekoa. | GOIENA



SESIÑENA
Ile apaindegia
estetika zentrua

Bizar moztea labanarekin • Oihal beroen tratamenduak eta aurpegi masajea
Ile tratamenduak • Era guztietako orrazkerak (biltzeak, luzatzeak...)
Gorputz eta aurpegi tratamenduak • Makillajea • Autobrontzeatzea • Manikura eta pedikura

Atzeko kalea 7-behea OÑATI Telefonoa: 943 78 03 56



Emakume, gizon eta umeentzako ezkontza opariak

Kale Zaharra 3. Oñati. Tel.: 943 78 28 14.
mizke@euskalnet.net www.mizke.com



Hotelaren erosotasuna, ezkongaien eskura

Ibarreko hotel askok ezkongaiak egun berezirako behar dituzten zerbitzu guztiak dituzte | XABIER URTZELAI

Ezkontza eguna ederra bai, baina nekagarria ere izan daiteke, eta jatetxe zerbitzuarekin batera hotel on batek eman ditzakeen erosotasun eta zerbitzuak izugarri eskertuko dituzte ezkongaiak.

Hala, Oñatin dagoen Soraluze Hotelean Stella Magerrek hotelak egun horretan eskaintzen dituen hainbat zerbitzu azaldu dizkigu: "Jatetxean eskaintzen dugun zerbitzuarekin batera [ikus hurrengo orria] hotelean andreagaiek izugarri eskertzen dute bazkarian zehar logela bat erabilgarri izatea, euren eskura. Arropa aldatzeko, makillajerako, atsedean apur bat hartzeko eskaintzen dugu zerbitzu hori".

BADAGO NON AUKERATU

Hotelak edo jatetxeak aukeratzeko orduan Debagoienean eskaintza zabala dugu, gutxik erabakitzen dute Debagoienetik kanpora joatea. Hori onartu digu autobus zerbitzua eskaintzen duen Leintz Garraioetako Lydia San Martinek: "Arlaban inguruan, Arrasaten eta Oñati aldean ibiltzen gara gehien, Arantzazura bidean. Bailara honetan uste dut eskaintza oso zabala dagoela, baina badira hiriburueta joan nahi izaten dutenak ere, Gasteizera edota Itziarko gainera, esaterako".



Andreagaia, hotel bateko logela batean, trajea zintzilik duela. | GOIENA

Nabarmentzeko, detaileak zaintzea, ezinbestekoa

ARANTZAZU ETA DORLETA

Ibarrean, ezkontza *klasikoa* egin nahi duten askok eta askok Arantzazu edota Dorleta aukeratzeko dituzte. Arantzazun ezkontuta, ospakizuna egiteko izen bera

daraman hotela aukera ona da. Eta hoteleko ordezkari Iker Usonek azaldu digu ezkontza klasikoez gain, gainontzekoetarako ere aukera ona dela: "Arantzazuko santutegia, Gipuzkoan eta eskualde honetan batez ere, ezkontzetarako tradizio handiko kokapena izan da. Tradizio horretan gainera ez da soilik Basilika egon, Arantzazuko ostaturia ere hor egon da. Oraindik asko dira gurera etortzen direnak, nahiz eta ostaturia izena hotelarengatik aldatu genuen. Baina, pentsa daiteke geroago eta ezkontza kristau gutxiago daudenez, zailago dela gurera ezkontzak erakartzea. Bada, ez da hala, bikote askok Arantzazu aukeratzeko jarraitzen dutelako, duen abanguardia eta modernitateak erakarritu. Modernitate horretan, noski, hotela bera dago, hiru urte baino ez ditu-eta".

DETAILE GUZTIAK ZAINDUZ

Gainontzekoen eskaintzatik nabarmentzeko, Soraluze eta Arantzazu hoteletako ordezkariak detaileak duten garrantziaren gainean egin dute berba. Soraluzen, esaterako, plater bakoitza sukaldetik apainduta ateratzen dute, erabat individualizatuta. Arantzazun, berriz, ezkongaien ordenagailuz egin dezakete menuaren aukeraketa.

Autobusez, lasaiago

Gidabaimena kentzeko puntu sistema ezarri zutenetik gora egin du autobus zerbitzua kontratatze eskaerak. Hori onartu digu Leintz Garraioak enpresako Lydia San Martinek: "Jendeak geroago eta gehiago zaintzen du alkoholaren kontua. Abantailak, baina, ez dira horretara mugatzen, autobus zerbitzua kontratatuta aparkatzeko arazo gutxiago egoten delako, esaterako, ermita txikietan edota jatetxean bertan". Eta neurri handian ezkongaiak ere lasaiago ibiltzen dira, norbaitek istripuren bat izateko aukerak txikitu egiten direlako.


Debagoienean ezkontzen denak ez du ospakizun eder bat egiteko urrun joan behar, baina badira hiriburueta joan nahi izaten dutenak: "Gure eskaintza erabat zabala da, kartara, esango genuke. Nora joan ezkontideek erabakitzen dute, gonbidatuak ze ordutan jaso, gauean autobus zerbitzua nahi duten edo ez... Horiek guztiak kontutan hartuta, guk aurrekontua egiten diegu, inongo konpromiso barik, gainera".

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA



Proiektuak · Koltxoiak · Horma-Armairuak · Altzariak neurrirra
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak

NINIKA

L O R A D E N D A

- Ezkontza opari eta detaileak
- Bataioak
- Jaunartzeak

Ramon Maria Lili 8 20570 Bergara
Tel. / Faxes: 943 76 10 01



Gure Ametsa

Gatetxea

943 71 49 52
gatzaga

*ezkontzatarako areto handi eta erosoak
aperitiboendako terraza
sukaldaritza zaindu ete paregabea
aurrekontu guztietarako menuak*





Ezkongaiak garrantzia ematen diote banketeari; Debagoieneko jatetxeetan kalitatezko eskaintza zabala topatuko dute. | GOIENA

Betikoa eta berriena, menuetan eskatuena

Bost jatetxetan egon gara eskaintza eta ezkongaien gustukoak ezagutzeko | MIRIAN BITERI

Ezkontza bat gertatzekoan jatetxea aukeratzeko da lehen zereginetako bat. Debagoienean eskaintza zabala dago alde horretatik. Leintz Gatzagatik Arantzazu eta Berga-

raraino, egun horretarako askotariko menuak aurkituko ditugu; plater klasikoak, modernoak eta baita denetarik apur bat ere.

Oñatiko Soraluze hotelean eta jatetxean 150 lagunendako tokiak dute. Hango Stella Magerrek

azaldu digu plateren aurkezpena asko zaintzen dutela. Haren esanetan, "jakiak begietatik sartu behar dira; hori lortzeko asmoz, plater guztiak amaituta irteten dira sukaldetik; guk ez dugu erretiluak erabiltzeko ohiturarik;

arraina eta okela, bakoitza bere platerean doa mahaietara".

Herri bereko Etxe Aundi jatetxeko sukaldeko buru Iker Basurkok jakinarazi digu platerak "azkar eta bero" ateratzeari lehen-tasuna ematen diola. Haren esa-

netan, "sarrerak plateretan joaten dira, eta arraina eta okela mahaietan zerbitzatzen dira. Horien artean denbora luze ez egoten saiatzen gara".

URTERO PLATER BERRIAK

Berezitasunen artean, abakando entsalada eta porru eta ganben bolobana dute. Urtero hainbat berrikuntza sartzen dituzte menuetan. Joan den urteko menuak izandako harrera aztertu, eta plater berriak sartzen dituzte. Aurten, esaterako, *Itsas-lur* izena duen entsalada, amerikar erara gertatutako zapoa eta *Salvanegra* izeneko postrea sartu dituzte. 100 eta 200 gonbidaturendako jangelak dituzte Etxe Aundin.



leku eta egun ahaztezinak

100 eta 170 gonbidaturendako jangelak ditugu.



**Etxe
Aundi**

Jatetxea-Hotela**

Torre Auzo 9.

OÑATI (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Menu modernoak

1. MENUA

- ▶ Bakalao entsalada hotza.
- ▶ Itsaski budina.
- ▶ Barazki tinbalo epela.
- ▶ Onddo hostopila.
- ▶ Almejak saltsa berdean.
- ▶ Hegazti edo itsaski krema.
- ▶ Legatza, txangurroz beteta.
- ▶ Orein azpizuna
- ▶ Eztei tarta

2. MENUA

- ▶ Koktela: urdaiazpikoa; frijituak, tartean txipiroizkoak; almejak plantxan berakatz eta piperminarekin; itsas trikua txangurroz beteta eta onddoak papillote eran.
- ▶ Zapoa plantxan.
- ▶ Kangurua



Oreina plantxan. | GOIENA



Zapoa plantxan. | GOIENA

Menu klasikoa

1. MENUA

- ▶ Urdaiazpiko eta solomo iberikoak
- ▶ Entsalada txipiroiekin
- ▶ Bakailao brika
- ▶ Piperrak, txangurroz eta legatzaz beteta
- ▶ Bieira gainerreak
- ▶ Langostinoak plantxan
- ▶ Zapoa labean
- ▶ Azpizuna plantxan

2. MENUA

- ▶ Iberikoak
- ▶ Foie mugurdi konfiturarekin
- ▶ Zigalak
- ▶ Kalabazin gutzia
- ▶ Legatza saltsan
- ▶ Limoizko edo mandarinazko sorbetea
- ▶ Solomilloa edo antxumea aukeran



Bakailao-brika. | ETXEAUNDI



Zigalak. | GURE AMETSA



Diskoa, musika jotzen.

Disko-jartzailea dantzaldirako

Ederto bazkaldu ostean, gorputza astintzeko ordua heltzen da ezkontzetan; dantza egiteko ordua, hain justu ere. Kasu horretan ere, aldatzen doaz ezkonberrien gustuak. Orkestren ordeztu, dagoeneko klasiko bilakatu da disko-jartzaileen aukera. Gure Ametsako Josune Ibaeren esanetan, "disko-jartzailearen eskaintza amaigabea da; jendeak eskatzen dion edozein abesti jartzeko aukera dauka, eta orkestra mugatuta dago, erreperitorio itxia du".

Lasa jatetxeko Koldo Lasak ere bat egin du gatzagarrekin. Horren arabera, "oso orkestra gutxi egoten dira; hori bai, egoten denean, orkestra ona izaten da. Jendeak nahiago du disko-jartzailea; horrek, gainera, asko girotzen du ezkontza, musika komertziala eta dantzagarria jartzen du".

Trikitiak ere ez dira askorik ikusten ezkontzetan. Biek baieztatu digute normalean urrezko edo zilarrezko ezkontzetan egoten dira.

Bergarako Lasa jatetxean ez dute berrikuntza nabarmenik. Hango Koldo Lasaren esanetan: "Oreina aspalditik daukagu menuan sartuta, eta oso harrera ona du. Beste hainbat urtetan Kobeko idi okela eskaini dut, baina nik neuk nahiago dut txuleta edo txerri iberikoa. Kangurua ere izan dut, eta, norbaitek eskatzen baldin badit, jarriko diot". Bestalde, Lasak dio etxeko "ikurra" dela produktu guztiak etxean bertan egindakoak direla. "Ezin ditut txerriak izan, eta, hortaz, urdaiazpikoa ez da etxekoa. Baina gainerakoa guk egiten du, baita ogia ere".

Leintz Gatzagako Gure Ametsako Josune Ibaek azpimarratu du etxean menu klasikoek dutela harrena onena. Haren esanetan:

"Kokteletan aldatzen saiatzen gara, baita sorbeteetan eta postreetan ere. Baina arrain eta okelan ez dute arriskatzen". Horren harira, jakinarazi digu koktelak gero eta gehiago eskatzen direla.

Berrikuntzen ganean ere egin digu berba: "Sorbeteetan, bioleta eta mugurdiarena daukagu orain; plateretan, onddo eta zigala brika jarri dugu, eta porru eta ganba pastela berreskuratu dugu. Postre eta izozki berriak ere baditugu".

PERTSONALIZATUAK

Ohikoa da menuak ezkonberrien gustuetara egokitzea. Oinarritzko lauzpabost menutatik abiatuta, pertsonalizatuta egiten dira. Horretarako, "dastatzea" izaten dute bikoteek aurretik, dena behar

bezala lotzeko. Gehienetan plater klasikoak eta modernoak nahasten dituztela jakinarazi digute jate-txeetako arduradunek: "Normalean, ez zaie gustatzen plater modernoak bakarrik jartzea, beldur dira gonbidatuen gustukoa ez izatea, eta denetarik sartzen dute".

INTERNETEK BADU TOKIA

Teknologia berriei esker, denbora luzerik ez dutenek Internet bidez ikus ditzakete menuak, eta gero, nahi duten moduan egokitu. Arantzazuko Santutegia Hoteleko Iker Usonen esanetan, "bikoteek ordengailu baten aurrean egiten dute lehen aukeraketa eta horretan hotelak egin duten apustua emaitza onak ematen ari da. Webgunean, ezkontzetarako ditu-

gun sei menuak prezioarekin agertzen dira. Baina, horretaz gain, bikoteek etxetik bertan, gure eskaintza guztia irakurriz, nahi duten menua diseinatu ahal dezakete, guri e-postaz bidali eta aurrekontua jaso".

Bestalde, jatetxe guztietan jakinarazi digute gero eta ohikoa dela begetariano, diabetiko edo zeliakoendako menuak eskatzea eta, hori dela-eta, askotan hainbat menu mota ateratzen dituztela. Hori bai, prezioei gero eta gehiago erreparatzen diote ezkonberriei. Horren harira, Lasan eta Gure Ametsan baieztatu digute krisia igarri egin dela. Ganbekin edo abakandoekin, inportanteena da egun horretan ahalik eta ondoen pasatzea.

Sastrería Muzika

Presta zaitez ezkontzarako!
Jantziak neurrira egiten ditugu

Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA



Toñi

ile-apaindegi mixtoa

Zure egunean,
utz iezaguzu zu mimatzen!

Tel: 943 79 14 70 • Iturriotz kalea 23 • ARRASATE

Gogoan izateko eguna da

Eurentzat egun berezia dena gonbidatu guztientzat ere egun berezia izatea gura izaten dute ezkongaiak | **ARANTZAZU EZKIBEL**

Gonbidapenak aukeratzera izaten da ezkongaiak egin behar izaten duten lehenengoetarikoa. Euredako hain garrantzitsua izango den egunean senideak eta lagunak ondoan izan gura dituzte. Horretarako, gonbidapen bereziak aukeratzera dituzte.

Gonbidapenetan ez dago joera zehatzik. Hala adierazi digu Bergarako Garbil inprimategiko Karmenek: "Ezkongai batzuek gonbidapen klasikoak nahi izaten dituzte, betiko postalak; beste batzuek, osterara, txantxak egiten dituzte gonbidapenetan, informazioak dira".

PERTSONALIZATUAK

Azkeneko urteotan ezkongaiak euren argazkia sartu izan dute gonbidapenetan, baina Karmenek dio hori ez dela ohikoena. Koloreei dagokienez, gorriak, urdina... denetik egoten dela dio. Gonbidapenetan ezkongaien izenak, ezkontza eguna eta eurekin harre-

manetan jartzeko telefonoa jartzen dute. Ezkontza eguna baino lau hilabete lehenago eskatu behar izaten dira gonbidapenak.

OPARITXOAK

Oñatiko Mizke dendako Maribi Igartuak azaldu du oparitxoak ezberdinak izaten direla gizonendako edo emakumeendako. "Gizonendako boligrafoak, giltzatak, labanak, xanpaina edo ardoa... egiten dira; neskendako, osterara, nezeserrak, xaboiak, kandelak...". Lehen egiten ziren opariekin alderatuta, orain opari praktikoagoak egiten direla azaldu du. Pertsonalizatu egiten dituzte opariak, ezkongaien izenekin, normalean.

Opariak bi hilabete lehenago eskatu behar izaten dira. "Opariak dendan jaso ondoren, gertatu egin behar dituzte; hortaz, denboraz ibili behar da", gaineratu du Igartuak. Orain, krisiarekin, prezioari asko begiratzen zaiola dio. Oparitxo bakoitzak 3,5 euro balio du, gutxi gorabehera.

Opariak eta gonbidapenak



KORTXO-KENTZETXOAK Ohikoa da mutilei kortxo-kentzetxoa oparitzea. Modan dagoen oparia da azkenaldian.



KORTXOAK Benetan originalak dira irudiko kortxoak; ezkongaien irudia daramate eta aproposak dira ezkontza egunean oparitzeko.



CAVA Botila ardoa edo botila cava oparitzea ohikoa izaten da; batez ere, mutilei egiten dieten opariak dira ardoa eta cavarena.



ESKUMUTURREKOA Harriekin edo larruarekin egiten diren bitxiak aproposak dira emakumeei oparitzeko; irudian, eskumuturrekoa.



ORRATZAK Hainbat kolore eta tamainatako orratzak egiten dituzte. Ohikoa da ezkontza egunean horrelako bitxiak oparitzea emakumeei.



NEZESERRA Makillajea gordetzeko edo xaboi poteak gordetzeko egokiak izaten diren nezeser txikiak oparitzea oso ohikoa izaten da gurean.



KLASIKOA Denetarikoa gonbidapenak egiten dituzte, baina, oraindik ere, gonbidapen klasikoak asko egiten dira: kolore argiak eramaten dituzte.



EGUTEGIA Ezkongaiak gura izaten dute euren gonbidapenak pertsonalizatuak izatea; horretarako, adibidez, egutegi itxura ematen diote.



DISEINUA Kolore biziak eta diseinu modernoak hasi dira erabiltzen hainbat ezkongai; irudian, kolore gorria eta motorra erabili dute.

SORALUZE OSTATUA * *
Inguru natural batean
NATURA, GASTRONOMIA ETA KALITATEA

Arantzazuko bidean km.1 / OÑATI / Te.: 943 71 61 79 /
info@soraluzeostatua.es / www.soraluzeostatua.es



Leintz
GARRAIOAK, S.L.

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,
txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



Kolore biziek jantziko dute ezkonberrien etxea

Ezkontza eguna pasa ostean, bion artean egin beharreko lehen lana izango da hori. | IMANOL GALLEGO

Guztia amaitu da, ezkontza, opariak, festa, eztei-bidaia... baina atzeko guztia oroitzenen kutxan gorde eta lan garrantzitsu bati ekiteko garaia da. Nola jantziko dugu etxea? Ziurrenik, galdera honek ezkonberrien arteko lehen tira-birak ekarriko ditu, baina lasai, hori guztia uste baino errazagoa da.

Aurten oso dekorazio erabilgarria inposatu da, azken urteotako estilo minimalistatik askorik aldenitu gabe. Hala eta guztiz ere, altzariak protagonismo handiagoa eskuratuko dute. Oso sinpleak izaten jarraitzen duten arren, koloreak protagonismo berezia emango die. Altzariak zenbait detalleren bitartez protagonismo berria izango dute. Horrez gainera, pareta eta alfombra ere koloreztatu egingo dira eta etxeko giroa asko alaituko dute. Minimalismo hotza berrantolatuta gura izan dute.

SUKALDE MODERNOAK

Ahaztu garai bateko egur koloreko sukaldeez, hori antzinako gauza da-eta. Klasikotasuna berreskuratzen ari garela dirudi, eta aurten sukalde zuri ugari ikusiko ditugu; klasikotasun hori, baina, itxurakeria besterik ez da. Sukaldeak gero eta modernoagoak



Estilo minimalista eta funtzionaltasuna bateratzen dituen logela. | GOIENA

dira, azken momentuko etxetresna elektrikoez gainera, sukaldeko altzariak ere aldatu egin dira. Sukalde garbi, sinple eta argiak nahi ditugu eta ekoizleek hori guztia bateratu dute; Servimasa-ko Mikel Etxanizek dionenez,

Koloreak alde batera utzi eta sukalde zuriak datoz berriro

"heldulekuak desagertzen ari dira; orain, jendeak klik bat egin ez zabalitzen ditu armairuak". Horrela, sukalde garbiago eta sinpleagoa lortzen da.

Bada, honezkero erositako 30 dekorazio aldizkaritan galduta

ibili beharrean, irtenbide errazena dekorazio denda baten aurkituko duzue; bertara jo, lana asko erraztuko dizue-eta. Eta, behin etxea jantzita duzuela, hura bizi izatea baino ez zaizue geldituko.



Tiradore gabeko sukaldeak. | GOIENA



Kolorez beteriko alfombra eta apaingarriak. | GOIENA



Amagara

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Ospakizunetarako eskaintza bereziak

Egun horietan distiratsu egoteko

Gizonezko eta emakumezkoentzat

- Aurpegi eta gorputz hidratazioak
- Solariuma / Manikura / Pedikura

Etor zaitetz konpromiso barik eta programa pertsonalizatua egingo dizugu.



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



SIMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO



Gipuzkoako
bankete-jatetxe
onenaren
Mas Gastronomia
2009 saria.



250 lagunentzako jantokia

Gustua eta luxua denon eskura

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia

Tel.: 943 76 10 55

BERGARA

www.restaurantelasa.es



Beste behin, Manolo Muñozek nahia bete zuen: Intxaurtxuetako harmailak betetzea

Eskoriatzarrek omenaldi hunkigarria egin zioten martitzenean, hileta-elizkizunaren ostean

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Merezi zuen moduko agurra izan zuen 32 urtez Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente izan den Manolo Muñozek. Azken zazpi urteak gaixotasun baten kontra egin zituen borrokan, eta omenaldi ekitaldian Manolo Muñozen anaiak berak onartu zuen jendearen animoek emandako indarrari esker egin zituela zazpi urte horiek, tinko. Sasoi horretan ez zituen klubarekin zituen ardurak alde batera utzi, eta azkenaldian makal zebilelako klubeko ordezkari guztiek presidentearen animoak gora egin zezan grabatutako bideoak zentratu zuen ekitaldia. Maitasunetik egindako lana zen, eta hala hartu zuten Intxaurtxuetan batu ziren guztiek, txaloka.

Gertukoa, langilea...

Eskoriatza moduko klub batean hiru hamarkada pasa presidente moduan egoteak asko esaten du Manolo Muñozen gainean. Gizon langilea zen, buruan sartzen zitzaion edozein egitasmo aurrera ateratzeko gauza zena, izan handia edo txikia. Muñoz 16 urterekin etorri zen Eskoriatzara, Kordobako herri batetik lan bila, eta iritsi eta bost egunera Ezkurako tailerrean hasi zen lanean, eta bost urte geroago Ederlanen -lankide asko izan ziren hileta elizkizunearan.

Eskoriatzara iritsi eta zortzi urtera kirol elkartearen presidentela lanetan hasi zen: "Hark egiten



Manolo Muñoz gogoan, ekitaldian lore sorta bat jarri zuten presidentearen omenez kantxaren erdian. | XABIER URTZELAI

Presidenteak merezi zuen agurra

Udaletxean Eskoriatzako banderak masta erdian jarraitzen zuen bitartean, parrokia goraino bete zen martitzenean Manolo Muñoz azken agurra egiteko. Barruan bakarrik ez, elizaren kanpoaldean ere jende ugari batu zen. Han izan ziren klubeko ordezkariak, oraingo eta lehengo arduradun, teknikari eta jokalaria; bailarako beste kirol eragile batzuk, klubetako ordezkariak; Eskoriatzako udal ordezkariak, eta baita Debagoieneko beste herri batzuetakoak ere. Hiletaren hasieran eta amaieran klubeko jokalariek pasilloa egin zioten, euren elastiko eta guzti, eta aurreku hunkigarria ere bai, txalo zaparrada handiarekin amaitu zena. Elizan bildutakoetatik asko Intxaurtxueta kiroldegira joan ziren gero, merezi zuen omenaldia egiteko.

zuen lana gutako inork ezin du egin", adierazi zuen Javi Corvallek, klubeko lehendakariordeak. "Oso altu utzi digu listoa, baina Manolori zor diogu klubarekin aurrera jarraitzea, eta halaxe egingo dugu", adierazi zigun Fernando Rasok.

Omenaldiko unerik hunkigarriena heldu zen Manolo Muñozen semeak hitza hartu eta denei eskerrak eman zizkionean, une zailotan familia jasotzen ari den babesagatik. Intxaurtxuetak zutik agurtu zuen presidente handia.

ESANAK

"Manoloren mailara ez gara iritsiko, baina aurrera egin behar dugu"

JAVIER CORVAL | LEHENDAKARIODEA

"Klubarekin aurrera egin behar dugu, Manolori zor diogu hori"

FERNANDO RASO | ENTRENATZAILEA

"Udalari proposamen mordo egiten zizkion; denak zentzuzkoak"

ANDER AGIRIANO | KIROL ZINEGOTZIA

"Etxean dut hamar urterekin Manolok eman zidan saskibaloigaraikurra"

PEDRO ITURBE | ALKATEA

"Partidu edo entrenamendu saioetan, hura zen jarraitzaile fidelena"

JON BARANDIARAN | JOKALARIA

'Baginaren bakarrizketak' antzezlanean sexualitateaz jardungo dute, gaur, Huhezin

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hileroko azken egubakoitzero bezala, antzerkia dago gaur gauean unibertsitateko kaperan. Txalo Produzioak konpainiaren *Baginaren bakarrizketak* antzezlan arrakastatsua ikusteko aukera izango da, 22:30ean. Kutxak bul-tzatutako ekintza horretarako sarrera debalde izango da.

Begoña Bilbaok zuzendutako obra hori 200etik gorako emakumeri egindako elkarrizketen emaitza da. Horretarako, adin, arraza, maila kultural eta sozialak hartu dira kontuan. Helburua da emakumeak bere sexualitatearekiko sentitu eta sentitzen dituen erru eta lotsa sentipenetatik libre geratzea. Hain justu ere, eztabaida

piztea, moldeak apurtzea, dinamika sortzea eta lotsarik gabe emakumeen sexualitatea argi eta garbi azaltzea bilatzen du.

Umorea tartean

Umorea, samurtasuna eta tarteka izua adieraziz, Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreek emango diete ahotsa istorio sare horretako emakume protagonistei, eta, haiek bezala, barrearen ondoan poesia eta probokazioa jarriko dute.

OHARRAK

ESKULANAK LUDOTEKAN

Pita eta alanbrearekin egindako animaliak egingo dituzte gaur, 16:30ean, ludotekan.

DANTZA LUDIKOAK

Dantza ludikoen gaineko saioa izango da bihar, 17:30ean, pilotalekuan.

KIROL HITZORDUAK

Euskal Ligako areto futbol par-

tidua dago bihar, 16:00etan, Eskoriatza eta Santurtzi artean. 18:00etan, senior mailako saskibaloiko norgehiagoka jokatuko dute etxekoek Bilintxen kontra.

KONTZERTUA ALDATZEN

Bihar, zapatua, Oñatiko Ez! musika taldeak kontzertua eskainiko du Aldatz tabernan, 22:00etan.

LENIZ
E S K O R I A T Z A

SUZUKI

KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



Rebeka Ubera, Miren Arregi eta Oxel Erostarbe, eguazteneko auzetxearen ondoren. | MIREIA BIKUÑA

Ordezkaritza lortzeko asmoz aurkeztuko da Aralar

Miren Arregi izango da alkategai maiatzaren 22an

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aralarrek badu zerrendaburua udal hauteskunderarako: Miren Arregi. Eta badu helburu zehatza: ordezkari lortzea. "Ziur gaude zinegotzi bat lortuko dugula", esan zuen eguazteneko aurkezpen ekitaldian. Ekitaldian egon ziren Aralar kide Oxel Erostarbe eta Rebeka Ubera.

Aralarrek "proiektu abertzalea eta ezkertiarra" aurkeztuko du Oñatin. "Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak. Egoera politiko berri honen aurrean, inoiz baino hurbilago egon beharko dugu", esan zuen Miren Arregik.

Aralarrek zinegotzi bat du oraingo agintaldian—Miren Arregi bera—, Oñati Ezkerretik koalizio kide izan dena Ezker Batuarekin eta Zutik-ekin. Euren asmoa da Aralarren proiektua sendotzea. "Aralar indartu egin gura dugu Oñatin. Hori da gure helburua: EAJ eta Haimakabati gehiengoa kendu gura diegu", esan zuen Oxel Erostarbek.

Miren Arregik eta Oxel Erostarbek esan zuen zerrenda osatzeko lanetan dihardutela: "Lanean gabiltza. Denbora dugu oraindik zerrendari azken zertzeladak emateko. Laguntza guztia onartuko dugu".

Oñati Ezkerretik koalizioa eten
Ezker Batuak, Zutik-ek eta Aralarrek osatzen dute Oñati Ezkerretik koalizioa. Lau urtean egin dute lan elkarrekin, baina udal hauteskundeetara banaka aurkezteara erabaki dute. "Orain dela lau urte elkarlanerako grinaz hasi ginen, baina Euskal herrian aurkezten zaigun egoera politikoaren aurrean, bide ezberdinak hartuko ditugu. Badakigu une askotan elkarrekin topo egingo dugula, ezkerren sustapenean lanean jardungo dugulako. Eskerrak gure proiektuarekin bat egin duzenoi", adierazi dute koalizio kideek ohar baten.



OÑATI HERRI PROGRAMA

Hauteskunde bulegoa zabalik

Zapatuan, hilaren 19an, zabaldu zuten Kale Zaharrek 14. zenbakian Oñati Herri Programako bulegoa. Herritar asko batu ziren inaugurazio ekitaldian. Hauteskunde bulegoa zabalik egongo da martitzenetan eta eguenetan 18:30etik 20:30era eta zapatuetan 11:30etik 13:30era.

Erretzen uzteko ikastaroa maiatzetik uztaile arte

Izena hilaren 29tik aurrera eman daiteke

M.B. | OÑATI

Udaleko Prebentzio Sailak, Hazkunde erakundearekin batera, erretzen uzteko ikastaroa antolatu du maiatzetik apirilera arte. Interesatuak izena eman ahalko dute hilaren 29tik apirilaren 16ra, 943 03 77 00 telefonoan (Ainhoa). Izena emate-rakoan, 75 euro ordaindu behar dira.

Eskolak emango dituzte maiatzaren 5ean, 12an, 19an eta 26an; ekainaren 10ean eta 24an; eta uztailearen 21ean. Guztiak hasiko dituzte 18:30ean kultura etxean, eta ordubete iraungo dute.

Parte-hartzaileak taldeka banatuko dituzte, eta erretzen uzteko teknikak erakutsiko dizkiete.

'Errautsak' antzezlanerako sarrerak salgai daude kultura etxean, arratsaldean, hamar eurotan

Artedramak, Le Petit Theatre de Pain-ek eta Dejabu Panpin Laborategiak *Errautsak* antzezlan eskainiko dute apirilaren 3an Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude kultura etxean. Astelehenean egubakoitzera eros daitezke, 16:30etik 20:30era arte, hamar eurotan. Lan horrek Donostia antzerki saria irabazi berri du.

Aloñako Zuhaitz Eguna: lizarrak landatuko dituzte domekan, hilaren 27an, Duru inguruan

Aloñako Gurutzearen Lagunak elkarteak, Natur Eskolaren laguntzarekin, Zuhaitz Eguna egingo du domekan, hilaren 27an, Aloña inguruan. 09:30ean elkartuko dira Duruko pistaren hasieran. 30 lizar landatzeko asmoa dute, eta boluntarioak behar dituzte. "Domekan gurekin etorri gura dutenak etor daitezela. Egun polita pasako dugu Aloñan", diote antolatzaileek.



Ikastolako ikasleak, egindako munduarekin, txantxikuarekin eta bi laixanekin, Altamira baserrian. | MIREIA BIKUÑA

Ikastolako ikasleak, naturarekin jolasean

Altamira baserriaren aurreko zelaietan egin zituzten artelanak Garaion Naturartearen elkartearekin

M.B. | OÑATI

Txantxiku ikastolako Batxilergo bigarren mailako ikasleak naturarekin jolasean ibili ziren

astelehenean, hilaren 21ean. Garaion Naturartearen elkarte kideek gidatuta, bi artelan egin zituzten naturako elementuekin.

Aurreko astean topaketa

Taldeetako batek mundua irudikatu zuen, txantxiku batekin eta bi laixanekin. Euren helburua zen aniztasuna erakustea. Beste taldeak naturaren erritmoa irudikatu gura izan zuen barraskilo handi batekin.

Altamira baserriaren aurreko zelaietan egin zituzten lanak. Aurreko astean topaketa egin zuten Batxilergokoan gelan, eta ideiak landu zituzten.

Autobuskada bat zale joango da bihar Gasteizera, Sustrai Aloña animatzera

Saskibaloitza taldeak Fundacion Baskoniaren kontra jokatuko du, 17:30ean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Zubikoa kiroldegiko kantxa bete egiten dute, eta bihar ez dute hutsik egingo. Sustrai Aloña Fundacion Baskoniaren kontra jokatuko du Gasteizen, Oizmendin, eta zale oñatiarrak han egongo dira: autobuskada bat irtengo da 16:15ean postetxe aurreko geltokitik.

ACBko etorkizuneko jokalariek

Biharko kontrarioaren gainean galdetu diogu Sustrai Aloña entrenatzaileari. Xabi Igartuak hauxe esan digu: "Puntu asko egiten dituen taldea da. Gaztea eta jokalaririk onak dituen; besteak beste; Bruesa, Van Oosmun, Ramon eta Diop. Kontuan hartu behar dugu Baskoniaren harrobiko taldea dela eta horietako batzuek, egunen baten, ACB ligan jokatuko dutela".

Dena den, gasteiztarrei aurre egiteko lan egin dute asteen. "Guk egin beharko duguna da defentsan fin ibili euren eraso geratzeko. Partiduari guri komeni zaigun erritmoa ipini. Horrekin guztiorrekin eta gure esperientziarekin gauzak zail ipiniko dizkiegu. Dena den, badakigu zaila izango dela; are zailagoa, etxetik kanpo jokatzen dugulako", dio Igartuak.



Ander Mallabi taulapean, jaurtiketa egiteko gertu. | JOSETXO ARANTZABAL

Jardunaldi interesgarria

EBARA igoera lortzeko dauden taldeek jardunaldi interesgarria jokatuko dute aste bukaeran. Oñatiarrek sailkapeneko bigarrenak-lagarrenaren kontra jokatuko dute. Hori gutxi balitz, liderrak,

Easok, hirugarrenaren kontra jokatuko du; hain justu ere, Lizuan. com-en kantxan. Emaizak kontuan hartuta, aldaketak egon daitezke sailkapenean. Informazioa gehiago www.basketbasko.com atarian.

OHARRAK

TELP TAILERRA

Txantxiku ikastolak antolatuta, hizkuntza mailako gatazkak konpontzen laguntzeko Valentzian sortutako TELP tailerraren oinarriak azalduko dituzte hilaren 30ean. EMUN elkarteko ordezkariak jardungo dute teknika berriaren gainean ikastolako aretoan, 18:30ean.

ESKI IRTEERAK

Eski sailak antolatuta aste bukaerako azken irteera egin dute Baqueirara. Denboraldia agurtzeko irteera egingo dute Pazko Astean alpeetara. Apirilaren 22tik 30era. Izena emateko astelehenetan eta eguazteten 19:00etatik 20:00etara, Aloña Mendi tabernan.

BETERANUAK

EMAITZAK, B TALDEA

The Gibel Boys-Zorrobero	1-0
Joxely-Txarrixak	1-0
Albok-Dollygans	0-4
Kalañatasaray-Xaguxar	2-4
Jai Ari-Ankarteko	0-4
Txuskos-Paketinaikos	6-1

PARTIDUAK, KOPA FINAL 1/8

Zapateria 16:00 Nandrolona-Etxaitx

PARTIDUAK, KOPA FINAL 1/4

Zapateria 20:00 Ankarteko-Txuskos

Domeka 13:00 Sasquatch-Lozoromo

SAILKAPENA, "A" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Joxely	3	1
2 The Gibel Boys	3	1
3 Zorrobero	0	1
4 Dollygans	0	1

PARTIDUAK, LIGA 1. TALDEA

Zapateria 13:00 Zorrobero-Txarrixak

Zapateria 14:30 The Gibel Boys-Joxely

Arduraduna liga: Gaur Bai

Arduraduna kopa: Dollygans

SAILKAPENA, "B" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Dollygans	3	1
2 Xaguxar	3	1
3 Kalañatasaray	0	1
4 Albok	0	1

GOLEGILE NAGUSIA.

'BERE' SARIA

Aitzol Guridi (Txarrixak) 18 gol

Karlos Gonzalez (Zorrobero) 13

Joseba Agirre (Txarrixak) 13

Jokin Biain (Lozoromo) 11

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Bidegorriaren lehen fasea inauguratu dute, ofizialki

Herrigunetik Ariztiberriraino tartea dago bukatuta; Lapurzubirainokoa behin-behinean dago zabalik

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Ia urtebetez bidea zabalik egon ostean, joan den martitzenean inauguratu zuten ofizialki Antzuolatik Bergararainoko bidegorriaren lehen faseko zatia. Zehazki, Antzuolako herrigunetik Ariztiberriraino doan zatia da lehen faseari dagokiona; Ariztiberritik Lapurzubira edo Galartzarako zubira doan bigarren faseko zatia behin-behinekoz dago zabalik. Zati hori asfaltatu gabe dago oraindik eta Beasain-Durango

autobideko lanak egin bitartean itxita egongo da. Autobideko lanak egin ostean berregingo da bidegorria, asfaltatuta eta argiak jarrita, zati hori amaituz.

Herrigunetik Lapurzubirainoko bidegorria 1.525 metro luze da eta hiru metro zabal ditu. Bidea egokitzeko hainbat azpiegitura-lan egin dira eta 538.000 euro inbertitu ditu diputazioak. Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatuak adierazi zue-

nez, "Debagoienean bidegorrien sarea osatzeko inbertsio handia egin du Foru Aldundiak".

Bidegorria, berandu

Pedro Iturbe Antzuolako alkatea, ordea, ez zen Ormazabal diputatua bezain baikor azaldu. Antzuolako alkateak adierazi zuen bidegorria berandu iritsi dela eta oraindik ikusteko dagoela zer gertatuko den egin gabe dagoen zatiarekin.



Pintorea lanean, parrokiaren barrualdean. | USOA AGIRRE

Azken txukunketa lanak egiten, berrinauguraziorako

U.A. | ANTZUOLA

Hasiera baten martxoaren 19rako aurreikusita bazegoen ere, azkenean eliza berrituaren inaugurazioa apirilaren 16an, Erramu Zapatuan, egingo da. Inauguraziorako azken ukituak falta dira eta horretan ari dira egunotan: pintaketa lanak egiten, egurrarendako tratamendua ematen eta organoa garbitzen, besteak beste.

Elizako berritze lanen bigarren fasea da orain amaitzen dagoena. Lehenengo fasean erreteila, arkupeak eta kanpandorra berritu zituzten eta bigarren fase honetan barruko lanak egin dituzte: argiteria eta berogailua berritu; koruko egitura eta zorua konpondu; hormak atzera margotu; eta elementu artistikoak garbitu egin dituzte. Horrez gain, sakristia eta korurako pasadizoa ere berritu dituzte; komun berria jarri dute bertan.

Bigarren fase honetako lanek 700.000 euro inguruko kostua izan dute.

Ate irekiak

Apirilaren 16ko inauguraziora begira ari dira parrokiako taldean antolaketa lanetan. Iluntzean elizkizuna egingo da eta apirilaren 16 eta 17ko aste bukaeran eliza zabalik egongo da bertan egin diren lanak ikusi nahi dituzten herritar guztiendako. Eliza barrutik nola geratu den ikustez gain, lanek izan duten eboluzioaren erakusketa ere jarriko dute eta lanen berri jasoko duen liburuxka banatuko dute.

Inaugurazioan ikusi ahal izango dute herritarrek duela 25 urte Donostiako Elizbarrutiko Museora eramandako erre- taula. XVI. mendearen bukarako, eta pulpitua ondo horman jarriko dute.

Begararaino, araztegiarekin

Aurten Beasain-Durango autobideko lanak hasten direnean itxi egingo da Ariztiberritik Lapurzubirainoko tartea eta lanok bukatu ostean asfaltatuko da. 30 hilabeteko epea dute autobideko zati hori bukatzeko.

Bidegorriaren azken fasea -Lapurzubitik Bergararaino- araztegi- lanekin egingo da. Ormazabalek adierazi zenez, "2012 edo 2013rako" bukatuko da.



Jose Mari Iturbe, Carlos Ormazabal eta Pedro Iturbe. | USOA AGIRRE

Dantza latindarrak ikasteko aukera egongo da eguaztenetan

U.A. | ANTZUOLA

Salsa, merengea, txa-txa-txa eta beste zenbait dantza latindar ikasi ahal izango dira Antzuolan Lidice Abreu irakasle venezuelarraren eskutik. Dantzari, koreografo, dantza irakasle eta zinemagilea da Abreu eta antzuolarrak kultura latindarrerara gerturatzen

saiatuko da dantza ikastaroaren bitartez.

Martxoaren 30ean hasiko da eta ekainaren 1era bitartean bilduko dira, eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean, Torresoroan. Aste Santuan geldialdia egongo denez, hauek izango dira egunak: martxoak 30; apirilak 6

eta 13; maiatzak 4, 11, 18 eta 25; eta ekainak 1.

Izenematea

Ikastaroan parte hartzeko, beraz, lehenbailehen eman behar da izena; martxoaren 29a izango da azken eguna. 40 euro kostako da ikastaroa eta Udaleko Kultura Sailera jo behar da izena ematera (telefonoz deituta edo bertara joanda). Dena dela, www.antzuo- la.com webgunean ere badago izena emateko modua.

OHARRAK

UZARRAGARAKO IGOERA

Bihar, zapatua, txirrindulari lasterketa egingo da herrian: 36. Uzarragarako igoera. 16:00etan irtengo dira txirrindulariak Olaranetik eta, 72 kilometro egin ondoren, 18:00ak aldera iritsiko dira Uzarragara. Gazte mailako 100 bat txirrindularik parte hartuko dute; baita Espainiako selekziozko zenbait neskek ere.

HERRI BATZARRA

Ezker abertzaleak herri batzar irekia egingo du bihar, zapatua, 12:00etan, Olaranen.

KZGUNEA

Datorren astean martitzenean, hilaren 29an, egongo da tutorea KZgunean. 16:00etatik 20:00etara bitartean, ordenagailuen eta Interneten gaineko ikastaroak egin ahal izango dira bertan.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Zabalo eta Mendizabal irabazle Debagoieneko punttu txapelketan

Ibarreko erretiratu elkarteetako 65 bat lagun elkartu ziren astelehenean Arrasaten mahai-joko txapelketa egiteko. Antzuolako ordezkariak ere izan ziren eta puntuan Juanita Zabalok eta Mari Kontxi Mendizabalek irabazi zuten. Legazpi, Zumarraga eta Urretxuko ordezkarien kontra jokatu dute, txapelketan aurrera egin ahal izateko.

Erditze osteko gimnasiaren gaineko hitzaldia eta ikastaroa

Erditze osteko gimnasia emango ditu Miren Galdos oñatiarrak gimnasioan, eta, aurretik, saio horien gaineko informazioa emateko hitzaldia antolatu dute. Martxoaren 31n, eguna, izango da hitzaldia, 18:30ean, Olaranen. Bertan, informazioa ematez gain, ikastaroaren ordutegia eta egutegia ere adostuko dira.

Udaberri txapelketako finala galdu zuten Mansok eta Alberdik

Joan den egubakoitzean Urnie-tan Biarritzarrak taldeko pilotarien kontra jokatu zuten finala 35-19 galdu zuten. Iker Mansok kontatu digunez, jokoan ez zen horrenbesteko alderik egon, baina ez zuten asmatu sakean eta urduri jokatu zuten: "Horrexegatik atera ziguten alde hori mar-kagailuan".

Futbol talde nagusiak Euskaldunaren kontra jokatu du Andoainen

Bihar, zapatua, 16:00etan, Andoingo Urbitarte futbol zelaian jokatu dute Euskaldunak eta Antzuolak partidua. Infantiletan, neskek Aitzgorri Goierri taldearen kontra jokatu dute zapatuan, 11:30ean, Seguran. Eta mutilek, Mundaizen kontra jokatu dute zapatuan, 11:00etan, Donostian.

Juanjo Bezina | Aramaioko Korrika batzordeko kidea

"Harro egon gaitezke, munduan ez da halakorik"

Korrika "beharrezkoa" dela uste du Bezinak eta halako ekimen bat antolatzea lan mardula dela dio: "Askotan lan horretaz ahaztu egiten gara"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Korrika modu berezian bizi du Juanjo Bezinak (Gasteiz, 1963). Horren adibide garbia da bere Iturrieta sagardotegiko txotx denboraldiaren hasierarako gonbidatua Korrika izan zela. Korrika Kulturean sagardotegia areto bihurtuko du apirilaren 8an, izan ere, Malatu taldeak joko du bertan, afarien ostean (22:30).

Nortzuk osatzen duzue Aramaioko Korrika batzordea?

Deialdi zabala egin zen AEKarekin partetik: Udaleko ordezkari bat, Txirritola euskara elkarte, gurasoen elkarte, pilota taldea eta Gazte Asanblada daude ordezkaria. Eta gero ni partikular moduan, izan ere, aurtengo txotx denboraldiaren hasierako gonbidatua Korrika izan da.

Martitzenero elkartzen gara Kultur etxean eta ideia da Korrika Aramaiotik pasa behar deneko guztia gertu izatea, baina aurrez ere herria girotzen joatea. Izan ere, Korrika ez da pasatzen den pare bat minutuko kontua, oso garrantzitsua da aurrez girotzeko lana egitea.

Eta batzordeko kide izanda sagardotegian bertan zerbait antolatzea erabaki zenuen, ezta?

Hala da. Uda alderako kontzertu bat antolatzekotan nabilen eta Korrika datorrela eta sagardotegira etorriko den Gasteizko Malatu taldekoak lagun ditudala aprobetxatuz, kontzertua aurreratzea erabaki nuen. Apirilaren 8an izango da, 22:30ak aldera, afariak eman ostean.

Zergatik sartu zinen batzordean? Aramaioko batzordean lehenengo aldia da sartzen naizela baina aurretik ere Gasteizen egin izan dut lan Korrikaren alde. Nire bizitza oso lotuta egon da betidanik euskararekin eta bereziki



Juanjo Bezina asteon, Iturrieta sagardotegiaren atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

"Atzerritarrak harrিতuta geratzen dira; mundiala da eurendako"

"Saiatu gara egitarau polita eta parte-hartzailea prestatzen"

AEKarekin. Korrika oso gertutik bizi dut, beharrezkoa den ekimen garrantzitsua da. Ezberdina da, gainera. Beti errepikatzen dut: kanpo harremanetarako lanean aritu izan naiz eta atzerritarrek harrিতuta geratzen ziren Korrikarekin. Hizkuntz egoera antzekoa bizi duten herrialdeetatik etorri izan direnean, espektakulu edo esperientzia mundiala iruditua zaie. Eta gu harro egon gaitezke halako ekimen aitzindari bat gauzatu izanaz, munduan ez dago -eta halako beste adibiderik.

Horrez gain, konturatu behar gara Korrika moduko ekimen bat aurrera ateratzea asko kostatzen dela, askotan ahaztu egiten dugu eta.

Aramaiotik bederatzik kilometro egingo ditu Korrikak.

Bai. Apirilaren 14an etorriko da Arrasatetik, 12:00ak aldera. Ibarrik pasako da Azkoaga eta Untzillarako noranzkoan, Aretxabaletarantz. Kilometro guztiak saldu ditugu dagoeneko -bakoitza 400 eurotan saldu dira-, Udalaren eta kultur taldeen artean, bereziki.

Apirilaren 9rako jai berezia antolatuz duzue. Zein da helburua?

Saiatu gara egitarau erakargarria eta parte-hartzailea prestatzen, eguraldiak uzten badigu, kalean ospatzeko egun bat. Helburua da Korrika heldu aurretik herritarrak girotzea eta parte hartzera bultzatzea.

Jaurlaritzak itxitzat eman arren, Aldundiak lanean segiko du gasaren auzian

Arabako kaltetuen plataformak protesta egingo du bihar Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazan

J.B. | ARAMAIO

Eusko Jaurlaritzak itxitzat eman zuen joan den astean Aramaion oraindik ere bolo-bolo dabilen gasaren auzia. Gobernuak asteon eskatu dio Iñaki Nafarrate Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreakaren diputatuari kexen inguruan agertzen ari den "jarrera arduragabea" aldatu eta alarma soziala sortzeari utz diezaiola. Jaurlaritzaren arabera, laborategi independente batek aztertu du gasaren kalitatea eta emaitzek diote "egokia" dela.

Arazo teknikoa frogatzea, zaila Aldundiak, baina, ez du kasua itxitzat ematen. Fakturen igotzea eman zenean Arabako zenbait alkatek Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailera jo zuten laguntza eske baina ez zuten erantzunik jaso.

Hala, Aldundira jo zuten; bilerak egin zuten 26 alkatek Nafarratekin. Bilerak hartan Diputazioak babes juridikoa eskaini zien alkateei, besteak beste, Udalendako eta herritarrendako erreklamazio ereduak emanda. Gero, lau alkatez osatutako batzordea eratu zen; sentsibilitate ezberdineko alkateak aukeratu zituzten. Esaterako, Asier Agirre ezker abertzaleko Aramaioko alkatea eta Ignacio Gil Oribe PPko Labastidako alkatea. Bada, Nafarrateren arabera, Jaurlaritzak ez zuten onartu alkateen batzordearekin elkartzea, eta diputa-

tuarekin eta haren zuzendariarekin soilik elkartu zen: "Herritarrengandik gertuen dauden alkateekin ez batzea euren jarduna gutxiestea da, euren hitzari sinesgarritasuna kentzea", uste du diputatuak.

Jaurlaritzak Repsolekin arazorik ez zegoela azaldu zion Nafarrateri, hots, auzia itxitzat jotzen zutela. Nafarratek, "jarrera hori" ikusita, Repsolekin bilera deitu zuen, alkateen batzordearekin batera. Arazoren bat badago non egon daitekeen jakiteko txosten bat eginen dihardute. Hala ere, arazoa teknikoki frogatzea "oso zaila" dela uste du Nafarratek, honezkeroko deposituak bete dituztelako. Baina, era berean, erreklamazioa jartzea "oso garrantzitsua" dela deritza: "25 kexa direla diote; bada, ikusiko dute milaka kasu direla", dio.

Bestalde, kaltetuez osatutako plataformak kontzentrazio deitu du bihar, Gasteizko Andra Maria Zuriaren plazan, 11:00etan.

ESANAK

"Alkateekin ez batzea euren jarduna gutxiestea da"

IÑAKI NAFARRATE | TOKI ADMINIS. ETA LURRALDE OREKARAKO DIPUTATUA

Aramaio eta Arrasateko "historia txikia" ezagutzera emateko bloga egin du Velez de Mendizabalek

Hots begi danbolinak jarri dio izena Jose Mari Velez de Mendizabalek aurtun abiarazi duen blogari. Arrasate eta Aramaioko "historia txikia" ezagutzera emateko "espazio xumea" izan gura du blogak eta urtarriletik hona hainbat artikulu interesgarri eskegi ditu; *Aramaixo* kofradiaren barne aldizkaria hizpide duena, esaterako. Honako hau da blogaren helbidea: <http://txemax3.blogspot.com>.



Blogaren azalaren irudia. | GOIENA

Finalaren atarian, orain artekoarekin "oso pozik" dira Arabako bertsolari txapelketaren antolatzaileak

Apirilaren 2an jokatu da Arabako bertsolari txapelketaren finala Gasteizko Printzipal aretoan, prentsurrekoa martxoaren 29an egingo dute, finala jokatu den leku berean (11:30). Ander Solozabal, Manex Agirre, Zigor Enbeita, Iñaki Viñaspre, Asier Otamendi eta Oihane Perea finalistak izango dira bertan. Antolatzaileak "oso pozik" dira txapelketak orain arte eman duenarekin: "Inoiz baino bertsolari eta entzule gehiago izan dira", jakinarazi dute.

Korrika Kulturala: musika, dantza eta bertsoa nagusi, jatekoaz eta edatekoaz

Korrika Kulturalaren ekitaldiak apirilaren 8an eta 9an egingo dira Aramaion. Apirilaren 8an eta Juanjo Bezinaren eskutik, Iturrieta sagardotegian Malatu taldeak joko du, 22:30ean hasita. Musika lasaia da, afalosterako ezin aproposagoa. Jai nagusia, baina, hilaren 9an izango da Ibarra auzoan. Bi gune egokituko dituzte: bata Herriko plazan, eta bestea goiko taberna eta Kultur etxearen inguruan. Hasteko, Sastiñan, 18:30ean hasita, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen saioa egongo da. Gero, plazan, 19:00etatik aurrera, dantza eta musika izango dira nagusi.

Jatekorik eta edatekorik ez da faltako: Oilgor ehiza eta arrantza taldearen eskutik basurde pintxoak dastatzeko aukera egongo da eta ardoa ez da faltako. 20:00ak aldera txistularien konpainiaz plazatik kalejiran gorantz egingo dute, goiko tabernetarantz. Bertsolariak izango dira bertan eta antolatzaileek aurreratu dute guztiak herrikoak izango direla. Azkenik, Korrika pasako den ibilbidea ondo apainduko dute hilaren 9an.

ELGETA

Aldundiak hobekuntzak agindu ditu garraio publikoan

Eibarrera egunean hiru zerbitzu gehiago eta Bergarara taxi-bus zerbitzu hobe

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolamendurako foru diputatu Arantza Tapia Elgetan izan da. Oxel Erostarbe alkatearekin batera garraio zerbitzu publikoan Aldundiak eta Udalak adostutako hobekuntzen berri eman du.

Agindu dute Eibarrera egunean hiru zerbitzu gehiago emango direla: gaur egun bi dira, eta bost izango dira. "Diputatu Kontseiluak martxoaren 8an eman zuen oniritzia", esan du Tapiak. "Hilabeteak eman ditugu Aldundiarekin negoziazioetan eta agintaldi amaieran iritsi da akordioa", esan du Erostarbek. Erabakitze-ko dago orain zein enpresak emango duen zerbitzua.

Bergarara, taxi-busa

Oraindik guztiz lotuta ez egon arren, bi ordezkariak Elgeta-Bergara zerbitzurako lantzen ari

diren proposamena aurkeztu dute. Tapiak aurreratu duenez, Aldundiak taxi-bus zerbitzuarekin lotu nahi ditu Elgeta eta errepide nagusian ipiniko duen bus azkarraren zerbitzua. "Orduetegi fin-

koak izango ditu, baina eskaririk izango da", azaldu du Tapiak. Hala, erabiltzaileak telefonoz deitu beharko du zerbitzua behar duela adierazteko eta soilik erabiltzaileak daudenean



Oxel Erostarbe eta Arantza Tapia eguaztenez Elgetako bus geltokian. | L.Z.

emango da zerbitzua. Eskaria egiteko ezinbestekoa izango da Lurraldebus txartela izatea, eta txartelak eskaintzen dituen deskontu guztiak aplikatuko dira. "Orain dagoen zuloa beteko genuke", adierazi du Tapiak.

Erostarbek arratsalde herri-kanpo jarduerak egiten dituzten neska-mutikoendako ikusten du interesgarri proposamena. Aldundiaren asmoa da taxi-bus zerbitzua lehenengo Errezil, Beizama-Aizarnazabal linean ipintzea. Emaizta onak ematen baditu, orduan Elgetan ipiniko dute.

Erantzuna, funtsezkoa

"6-8 hilabeteen herritarrek emandako erantzuna aztertuko dugu", ohartarazi du Tapiak, eta argi esan du erantzun horren araberrako egokitzapenak egingo dituztela. "Helburua da ikasturte hasierarako bi zerbitzuak martxan egotea", gaineratu du. Tapiaren esanetan Aldundian argi dute zerbitzua jartzeko ahalegina egin behar dutela, "batez ere errepide nagusietatik kanpo dauden herrietara, bestela herritarrek ez dute garraio publikoan sinetsiko eta ondorioz ez dute erabiltzeko ohitura hartuko".

NIRE USTEZ

BEATRIZ ZABALONDO



Gauza onik ez

Esku artean (izan) dut Tony Judt historialariaren *Algo va mal* liburua. Autore britainiarrak behin eta berriro aipatzen du iragana ezagutu behar dela eta gaurko galderak testuinguru egokian kokatuta egin, etorkizunari begira jartzeko. Ezin da aurrera egin, gaur garena eta bihar izango garena izateko, historian gauzak nola gertatu diren jakin barik.

Azken hogeitaka urteotako bizimodu "zoroa", zerk eragin du? Eta nora ekarri gaitu? Galderak ahelik eta zehatzen planteatu behar direla diosku Judtek; belaunaldi berrientzat nolako etorkizuna nahi dugun amesteko, pausatu, denbora hartu, eta arazoak ondo zedarrizteko ariketa egin: zer nahi dugu? Zenbateko ahalegina egiteko prest gaude? Zer egiteko gauza gara?

Hemen bertan, gure guraso eta aitaita-amamak, gerra, gosea eta miseriak pairatu ondoren, gure etorkizuna eraikitzeke lanean aritu ziren. Non eta zeren truke ahaztu ditugu haien auzo-lanak, haien eskaerak euren umeak eskolatuak izan zitezen eta eurak baino ikasiagoak? Non ditugu haiek erakutsi zizkiguten bizi-balioak, hizkuntza eta kultura?

Oinordetzan utzi ziguten ametez betetako kutzarekin, ez dakit gauza onik egin dugun.

Garbi galdetu eta garbia-erantzun behar dugu: gaurko zirkunstantziarekin, hauxe da irudikatzen dugun bidea eta hola planteatu dezakegu. Garaiz gabilta oraindik.

"Zer nahi dugu? Zenbateko ahalegina egiteko prest gaude?"

150 sinaduratik gora pediatria zerbitzuan hobekuntzak aldarrikatzeko

A. TXINTXURRETA - L.Z. | ELGETA

Oraindik ere sinadura gehiago batu nahi dituzte eta interesa dutenek aukera izango dute horretarako. Zapatuan udal ordezkariak mahaia ipini zuten Ozkarbiupean eta gura izan zuten herritar guztiak aukera izan zuten zerbitzua hobetzeko eskakizunari babesa emateko.

Orduetegi zabalagoa helburu

Kontroletarako soilik eta astean bi ordu; hori da egun pediatria zerbitzua. "Eskatzen dugu astean zehar ordu gehiago edukitzea", esan du Ana Gillegi zinegotziak. "Bergarara joan behar izaten dugu eta garraio zerbitzua hemen ez da onena. Autorik izan ezean, gaizki".

Disko festa, bertso jaialdia, hitzaldia eta zinema emanaldiak Euskararen Astean

L.Z. | ELGETA

Astelehenean abiatuko du Udalak Euskararen Astea. Eguaztenez, 19:30ean, hitzaldia egingo du Alberto Telleriak, eta 21:30ean zinema emanaldia egongo da Espaloian. Barikuan, 15:00etan, Korrika Txikia abiatuko da eskolatiko eta 21:30ean Oihan Vegak disko festa egingo du antzokian.

Goi mailako bertso jaialdia

Zapatuan 17:00etan zinema emanaldia egongo da eta 22:30erako bertso jaialdia dago iragarrita. Maialen Lujanbio, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Anjel Mari Peñagarikano izango dira Espaloian. Gaur banatuko dituzte etxez etxe egitaraua eta okasiorako ateratako txapak.

III. FRONTENIS TXAPELKETA

AZKEN JARDUNALDIKO EMAITZAK

Maidier Osa-Anartz Agirre/Idoia Serna-Mikeldi Garmendia	25-20
Haritz Gallastegi-Eriaut Arantzeta/Ibon Untzetabarrenetxea-Asier Untzetabarrenetxea	25-17
Ander Gorosabel-Mikel Arkarazo/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	25-22
Mikel Beretxinaga-Iñaki Olaortua/Andoni Elortza-Eneko Maguregi	25-19

BIHAR, ZAPATUA, 17:30EAN

Andoni Elortza-Eneko Maguregi/Ibon Untzetabarrenetxea-Asier Untzetabarrenetxea

OHARRAK

GAZTETXEA TXUKUNTZEN

Auzolanean konponketa eta txukuntak lanak egiten jarraituko dute gatzetxean. Zapatuan eta domekan, 10:00etan.

MENDI IRTEERA

Zabalik jarraitzen du izenemate epeak Ozkarbi mendi taldeak apirilaren 10erako Amaña alde-ara antolatu duen mendi irteeran parte hartzeko.

'HERRIXA DANTZAN'

Domekan Jainaga eta Narbaitzaren trikiti doinuekin egingo dute *Herrixa dantzan*. 19:00etan elkartuko dira Espaloian.

PAPIROFLEXIA TAILERRA

Apirilaren 9rako antolatu du Udalak. Mari Joxe Azurtzak gidatuko du. Bi talde egingo dituzte: 16:00-18:00 eta 18:30-20:00. Udaletxean eman behar da izena.

LEINTZ GATZAGA

Batzar orokorra egingo du Toki Eder erretiratuen elkarteak bihar

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Toki Eder elkarteak batzar orokorra du bihar, hilak 26, elkartean bertan (17:00). Iazko diru kontuak eta egitaraua berrikusiko dituzte, eta datorren ikasturtekoak aurkeztu ondoren. Orain arte antolatutako ekimenak jarraitze-ko asmoa dute; hau da, urtean irteera bi-udaberrian eta udaz-

kenean-, karta-joko txapelketa eta Gabon inguruko ekitaldia.

Bestalde, zuzendaritza batzordeko hainbat kide uzteko gogoz daude, urte asko daramatzate eta lanean, eta boluntarioak eskatuko dituzte aldaketarako. Pedro Mari Elkorobarrutia presidente duen batzordeko bost kideetik bi aldatzea da asmoa,

baina horretarako boluntarioak behar dituzte. Agertu ezean, beste bideren bat pentsatzen hasiko dira aldaketa egiteko. Batzarra bukatu eta gero merienda egingo dute elkartutakoek.

Briskan gatzagarrak nagusi

Astelehenean mahai-joko txapelketa jokatu zuten erretiratuek Arrasaten eta Maritxu Plazaola eta Beni Altube gatzagarrak izan ziren nagusi briska jokoa. Hurrengo kanporaketa Legazpin jokatu dute Urolakoan aurka.

Kadeteen, gazteen eta seniorren pilota partiduak domekan

Martxoaren 13an hasi zuten Leintz aldeko pilotariak Dorleta pilota txapelketa Gatzagako pilotalekuan, eta orain-ago domekan, hilak 27, kadeteen, gazteen eta seniorren partiduak izango dira (09:00). Hain zuzen ere, txapelketako lehen saioa izango dute horiek eta hilabetearen partidu bakarra jokatu dute.

Dinamizatzailea izango da astelehenean KZgunean

Aitor Madrid dinamizatzaileak KZgunea zabalduko du astelehenean, hilak 28 (16:00-20:00), eta hainbat ikastaro eskainiko ditu. Gehienak bi ordukoak dira: sare sozialak zer diren, Google tresnak zelan erabili... Interneten ezagutza orokorren gainekoa ere badago; hain zuzen, hori egiten dabilta hainbat herritar.

FUTBOLA



Eguaztenean aurkeztu zuten Intxortako Lehoiak lagunartea; ekitaldian ez zen jokalaririk egon

Athletic zorretan dago Elgetarekin

Jokalaririk etorri ez zen arren, herriko neska-mutikoak euren taldeaz harro agertu ziren. | XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI | ELGETA

Hiru urte eta erdiko lanak eguaztenean eman zuen fruitua, Athleticen lagunartea Intxortako Lehoiak taldea aurkeztu zuten-eta. Bertan izan ziren taldeko ordezkariek -38 dira guztira- eta baita Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat lagunartetako ordezkariek ere -Bilbotik ia 100 lagun joan ziren-. Aurkezpenean egon ziren, baita ere, elgetar asko, tartean gaztetxo koadrila polita. Eta, hain

zuzen, gaztetxo horiek euren jokalaria mirestuak agurtzeko, sinadurak eskatzeko eta eurekin batera erretratuak ateratzeko gogoz geratu ziren, ekitaldira ez zen-eta jokalaririk joan.

Athleticeko kanpo harremanetarako arduradun Javier Uchari egokitu zitzaion aurpegia ematea, eta halaxe egin zuen. Ekitaldiaren hasieran barkamenak eskatu zituen lehenengo, eta ondoren, Elgetan sinadura jardunaldi

bat antolatzera konprometitu zen. Hau da, Intxortako Lehoiek eskatzen dutenean, Athleticen jokalariek Elgetara joango dira, euren zaleekin egotera.

Ekitaldiarekin aurrera

Jokalariek etorri ez izanak goitik behera baldintzatu zuen taldearen inaugurazio ekitaldia, baina elgetarrak ez ziren behera etorri. Ekitaldia berdin-berdin egin zuten, Athleticen jokalaria historiko

batek, Karmelo Cedrunek, hartu zuen gaztetxoekin egoteko -eta kamisetak sinatzeko- ardura, eta taldea ofizial egitearekin batera posterrak eta Athleticen intsigniak banatu zituzten guztien artean. Ondoren, afaria egin zuten.

Hala, ekitaldiko aurkezle Haritz Gallastegik esan zuen moduan, zaleak dira talde zuri-gorriak duen onena. Elgetako moduko zaleak.



FELIX IRIZAR
PEÑAKO PRESIDENTEA

"Batez ere haurrengatik hartu dugu pena"

"Ikustea baino ez dago, haurrak sinaduren atzetik dabilta, eta jokalaririk etorri ez izana penagarria izan da. Baina gertaera mordo egon dira batera; gu ahalegindu gara, baina ez da posible izan".

Intxortako Lehoiak taldea duela hiru urte eta erdi hasi zen taldea osatzeko eta ekitaldia prestatzeko lanean: "Taldea zuen aurrekontu guztia ekitaldi honetan joan zaigu, eta lagunartea moduan lehenengo bidaia egiteko apur bat itxaron beharko dugu".



HARITZ GALLASTEGI
KAZETARIA

"Errespetu falta izan da. Sarri esaten da zaleak direla Athleticen indarra, eta gaur berretsi da hori. Lehen mailako zaleak ditugu, eta bigarren mailako zuzendaritza eta jokalariek".




KARMELO CEDRUN
JOKALARI OHIA

"Pena handia hartu dut, gaztetxo hauengatik, batez ere. Alavesen lagunartekoa, Txutxi Aranguren hileta elizkizuna... Baina ni konprometitu egin nintzen, eta hemen naiz".



JAVIER UCHA
ATHLETICEKO ORDEZKARIA

"Gertaera mordo egon dira, eta ez dugu behar den moduan erantzun. Eskerrak eman, eta barkamenak eskatu nahi ditut. Jokalariek etorriko dira Elgetara, hori agindu diet peñakoei".



TOMAS BRIONES
BIDEBIETA PEÑAKO PRESIDENT.

"Basauritik etorri gara bost lagun, Elgetako taldeak gonbidatuta, eta esker ona adierazi nahi diegu. Caparros ez da ondo portatu, hark eragotzi dielako hainbat jokalariri hona etortzea".



JOSE MONTERROSO
INTXORTA TALDEKO KIDEA

"Jokalariek etorri ala ez etorri, guk berdinean jarraitu behar dugu lanean, kanpotik etorri diren gonbidatu guztien aurrean ezin dugulako kale egin. Haurrek eman didade pena handien".



BARRENENGUA
LANDETxea • ELGETA

taberna RUMBA
ARRASATE

ONATI TABERNA
ONATI

LARREA TABERNA
ANTZUOLA

BETI ZUREKIN!



MARTXOKO SARIAK

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA

Bidali KLUBA KAMISETA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



skunkfunk

LIBURU SORTA UMEENTZAT

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



PAMIELA

EUSKAL RIP-EN DVD-A

Bidali KLUBA DVD
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



goiena

ARGAZKI KAMARA

Bidali KLUBA KAMARA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



EROSKI

Goiena klubeko
kideentzako
Erremeixuak
DVD-aren eskaintza
berezia



~~10€~~ 8€

eta zure etxeko buzoian jasoko duzu

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

TXIRRINDULARITZA



Txirrindulariak 10:00etan abiatuko dira Bergarako plazatik. | GOIENA

Txirrindularitzako bi hitzordu asteburuan: Uzarragan bihar eta Gorlan domekan

Domekan amateur mailako ziklista onenak batuko dira Bergaran, Gorlako igoera jokatzeko

XABIER URTZELAI | BERGARA

Domekan (10:00) amateur mailako 23 urtez azpiko ziklista onenak batuko dira Bergaran, igotzailendako pentsatuta dagoen lasterketan. Eta onenak batuko direla diogu, iaz Gorlako mendatean podiumera igo ziren hiru gizon azkarrenak aurten profesionalentzat dabilta-eta: Jesus Herrada (Movistar), Pello Bilbao (Euskaltel) eta Mikel Bizkarra (Orbea).

Ez da erraza izango aurtengo probak iazkoak izan zuen emozioa izatea. Batez ere helmugan batu ziren ikusleek bizi izan zuten emozio hori; izan ere, Jesus Herrada eta Pello Bilbao sprint ezin estuagoa izan zuten. *Foto-finish*-aren faltan, antolatzaileak kazetari eta argazkilariei foto eske ibili ziren, Herradaren garaipena konfirmatuko zuen testigu grafiko bila. Helmugan, baina, Herrada izan zen besoak altxa zituena,

ez Bilbao, eta epaileek -nahiz eta Bilbaoren garaipenaren aldeko komentarioak egon- ontzat eman zuten aurten Movistar taldean lehiatuko den ziklistaren garaipena. Bilbao, berriz, ondo ikasi zuen lezioa; zalantzaren aurrean, badaezpada, besoak altxa. Domekan lasterketan ibarreko bi ordezkari izango ditugu: Debabarrena taldean dabiltzan Unai Rivero eta Unai Retolatza, hain zuzen ere.

FUTBOLA

Begararen laguntzaz, UDA laugarren postura salto egiteko gertu

Asteburuan Bergarak eta Aretxabaletak jokatu dute etxean. Aretxabaletakoek laugarren postura salto egiteko aukera izango dute, azken postuan dagoen Ordiziaren bisita izango dute-eta domekan (16:30). Garaipenarekin batera, baina, Bergarak mesede egin beharko die bihar, zeharka bada ere, Anaitasunari irabazita (17:00). Jaitsiera postuetatik aldentzeko partidua Aloñak izango du, Rote-taren zelaian. Mondrak ere atzean dagoen Zumaiakoren zelaian jokatuko du bihar, 16:00etan.

DUATLOIA

Beñat Arnaiz taldekako Espainiako duatloi txapelketan izango da

Iaz bigarren sailkatu ziren Lagunak-Saltoki taldeko mutilak, eta aurten iazko lana borobiltzera doazela onartu digu Aretxabaletako atletak: "Taldetik guztira sei taldekide izango gara, eta lau onenen denborak hartuko dituzte kontuan". Lasterketa Madrilen korrituko dute, duatloi sprint modalitatean. Horrekin batera, joan den astean selekzioaz Murtzian egindako lasterketa txarra ahazteko asmoz joango da Arnaiz proba: "Hasieratik ikusi nuen txispa falta zitzaidala".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GAZTEEN LIGA NAZIONALA
Aretxabaleta-Gernika
Zapatua, 15:45. Ibarra.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Bergara-Eibar
Domeka, 18:00. Ipintza.

OHOREZKO ERREGIONALA
Roteta-Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Herrera.
Zumaia-Mondra
Zapatua, 16:00. Aita Mari.
Bergara-Anaitasuna
Zapatua, 17:00. Agorrosin.
Aretxabaleta-Ordizia
Domeka, 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Orioko-Aretxabaleta B
Zapatua, 16:00. Mendibeltz.
Mondra-B-Urola
Zapatua, 16:30. Mojategi.

ERREGIONALA, IGOERA
Bergara-B-Asoleus
Domeka, 16:00. Ipintza.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA
Aretxabaleta C-Soraluze B
Zapatua, 18:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA
Hondarribia-Mondra
Domeka, 17:00. Ondartza.
Oartzun-Aloña Mendi
Zapatua, 15:30. Oartzun.

GAZTEAK, IGOERA
Arizmendi-Tolosa
Domeka, 16:00. Almen.

GAZTEAK, KOPA
Arizmendi-UDA B-Eibartarrak
Domeka, 12:00. Almen.
Aretxabaleta B-Bergara B
Domeka, 12:00. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK, IGOERA
Intxausti-Mondra
Domeka, 13:00. Donostia.

Amara-Berri-Arizmendi
Domeka, 11:00. Martutene.

EMAK. GAZTEAK, TXAPEL.
Intxausti-Bergara
Domeka, 11:30. Cesar Benito.

EMAK. GAZTEAK, KOPA
Aloña Mendi-Arizmendi
Zapatua, 18:15. Azkoain.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Santurtzi
Zapatua, 16:00. Eskoriatza.

GIPUZKOAKO BIGARREN M.
Gamon Natur.-Aretxabaleta
Zapatua, 16:00. Errenteria.

HIRUGARREN MAILA
Aloña Mendi-Pub Elorri
Zapatua, 16:00. Zubikoa.

GAZTEAK
Aloña Mendi-MCM
Zapatua, 12:00. Zubikoa.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Ford Mugarri-Corazonistas
Zapatua, 18:00. Iturripe.
Romo Indupe-Soraluze BKE
Zapatua, 18:00. Areeta.

EUSKADIKO EMAKUMEZKO
PREFERENTEA
Aloña Mendi-Aiala Zarautz
Zapatua, 17:30. Zubikoa.

TERRITORIALEKO KOPA
Hegialde-Auto-Izarraitz Aloña
Zapatua, 19:45. Legazpi.

FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK
Egia-Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Donostia.

Bergara-Beristain
Domeka, 12:30. Labegarieta.
Arrate Amaña-Bergara Soraluze
Domeka, 09:45. Ipurua.

ALDUNDI SARIA, KAD. GIZ.
Amenabar-Talleres Chapime
Zapatua, 19:15. Zarautz.
Soraluze BKE-La Bacaladera
Domeka, 11:00. Labegarieta.

ALDUNDI SARIA, KAD. EMAK.
Aiala-Aloña Mendi
Domeka, 11:00. Antoniano.
Urrietako-Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Urnieta.

SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA, IGOERA
Baskonia-Sustrai Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Gastiz.

LEHEN MAILA, JAITSIERA
Bide Bide Ibizu-MU
Zapatua, 18:00. Tolosa.

LEHEN MAILAKO SENIORRAK
Easo Berri-MU
Zapatua, 20:00. Donostia.

BIG. MAILAKO SENIORRAK
Baskoplastika-Sustrai Aloña
Zapatua, 20:00. Irun.
Soraluze BKE-Aldabe Irun
Domeka, 17:00. Labegarieta.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-STL Billintz
Zapatua, 18:00. Intxausti.

TXIRRINDULARITZA

UZARRAGAKO 37. IGOERA
Zapatua, 16:00. Antzuola.
Gorlako 37. igoera
Domeka, 10:00. Bergara.

KULTURA



Etor Telleria, Armando Llanos, Asier Agirre, Balentin Ibabe eta Garazi Heriz, martitzenean egindako prentsaurrekoan. | A.E.

Murugaingo indusketa lanak uztailean hasiko dituzte

- ▶ Aramaioko Udalak bultzatu du arkeologia jardueren proiektua
- ▶ Murugainen Burdin Aroko herrixka baten aztarnak daudela badakite

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aramaioko Udalak Murugainen arkeologia jarduerak egiteko proiektua aurkeztu du. Arabako Arkeologia Institutua eta Ondare Babesa arkeologia enpresak jardungo dute lanok egiten. Proiektuaren aurkezpenean, Asier Agirre alkatea, Etor Telleria Ondare Babesako kidea; Armando Llanos Arabako Arkeologia Institutuko kidea; Garazi Heriz AOBT elkar-

teko kidea; eta Balentin Ibabe 36ko gerra bizi izan zuen herritarra izan ziren.

K.a. 1000. urtea

Jakin badakite Murugainen Burdin Aroko herrixka baten aztarnak daudela. "Burdin Aroko herrixkaren harresia eta herrigunea berreskuratu eta, gainera, 36ko gerrako aztarnak berreskuratzea izango da helburua", azaldu zuen

Telleriak. Hala, bi aspektu horiek ezagutzea izango da proiektu arkeologikoaren xedea.

Lanok epe luzerako izango dira; izan ere, hainbat fasean egingo dituzte: lehenengo fasea datorren uztailean egingo dute. "Aztarnak bistaratu, birgaitu eta bisitariarendako ikusgai jarriko ditugu", azaldu du Telleriak. Indusketarako eremu handia hartuko dute: "Harresiaren zati bat, trin-

txerak eta baita barruko zati bat ere". Arkeologo profesionalek parte hartuko dute, baina gaineratu dute herritarrei zabalik egongo den proiektua izango dela; hala, auzolanean jarduteko aukera egon daiteke, adibidez.

Indusketarekin lortutako emaitzekin hurrengo urteetarako faseak definituko dituzte. Gainera, emaitzekin panel informatiboak jarriko dituzte, eta baita ibilbide markatu bat ere. "Paraleloki artxibo eta dokumentazio lana egin behar da, 36ko gerraren testuinguruan", gaineratu zuen Telleriak.

Aurreikuspen onak

Telleriak azaldu zuen "aurreikuspen onak" dituztela, orain arte Murugain moduko lekuetan egindako indusketetan emaitza onak lortu dituztela. "Jakingo dugu herrixka nola dagoen eginda, antolatuta, eraikita, fosarik zuen edo ez... eta zer inguratzen zuen. Baita, etxebizitzak aurkituz gero, zelakoak ziren eta eguneroko bizimoduaren aztarnak", azaldu zuen Ondare Babesa enpresako kidea. Bukatu zuen esanaz badaukatela zer aztertu, landu eta ikasi.

Arabako Arkeologia Institutua

"Proiektu garrantzitsua iruditu zaigu hasieratik, ondo antolatua", esan zuen Llanosek, Arabako Arkeologia Institutuko kidea. "Burdin Aroan Murugain gune garrantzitsua zen; gune garaia zen eta inguruaren kontrola bermatzen zuen; hala, ia 3.000 urte geroago, 36ko gerran, gune bera aukeratu zuten, inguru kontrolatzeko gune aproposa delako", azaldu zuen Llanosek. Araban horrelako 100 herrixka inguru daudela esan zuen: "Indusketek emaitza ezberdinak eman izan dituzte; guztietan errepikatzen dena lekuaren aukeraketa izaten da: leku garaiak".

Murugain ezagutu eta babestu

"Proiektu honen bitartez Murugain ezagutuko dugu, baina era berean baita babestu ere, aurrerantzean beste ezer ez jartzeko bertan; besteak beste, antenak", esan zuen Agirre alkatea.

Alkateak azpimarratu gura izan zuen 36ko gerra bizi izan dutenen ahotsa berreskuratzea eta informazio hori batzea ezin-

Gerra bizi izan zutenen ahotsa

Murugainen, Burdin Aroko herrixkako harresiak aprobetxatuta trintxerak egin zituzten 36ko gerran. Balentin Ibabe aramaiorrahari ibili zen, besteak beste. Gogoratzen du 18 eta 44 urte bitartekoak ibili zirela lanean: "Palarekin eta aitzurrarekin egiten genituen trintxerak", azaldu zuen. Gaineratu zuen Pako Txoroka zena ibili zela ingeniari lanetan, aginduak ematen. "1937ko martxoaren 31n jauzi zen Murugaingo frontea", esan zuen hark.



Balentin Ibabe. | A.E.

bestekoa dela. Horregatik, martitzeneko aurkezpenean Balentin Ibabe aramaiorra izan zen.

Gainera, lehenengo fasea Aramaioko lurretan egingo den arren, Arrasateko eta Aretxabaleako udalei proiektuaren parte izateko eskatu die alkateak. Proiektuan parte hartuko du AOBT elkarteak; diruz lagunduko dute eta herriko baliabideak ere eskainiko dituzte proiektua aurrera ateratzeko.

ESANAK

"Aztarnak bistaratu, birgaitu eta ikusgai jarriko ditugu"

ETOR TELLERIA
ONDARE BABESA ENPRESAKOIA

"Burdin Aroko herrixka ingurua kontrolatzeko gune egokia zen, garaia zelako"

ARMANDO LLANOS
ARKEOLOGIA INSTITUTUKOIA

"Proiektu honen bitartez Murugain ezagutu eta babestuko dugu"

ASIER AGIRRE
ARAMAIKO ALKATEA

DATUA

45.000

EURO

45.000 euro horietatik, 30.000 arkeologia institutuak jarriko ditu eta 4.000 AOBTK.

sane
fisioterapia zentroa
1. URTEURRENA

Ane Remedios Sanchez
Ane Coranti Gabilondo

Ibargarai 35
20570 Bergara
Tel.: 943 25 24 40
sanefisioterapia@hotmail.es

Ate irekiak!

Gimnasia abdominal hipopresiboa probatzea nahi?

Etor zaitetz doako klase batera, etor zaitetz ate irekietara!

Eguna: Zapatuan, martxoaren 26an, 11:00etan

Lekua: Migel Altuna Institutua BERGARA

Anima zaitetzte!





Zion Train aitzindaria izan da dub musikan, eta gaur egun liderra da. | GAZTEMANIAK

Dub sendoa eta zuzenean nahastua Oñatiko gaztelekuan entzungai

Kontzertua gaur izango da, 22:30ean, eta sarrera 7 euro kostako da

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Gaztemaniak ekimenaren barruan dub eta reggae musikaren erritmoekin dantza egiteko aukera egongo da gaur Oñatin. Britainia Handiko Zion Train eta Irungo Bad Sound System taldeek jardungo dute Gaztelekuko taula gainean, 22:30ean hasita. Kontzertua 7 euro kostako da.

Zion Trainen dub sendoa

Zion Train dub sendoa da, erabatekoa, zuzenean nahastua, rootsetik danceraio doana. Gaur Oñatin eskainiko duten kontzertua Euskal Herrian eskainiko duten lehen emanaldia izango da.

Neil Perchek 90eko hamarkadan sortutako sound systema da taldea, Britainia Handiko dub

musikan aitzindariak izan ziren; baita, duela 15 bat urtetik gaur arte, genero honetako liderrak ere. Zion Trainek underground kulturarekiko konpromiso estua du, eta mundu erdia zeharkatu du bere mezu positiboak dub itxuraz zabaltzen.

Zion Trainen remixen artean, Fermin Muguruzaren kanteekin lotutako zenbait daude: *Inkomunikazioa*, *Hau Dena...* 2010eko abuztuan *Rainbow Children* sin-

Zion Trainek gaur joko du lehen aldiz Euskal Herrian

glea atera zuten, *State Of Mind* diskokoa. 2011ko irailean kalderatuko dute disko berria.

Bad Sound System

Euskal Herriko sound system aktiboenetako bat da Bad Sound System taldea.

2006an, reggae eta sound system kultura Euskal Herrian, eta konkretuki, Bidasoa aldean ezagutarazteko asmoz, *Zuzak* sortu zuten. Hala, reggae eta bertako sound system saioak antolatzen hasi ziren.

Gaur egun irundarrak estudioan sartuta daude euren lan berria prestatzen. Laster argitaratuko dute disko berria; ea, gaur Oñatin betiko kantez gain, kanta berriak ere eskaintzen dituzten.

Musika erlijiosoa entzuteko era berria Ganbara abesbatzaren eskutik

Zapatuan izango da emanaldia, 19:00etan

A.E. | OÑATI

Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte abesbatzek proiektu berria aurkeztuko dute bihar, zapatua, Arantzazuko santutegian. *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu 2* izenburua du egitasmoak, eta asmoa da: "Musika sakroa ohikoa ez den estiloetan aurkezte", dio Aitor Biain abesbatzako zuzendariak. Horretarako, bi abesbatza oñatiarrekin batera hainbat musikaririk jardungo dute Arantzazun: Gorka Azkarate albokariak, Kristina Larrañaga baxu-joleak eta Unai Lopetegi bateria-joleak, besteak beste.

Kontzertuak, bi zati

Kontzertua bi zatitan banatuko dute: lehenengo zatian, *Media Vita* (M.McGlynn), *Ave Maria* (K.Sato) eta *Adiemus* (K. Jenkins) abestiak eskainiko dituzte; bigarren zatian, *Ave Maria* (D.Andreo), *Magnificat* (J.Elberdin) eta *Freedom Trilogy* (P.Halley)

Guztira, 70 lagunek jardungo dute Arantzazuko emanaldian. Estilo askotariko piezak joko dituzte, eta nabarmentzekoa da Karl Jenkins britainiarraren *Adiemus*. *The Songs of Sanctuary* diskoan grabatu zuten aipatutako abestia 90eko hamarkadan,

eta, ordutik, musika klasikoko disko salduenen artean dago.

Bakarlariak

Alboka, trikiti eta txalapartaz lagunduta arituko dira Ganbara Txiki eta Gazteko neska-mutilak. Bakarlari moduan Amaia Biain, Leire Zelaia eta Nere Ibarra ibiliko dira eta zuzendari lanak Aitor Biainek egingo ditu. 19:00etan izango da emanaldia.

ESANAK

"Musika sakroa ohikoa ez den estiloetan aurkeztuko da"

AITOR BIAIN | ZUZENDARIA

Elgetako Espaloian reggae doinuekin amaituko dute gaua

A.E. | ELGETA

Kutxa Kulturek gonbidatuta Iñaki Sagasta eta Ras Miguel & Tafari taldeek jardungo dute gaur Elgetako Espaloian. Taula gainera igotzen lehena Iñaki Sagasta aretxabaletarra izango da eta bide emango du gaua reggae doinuekin amaitzeko: Ras Miguel & Tafari taldearekin, hain zuzen. Emanaldia doakoa izango da, gaur, 22:30ean.

Irungo reggae taldea

Ras Miguel & Tafari 2004an sortutako taldea da, Irunen. Taldearen sortzailea Ras Miguel izan zen; eta, hura da abestien sortzailea ere.

Jamaikako reggae musikaren eta 60ko eta 70eko soul eta blues doinuek eragina nabarrena da talde irundarrean.

2007an argitaratutako *Sonitus* bilduman sartu zuten *Fuego* lehenengo singlea. Gaur egun, 2009an argitaratutako *Buscando una salida* lehen diskoa aurkezten jarraitzen dute.

Iñaki Sagasta aretxabaletarrak doinu akustikoak eskainiko ditu Espaloian. Lehenengo bakarririk jardungo du eta gero taldearen laguntzarekin.

Hortaz, Elgetako Espaloira joango direnek gaua reggae doinuekin amaitzeko aukera paregabea izango dute.



Ras Miguel & Tafari Mundumiran jo zuen 2009an. | JOSETXO ARANTZABAL

Aramaioarren artean Manex Agirre bakarrik sailkatu da Arabako bertsolari finalerako

A.E. | ARAMAIO

Agirre, Otamendi, Perea, Viñaspre, Enbeita eta Solozabal bertsolariak pasatu dira apirilaren 2an jokatu den Arabako bertsolari finalera.

Zigoitian jokatu den lehenengo finalerdian sailkatu zen zuzenean finalerako Agirre aramaioarra. Aramaion joka-

tutako finalerdian Asier Otamendik lortu zuen txartela; eta, Agurainen Zigor Enbeitak.

Gainerako hiru bertsolariak puntuazioaren arabera sailkatu ziren; hala, finaletik kanpo geratu dira gainerako bertsolari aramaioarrak.

Finala Gasteizko Printzipal antzokian izango da, 17:30ean.

Dagoeneko salgai daude apirilaren 3an Oñatin eskainiko duten 'Errautsak' antzezlanerako sarrerak

Apirilaren 3an, domeka, Oñatiko Santa Ana antzokian *Errautsak* antzezlan eskainiko dute Artedramak, Le Petit Theatre De Pain-ek eta Dejabu Panpin Laborategiak. Sarrerak dagoeneko salgai daude kultura etxean, 16:30etik 20:30era, 10 euroren truke. Igor Elortzak eta Unai Iturriagak idatzi dute antzezlan, eta protagonista nagusiak dira: Ander Lipus, Manex Fuchs, Ximun Fuchs, Miren Gaztañaga, Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo. Emanaldia Santa Anan izango da, apirilaren 3an, 19:30ean.

Jainaga eta Narbaiza trikitilariak zuzeneko saioa egingo dute 'Herrixa dantzan' ekimenaren barruan

Domekan, hilak 27, *Herrixa dantzan* dantzaldi irekia egingo dute Elgetako Espaloia antzokian. Hil honetako saioan, gainera, Jainaga eta Narbaiza trikitilarien zuzeneko emanaldia izango da. Hala, trikitilarien laguntzarekin Euskal Herriko dantza tradizionalak dantzatzeko aukera egongo da. Saioa 19:00etatik 20:00etara izango da, doan. Dantza gidari lanetan Patxi Montero ibiliko da. Errepertorioa handitzen dihardute, eta domekan ere dantza berriren bat ikasteko aukera egongo da.



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita.
- Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo sahieskiarekin).
- Bertako sagardoa.
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita

Jatetxe Gida



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauean 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.




Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Asier Kortabarria, Bilboko terraza baten, 'Breaking rules' fantzinearekin.

Asier Kortabarria | Ikaslea

"Kaskamotz izatea modan dago, baina musika hori benetan maite dutenek hor segituko dute"

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Asier Kortabarria (1992, Bergara) Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari da Leioan. Horrez gain, *Breaking rules* fantzinearen arduradunetako bat da.

Nola deskribatuko zenuke *Breaking rules*, zuen fantzinea?

Barduliako (Gipuzkoa) punk-oi! eszenaren inguruko informazioa eskaintzen du, baita elkarrizketa eta erreportajeak ere. Orokorrean, gure eszenaren inguruko zulo guztiak betetzen saiatzen gara; izan ere, musika estilo honetako talde, disko edota kontzertuek ez dute prentsan ia oihartzunik.

Nondik dator izena?

Fantzinea egin aurretik blog bat nuen izen berarekin, eta izenarekin jarraitzea erabaki genuen.

Berez, Eskoziako On File oi! taldearen abesti baten izena da.

Horrelako proiektuek, askotan, sorre bitxia izaten dute: parranda bat, arratsalde aspergarri bat lokalean...

Nola eta non jaio zen zuena?

Bai... Nik banuen ideia buruan, baina ez nekien nola atera aurrera. Orduan, egun baten, lagun bat auto batetik garrasika ikusi nuen, ea fantzine bat egingo genuen, eta, bueno, ba hementxe gaude.

Zeintzuk zaudete atzean?

Nik eta beste bergarar batek egingen dugu, eta kolaborazioak ere jaso ditugu Gipuzkoa osotik; egia esan, ezin gara kexatu. Ondo dago jende ezberdinak parte hartzea, ez soilik lana banatzeko, baizik eta dibertsitate handiagoa izateko.

Dagoeneko bizenbaki dituzue kalean. Zer moduzko erantzuna izan du?

Lehenengo zenbakiko ale guztiak saldu ditugu, eta erantzuna oso ona izan da. Bigarren zenbakia orain gabilta saltzen, eta, oraingoz, bide onetik doa. Orokorrean, eszenan zegoen hutsune bat bete dugu, ez zegoen-eta fantzinerik -lehenago *Bando Punk* eta *Odol-kids* zeuden- eta jendeak gustura hartu duelakoan nago.

Non eskura daiteke fantzinea?

Distribuzioa ez da gure fuertea, baina baditugu salmenta puntu finkoak: Bergaran Arranon eta gaztetxean; Bilbon Streetwarriors dendan; Donostiako Skizon eta Azpeitiko Txarrantxan. Bestela, kontzertuetan, edo e-postara mezu bat bidalita eskura daiteke: breakingrules@gmail.com.

Gipuzkoan jarraitzaile asko ditu punk-oi! musikak?

Bai, azken hamarkadan asko egin du gora, eta, egun, kontzertuetan jende asko ikusten da. Elgoibarren ospatu zen Holidays in Bardulia jaialdian 800 pertsona izan ziren. Pena da ez dagoela horrenbeste jende lan egiteko prest (taldeetan, irratian, fantzinean, kontzertu antolaketan...). Ea gazteak animatzen diren. Egia da, baita ere, kaskamotz edo punka izatea modan dagoela, batzuek urtebete pasata ez dute ezer jakin nahi, baina musika hau benetan maite dutenek hor segituko dute. Ikusiko dugu nola dagoen gauza urte baten buruan.

Astea Bilbon ematen duzu eta asteburua Bergaran. Bilbo ala Bergara?

Bakoitzak bere abantailak ditu; agian, Bergararen alde egingo dut. Azken finean, hor dauzkat koadrila, musika taldea, familia... eta eroso ibiltzen naiz. Hala ere, Bilbon oso gustura nabil.

Red District taldeko kide zara.

Bai. Taldea 2007an sortu zen eta punk-oi! musika egiten dugu. Hainbat geldialdi eta aldaketa izan ditu taldeak eta orain laukote moduan gabilta. Laster, gure kantu bat bilduma baten sartzea espero dugu.

Punk-oi! musika topatzea erraza da Bilbon?

Hemen ez dago Gipuzkoan dagoen batasunik, hainbat gatazka izan dira. Ez dago kontzertu askorik, baina, adibidez, denda aldetik nahiko ondo dago. Bestalde, ska musikaren inguruan jende eta talde gehiago mugitzen da Gipuzkoan baino.

Parrandarako ze leku gomendatuko zenuke Bilbon?

Ni neu Iturribiden ibili izan naiz. Oso merkea da, gazte giroa dago eta musika ez dago gaizki. Bestela, bertako jaietatik Deustukoak bakarrik ezagutu ditut, baina oso gomendagarriak dira.

PERTSONALA

Bizi izateko leku bat: Bergara.

Bidaiatzeko leku bat: Londres.

Liburu bat: *Congratulations You Have Just Met the ICF*.

Musika talde gustukoena: 4Skins.

Abesti bat: *Yesterday's Heroes*.

Ahaztuko ez duzu kontzertua: Cock Sparrer eta Cobra, Durangon.

Amets bat: Niri eta ingurukoei ondo joatea.

Umetako oroitzapen ona: Arratsalde osoak futboleko jokatzen igarotzen genituenekoak.

ASTEAGOIENAN



ARRITXU BARRUSO

Magali Muruamendiaraz aldeko jaialdia

Magali Muruamendiaraz bergararren aldeko jaialdia egingo dute bihar. 5 urteko neskatilak garuneko lesioa du, eta laguntza jasotzeko antolatutako jaia da. Han jasotakoak domekan erakutsiko ditugu, 15:30ean.

'Magaliren aldeko jaia'
Domeka, 15:30



JOSU TXINTXURRETA

Udalekuak izango dituzte hizpide 'Tertulia'-n

Azken urteetan asko zabaldu da udalekuetako eskaintza, baina zergatik bidali umeak udalekuetara? Zein adinekin hasi? Horiek eta gehiago aztertuko dituzte *Tertulia* saioan, Larritz Zebe-rioren gidaritzapean.

'Tertulia'
Eguaztena, 20:45

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 25	ZAPATUA, 26	DOMEKA, 27	ASTELEHENA, 28	MARTITZENA, 29	EGUAZTENA, 30	EGUENA, 31
13:15 Marrakzi bizidunak	08:00 Marrakzi bizidunak	08:00 Marrakzi bizidunak	13:15 Marrakzi bizidunak	13:15 Marrakzi bizidunak	13:15 Marrakzi bizidunak	13:15 Marrakzi bizidunak
13:45 Kantari	09:45 Ipupomamua	08:30 Leku txiki bat	13:35 Kantari	13:45 Kantari	13:35 Kantari	13:45 Kantari
14:15 Onein	10:15 Leku txiki bat	09:00 Ipupomamua	14:10 Berbetan	14:15 Onein	14:00 Harmailatik	14:15 Onein
14:45 Berriak	10:45 Magazinea	09:30 Marrakzi bizidunak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur	11:45 Ur eta lur	11:15 Kantari	16:00 Ikusmira	15:15 Harmailatik	15:10 Onein	15:15 28.Klip
15:45 Leku txiki bat	12:15 Onein	12:15 28.Klip	16:25 Gipuzkoa kultura	16:00 Kulturzulo	15:40 Bi tartean	15:40 Bi tartean
16:15 Erremeixuak	12:45 Berriak	12:45 Berbetan	16:45 Berriak	16:15 28.Klip	16:15 Leku txiki bat	16:120 Ikusmira
16:45 Berriak	13:00 Kantari	13:20 Ur eta lur	17:15 Marrakzi bizidunak	16:45 Berriak	16:45 Berriak	16:45 Berriak
17:15 Marrakzi bizidunak	14:10 Leku txiki bat	13:50 Nere herrie	17:40 Nere herrie	17:15 Marrakzi bizidunak	17:10 Marrakzi bizidunak	17:15 Marrakzi bizidunak
17:45 Gipuzkoa kultura	14:40 Marrakzi bizidunak	15:00 Onein	18:45 Berriak	17:45 Harmailatik	17:30 Erreportajea	17:45 Ipupomamua
18:15 Ipupomamua	15:45 Nere herrie	15:30 Magaliren aldeko jaialdia	19:15 Kantari	18:25 Marrakzi bizidunak	17:50 Berbetan	18:15 Marrakzi bizidunak
18:45 Berriak	16:50 Gipuzkoa kultura	17:45 Berriak	19:45 Magazinea	18:45 Berriak	18:20 Marrakzi bizidunak	18:45 Berriak
19:15 Kantari	17:20 Kulturzulo	18:00 Kantari	20:45 Harmailatik	19:15 Kantari	18:45 Berriak	19:15 Kantari
19:45 Magazinea	17:30 Tertulia	19:00 Ipupomamua	21:30 Magazinea	19:45 Magazinea	19:15 Kantari	19:45 Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura	18:30 Nire Herria	19:30 Magazinea	22:30 Harmailatik	20:45 Erremeixuak	19:45 Magazinea	20:45 Bi tartean
21:15 Magazinea	19:00 Berbetan	20:30 Bi tartean	23:15 Gipuzkoa kultura	21:20 Magazinea	20:45 Tertulia	21:15 Magazinea
22:15 Nire Herria	19:45 Ikusmira	21:10 Ikusmira	23:45 Magazinea	22:30 Bi tartean	21:45 Magazinea	22:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Magazinea	20:15 Kulturzulo	21:35 Erremeixuak		23:00 Magazinea	22:45 Erremeixuak	23:15 Magazinea
	20:30 Erremeixuak	22:05 Magazinea				
	21:00 Berriak	22:05 Magazinea				
	21:15 Magazinea	23:05 Tertulia				
	22:15 Tertulia					
	23:15 Gipuzkoa kultura					
	23:45 Bi tartean					

ARRASATE IRRATIA

Kooltur Ostegunetako antzerkirako sarrerak

Kooltur Ostegunak egitasmoan, datorren astean *Los Pardos* izenburuko antzerki saioa eskainiko du Qué Par Che taldeak. Harako sarrerak lortu nahi badituzu, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com-era.

Azken geltokian zuretzako lekua daukagu

Zure lagun edo familiakoren bat irrati bidez zoriondu nahi baduzu, *Igo autobusera!* irratsaioko azken geltokian duzu aukera horretarako. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 26	ANA FDEZ. CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Domeka, 27	JUAN ANTONIO IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Astelehena, 28	LOURDES AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 29	ANA ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 30	AURORA RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 31	ERKUDEN ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Egubakoitza, 1	ALBERTO AZCOAGA	Ferrieras, 1	943 79 15 15
BERGARA			
Zapatua, 26	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 27	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 28	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 29	JAVIER ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 30	L. ALVAREZ-M. MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Eguena, 31	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 1	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
OÑATI			
Zapatua, 26	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 27	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 28	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 29	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 30	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 31	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 1	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
ARETXABALETA			
Zapatua, 26	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Domeka, 27	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Astelehena, 28	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Martitzena, 29	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 30	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Eguena, 31	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 1	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43

Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN


DEBAGOIENA



ZAPATUA, 26
Giro atsegina izango da, zeruan hodeiak eta ostertek tartekatuko dira eta haizeak hegoalde-tik joko du.

DOMEKA, 27
Egunaren bigarren zatian zaparradaren bat edo beste bota dezake eta tenperaturak jaisten joango dira.

EUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

LANA
Begiraleak. Errenteriako Udala. Errenteriako udalekuetarako begiraleak behar dira. Epea: apirilaren 15a.

Ingeleseko begiraleak. Ikas-tolen Elkarte. Urtero antolatzen dituen ingeles udalekuetan hezitzaile lanetan aritzeko begiraleak behar ditu. Epea: martxoak 31.

BEKAK
Emakumeak. ONU Emakumeak eta Hegoak. Programa horren barruan, Hegoak 8 plaza eskaintzen ditu Latinoamerikan NBE Emakumeak erakunde lan egiteko. Epea: martxoak 31.

Praktikak atzerrian. Europako Batasuneko Eskualdeen Batzordea. Betebeharrak: gutxienez 3 urteko iraupeneko

unibertsitate-ikasketak, bi hizkuntza ezagutzeko, bat ingelese edo frantsesa izanik. Epea: martxoaren 31.

LEHIAKETAK
Artea. Caja Madrideko gizarte-ekintza. Aukeraturako 10 proiektu artistikoek 15.000 euroko sari bana izango dute. Baldintzak: 35 urte baino gehiago ez izatea eta aurkeztutako lana argitaragabea izatea. Epea: apirilaren 13a.

IKASTAROKAK
Sorospena. Gurutze Gorria. Elgoibarko Gurutze Gorriak 40 orduko ikastaroa antolatu du. Martxoaren 25etik apirilaren 16ra bitartean.

GAZTE AGENDA
Gaztemaniak. Zion Train+Bad Sound System. Oñatiko Gaztelekuan, martxoaren 25ean.

HILDAKOAK

Jose M. Guridi Arregui. Oñatin, martxoaren 16an, 79 urte.

Antonio Gonzalez de Martin Garro. Aretxabaletan, martxoaren 16an, 84 urte.

Hilario Uzarraga Astola. Arrasaten, martxoaren 19an, 101 urte.

Jesus Ezkurra Murua. Arrasaten, martxoaren 19an, 71 urte.

Joakin Ibabe Orueta. Arrasaten, martxoaren 21ean, 77 urte.

Manolo Muñoz Gomez. Eskoriatzan, martxoaren 21ean, 59 urte.

Felisa Pedrejon Balbas. Bergaran, martxoaren 21ean, 88 urte.

Juan de Dios Zafra Blanco. Bergaran, martxoaren 23an, 81 urte.

M. Luisa Loizaga Telleria. Arrasaten, martxoaren 23an.



Maite eta Ibon

Bergarako Maite Larrañaga eta Ibon Gabilondo bihar, martxoaren 26an, ezkonduko dira Bergarako Santa Marina parrokian eta familia eta lagun artean ospatuko dugu egun hau, Lasa jatetxean bazkalduz. Ondoren, eztei bidaian Mexikora joango dira. Familiaren partetik zorionak!



Viviana eta Mikel

Viviana Orellana eta Mikel Del Palacio bihar, zapatua, ezkonduko dira. Zorionak, bikote, lagun guztien partetik!

ESKER ONA

Joakin
Ibabe Orueta

Arrasaten hil zen 2011ko martxoaren 21ean, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko etxekeoen eta senide guztien izenean.

Arrasaten, 2011ko martxoaren 25ean.

ESKER ONA

Antonio
Gonzalez de Martin Garro

Donostian hil zen 2011ko martxoaren 16an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoeen izenean.

Aretxabaletan, 2011ko martxoaren 25ean.

OROIGARRIA

Manuel
Muñoz Gomez

2011ko martxoaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzean.

Antonio-Juani, Rafa-Agapi, Antonio-Pepa, Juanjo-Juani.
Eskoriatzan, 2011ko martxoaren 25ean.

ESKER ONA

Eusebia
Guridi Guridi

Anastasio Zubiaren alarguna

Oñatin hil zen 2011ko martxoaren 23an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoeen izenean.

Oñatin, 2011ko martxoaren 25ean.

ESKER ONA

Jose M.
Guridi Arregui

Oñatin hil zen 2011ko martxoaren 16an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoeen izenean.
—
Aldi berean jakinarazten dizuegu bihar, zapatua, 19:30ean, Agustinoetan bere aldeko ondra meza ospatuko dugula.

Oñatin, 2011ko martxoaren 25ean.

OROIGARRIA

Manolo
Muñoz Gomez

2011ko martxoaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Joan egin zara baina zure oroimena gurekin geratuko da.



Arizmendi Kirol Elkarteak jokalaria, guraso eta entrenatzaileak.
Leintz bailaran, 2011ko martxoaren 25ean.

MEZA

Luis
Uriarte Iturritxa

Haren emaztea: Puri Etxeberria

Iruñean hil zen 2011ko martxoaren 9an, 74 urte zituela.

Haren arimaren aldeko elizkizuna domekan, martxoaren 27an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoeen izenean.

URTEURRENA

Aritz
Azpiazu Bengoa

Oñatin hil zen 2005eko martxoaren 25ean.

Beti izango zara gurekin.

Etxekoak.
Oñatin, 2011ko martxoaren 25ean.

OROIGARRIA

Manolo
Muñoz Gomez

Goienako kolaboratzailea

2011ko martxoaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena komunikazio taldea.
Eskoriatzan, 2011ko martxoaren 25ean.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO

DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOK ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

OÑATI Gaztemaniak

Zion Train taldeak eta Bad Sound System DJak egingo dute jaialdia, Gaztemaniak-en eskaintzaren barruan. DJ eta dub musika egiten dute bi artistek, bakoitzak sustrai ezberdinak hartuta. Biek ala biek mundu osoan dute ospea Dub zirkuituetan. Saio bikoitza izango da.

Gaur, gaztelekuan, 22.30ean.



GOIENA



JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE Metal jaialdia

Aurten ere, Barreneko Deabruaz gozatzeko aukera egongo da. Martxoaren 26an egingo da, Arrasateko gaztetxean. Crystalmoors, Aiumeen Basoa eta Denial taldeek egingo dute emanaldia. Sarrera 5 euro da.

Martxoaren 26an, zapatuan, gaztetxean, 22.00etan.

MUSIKA**BERGARA** Gabero abesbatzaren kontzertua

Taldeak bi zatitan banatutako programa eskainiko dute: lehenengoan hainbat musika estilo egingo dituzte (euskal kantak, gospel, pop...) eta bigarrenan, *The Armed Man: A Mass For Peace*, Karl Jenkinsen obra egingo dute.

Martxoaren 27a, domeka, Mariaren Lagundiako elizan 19.00etan.

BERGARA Calaña taldearen kontzertua

Iruñeko Calaña taldeak *A cal y canto* bigarren diska aurkeztuko du, orain arte bezala, rocka eta flamenco nahastu, baina soinu helduagoarekin.

Martxoaren 26a, zapatuan, Tartufon 22.30ean.

ESKORIATZA Ez! taldearen kontzertua

Ibarrera bueltan, Eskoriatzan izango da lehen kontzertua iparralde aldean jardun eta gero. Martxoaren 26a, zapatua, Aldatz tabernan, 22.00etan.

ARRASATE Xarma taldearen kontzertua

Danbaka lehiaketako laugarren edizioako irabazleek kontzertua emango du Irati tabernan, Orhipeanen kultur eragintzak antolatuta.

Martxoaren 26a, zapatua, Irati tabernan 18.30ean.

BERGARA DJ Ramiren emanaldia gaztetoendako

Begarako Udalak antolatua; DBHko ikasleendako. Martxoaren 26a, zapatua, Zabalotegi aretoan 18.30etan

ELGETA Kontzertua, Espaloia kafe antzokian

Iñaki Sagasta euskal kantautorea eta Ras Miguel Tafari reggae-blues-soul taldea.

Martxoaren 25a, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian 22.30ean.

OÑATI Reacción 913 eta Red District taldeen kontzertua

Punka eta rock izango dira nagusi bi talde gazte eta indartsu hauekin.

Sarrera doan izango da.

Martxoaren 25ean, egubakoitza, Arrano tabernan 22.00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

MARTXOA 25
MARTXOA 31

ANTZERKIA**ARRASATE** 'Los Pardos'

Bilbon eta Argentinan hankak dituen talde hau Mariano Di Francok eta Maite Gebarak osatzen dute. Ibilbide luzea dute antzerkian, clownean eta beste makina bat diziplinatan. Argentinan bira luze baten aurkeztu ostean, orain hasi dira Euskal Herrian *Los Pardos* ikuskizuna jendaurrean erakusten. Musika, umorea eta bestelako piztiak izango dira ikusgai zein entzungai.

Martxoaren 31, eguna, Gaztetxean, 22.00etan.

DANTZA**ELGETA** 'Herrixa dantzan' saioa

Dantza saio irekia zuzeneko musikarekin, Jaigana eta Narbaiza trikitilariekin.

Martxoaren 27a, domeka, Espaloia kafe antzokian 19.00etan.

ESKORIATZA Dantza saio ludikoa: taldeko dantzak

Taldean egiteko dantza tradizio-

nalak, Europa osoan zehar jasotakoak. Erraz eta dibertigarriak. Helduentzat.

Lekua: kultura etxea

Parte hartzea: 5,00 euro

Martxoaren 26a, zapatua Eskoriatzan 18.00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**ARETXABALETA** 'Aretxabaleta atzo eta gaur' emanaldia

Argazki Taldeak antolatuta lehenengo eta oraingo Aretxabaletako argazkiekin osatutako emanaldia eskainiko dute, 25 minutu inguruan.

Gaur, azken eguna, Arkupeko Zeraia aretoan, 19.00etan.

ERAKUSKETAK**ARRASATE** 'Palestina eta Golan, Giza Eskubideak

Ekin Emakumeak eta Mundu bat Gobernu Kanpoko Erakundeak elkarrekin antolatua. Hain zuzen, emakumea izango du erakusketak ardatz.

Martxoaren 27a, domeka, Gaztetxean.

TOPAKETA**ARAMAIO** 'Las Cuatro Torres' Arabako erretiratu elkartearen bilkura orokorra

Arabako erretiratu elkarte guztiek bilkura orokorra egingo dute. Aramaioko Alaiak elkarte ere deituta dago, hainbat bazkide Extremaduran egongo diren arren. Gasteizko bilkurara joan gura duenak, baina, martxoaren 25erako eman behar du izena Alaiak elkartearen egoitzan.

Martxoaren 31, eguna, Gasteizko Mendizorrotza kiroldegian, 12.00etan.

IRTEERA**ANTZUOLA** Iratxera irteera, erretiratuekin

Egun osorako irteera izango da. Egitaraua honako hau da: goizeko 8.30ean irtengo dira Antzuolatik eta bertako trufaren museoa eta upategi bat bisitatuko dituzte, besteak beste.

Hamarretakoa eta bazkaria, berriz, Irache hotelean egingo dituzte, bisiten artean.

Martxoaren 30ean, eguaztena, 08.30ean.



IMANOL SORIANO

BERGARA Gazte Eguna

Begarako gazte independentistek antolatuta dute, *Marasma saretzen* prozesuaren barruan. Egitaraua: 12:00etan *altxorren bila* jardungo dute; 15:00etan bertso-bazkaria Muniben; 18:30ean poteoa; eta 22:30ean kontzertua gaztetxean Hard Flip, Soilik eta Show Business taldeekin.

Martxoaren 26an, zapatuan, 12:00etan.

HITZALDIAK**BERGARA** Irati Anda, 'Hamarkada bat harkaitzen artean'

Irati Andaren diaporama emanaldia eta hitzaldia. Antolatzailea: Jardun.

Martxoaren 30a, eguaztena, Kultura etxean 19.00etan.

OÑATI Eguzki Sistema, exoplanetak eta bizitzaren bilaketa.

Ricardo Hueso izango da hizlaria. Bilboko Ingenieritza Goi Eskola Teknikoko irakaslea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Fisikoetako Doktorea da. Martxoaren 24a, eguna, ULM Taldeko Zerbitzu Zentraletan, Oñatiko Garagaltza auzoko 51. zenbakian, 18.00etan.

BESTELAKOAK**ARRASATE** Txokolate dastatze ezin gozoagoa

Debagoieneko Jardunaldi Gastronominen barruan.

Martxoaren 30a, eguaztena, Kulturaten, 19.00etan.

BERGARA Gorla Eguna naturaz gozatzeko

Aisialdian naturaz gozatzeko hainbat ekintza: mendi txangoak, orientazio jolasak edota zuhaitz landaketa.

Martxoaren 27a, domeka, Gorlan 16.30ean.

ELGETA Ibilbide tematikoa eta bisitaldi gidatuak.

Gerra Zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide honetan Elgetako Intxorta mendia magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera dago. Ibilbidea Elgetako Espaloia Kafe Antzokitik abiatuko da; lehendabizi Interpretazio Gunea bisitatuz eta ondoren 5 km. ko ibilbide tematikoa oinez eginez. Elebitanda eta prezioa 2 euro da.

Izenemateak: 943 79 64 63 ala turismo@debagoiena.net.

Martxoaren 27an, domeka, Espaloiko interpretazio gunetik abiatuta, 10.00etan.

ELGETA Gaztetxea auzolanean txukuntzen

Gaztetxean garbiketa eta konponketa lanak auzolanean egiteko deia.

26 eta 27a, zapatu eta domeka, 10.00etan.



goiena

2011-03-25

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Gorrek ere entzuteko moduko abestia

- ▶ Ainhoa Moiuak keinu-hizkuntzara itzuli du, bideoklip batean, Zea Maysen 'Negua joan da ta'
- ▶ Keinu-hizkuntzako itzultzailea da eta Eskoriatzako Huheziko fakultatean irakasle lanetan dabil

ARRITXU BARRUSO | ESKORIATZA

Zea Maysek Gaztea irratiko make-ta lehiaketa irabazi zuenetik talde bizkaitarraren jarraitzailea da Ainhoa Moiu. Bada, oraindik sinestea kostatu egiten zaion arren, Zea Maysen azken bideokliparen protagonista bilakatu da. Youtuben dagoeneko ia 10.000 bisita lortu dituen bideoaren protagonista.

Eskoriatzako Huheziko fakultatean irakaslea da Moiu, baina, horrez gain, keinu-hizkuntzako itzultzailea ere bada. Hori horrela, egun batean erabaki zuen Zea Mays taldekoei opari bat egitea: "Negua joan da ta" abestia keinu-hizkuntzara itzuli nuen eta bideo batean grabatu nuen. Danborenean kontzertua eman zutenean, amaieran, taldekideekin hitz egiten geratu nintzen. Esan nien keinu-hizkuntzako itzultzailea nintzela eta opari bat nuela haiendako. Hiru egun geroago, nirekin harremanetan ipini ziren bideoklipa grabatzeko. Asko gustatu zitzaizaien nire oparia", kontatu digu Moiuak.

Sentimenduak ageri-agerian

Moiuak erakutsi digu keinu-hizkuntza bidez berdin-berdin transmiti daitekeela, eta ileak puntan jarri. Aiora Renteriarren ahotsak



Ainhoa Moiu keinu-hizkuntzako itzultzailea, eta bideoklipeko bi une. | A.B.

duen indarra lortu dute Moiuaren keinuek. Bideoa ikusi dutenek sarean behin eta berriz aipatu dute Moiuaren indarra eta espresibotasuna: "Berrizko kultura etxean egin genuen grabazioa eta oso esperientzia polita izan zen. Nire onena eman nuen. Politikariak itzultzen ditudanean, esaterako, kontrolatu egin behar ditut inpulsoak eta nire tokian egon. Kasu honetan, ez nuen inolako toperik ipini eta sentitzen nuen guzti-guztia ateratzen ahalegindu nintzen. Bestela ere, esaten didate hitz egiten dudanean oso espresiboa naizela, eta horrek ere lagunduko zuen".

Sare sozialetako izar berria

Moiuaren bideoak sekulako oihartzuna lortu du Interneten eta, batez ere, sare sozialetan. Hark kontatu digu ez zuela inondik inora horrelakorik espero: "Ezta pentsatu ere. Grabatu nuenean pentsatu nuen lagunen bati-edo bidaliko niola egindako lana ikus zezaten, baina ez nuen imajinatu ere egin horrelako arrakasta izan zezakeenik. Lotsatu egiten naiz baten batek bideoa ikusi duela esaten didanean. Baina sekulako esperientzia izan da eta eskerrak eman behar dizkiot Zea Mays taldeari".

AZKEN HITZA

MIKEL IRIZAR



Etorria joan

Urteak eman ditut aste-oro zutabe hau (gutxienez) idazten eta etorria neukan, samur zetozkidan ideiak eta berbak, neke barik betetzen nuen konpromiso maiza.

Aldiz, hilean behingoa kostata osatzen dut, etorria joan egin zait; egia da laneko kontuetan murgilduta nabilela neurritz gaindi, zorte handia izan baitut ibilbide profesionalaren amaieran aukera gustagarriagoa jasota.

Ukaezina da, bestalde, une beroa bizi dugula. Sortu epaitzean dabil bidea irekitzen eta ETA sasia amaiera irudikatzen. Libian mendebaldarron armadak nahi litzuzke bekatu zaharrak bonbaz estali. Japonian ez da bakarrik kostaldea suntsitu, baita harrokeria teknologikoa ere. Aurrezki kutxak kaput, baina gureak irauteko moduan, denok nahi badugu. Hauteskundeak datoz beste behin, gero eta ikusmin txikiagoarekin. Udaberria asteon hasi da...

Gaia badago ugari, baina etorria joan zait. Blogean azken sarrera aspaldi sartu nuen, ez dakit noiz jotzen zaion blog bati hil kanpaia. Baina, kontuz! Agian datorren hilean berpiztuko da nigan zerbait, hurrengo zutabea argitaratzen denarako lanetik libre egongo naiz eta. Agian orduan itzuliko zait etorria.

PREST

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA MARTXOAK 26 larunbata, 11:00

ARRASATE APIRILAK 2 larunbata, 11:00 *master akademikoa*

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI APIRILAK 2 | IRUN APIRILAK 9
larunbata, 11:00 | larunbata, 11:00ARETO
NAGUSIAN
Etorri aurretik
izena eman!